

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2012-2013 Ikasturtea

Ikerketa lana

**ERLAZIO AFEKTIBO SEXUALAK ESPETXE GARAIAN,
ASKATASUN (G)UNE?**

HAINBAT EUSKAL EMAKUMEREN ESPERIENTZIAK

Egilea:

Oihana Echevarrieta Legrand

Tutorea:

Jone Miren Hernández

2013ko Iraila

0. SARRERA.....	1
1. LANAREN PLANTEAMENDUA: HIPOTESIAK ETA HELBURUAK.....	4
1.1. Gaiaren azalpena	5
1.2. Helburuak.....	5
1.3. Hipotesiak	5
2. ESPETXEAREN ERRADIOGRAFIA	7
2.1. Emakumeak eta espetxea	7
2.1.1. Espainiar estatuko espetxeak.....	8
2.1.2. Delitua.....	10
2.1.3. Emakume espetxeratuen perfilak.....	16
2.2. EPPKa eta espetxea.....	17
2.2.1. EPPK. Definizioa.....	17
2.2.2. Emakumea euskal nazionalismoan.....	18
2.2.3. Emakumea euskal gatazkan.....	23
2.2.4. Emakume euskal preso politikoa espetxean.....	26
3. HARREMAN AFEKTIBO SEXUALAK KARTZELAN.....	33
3.1. Maitasun pentsamenduari hurbilpen bat.....	33
3.1.1. Maitasuna historian zehar.....	36
3.1.2. Maitasun eredu honi erantzuten dion familia eredu.....	37
3.2. Kartzelaren eraginak harremanean.....	38
3.2.1. Arazo komunikatiboak.....	40
3.2.2. Arazo ekonomikoak.....	45

3.2.3. Osasun arazoak.....	46
3.2.4. Arazo psikologikoak.....	46
3.2.5. Arazo sozio-familiarrak.....	51
3.2.6. Laburbilduz.....	53
3.3. Maitasun harremanak EPPKn.....	54
4. METODOLOGIA.....	58
4.1. Teknikak.....	58
4.2. Elkarrizketatuen argazkiak.....	63
5. HARREMAN AFEKTIBO SEXUALAK ESPETXEAN. HAINBAT EUSKAL EMAKUMEREN BIZIPENAK.....	67
5.1. Bikote harremana kartzela aurretik.....	67
5.2. Bikote harremana kartzela garaian.....	73
5.2.1. Kartzelaratzea edo Ihesa.....	73
5.2.2. Harremanaren jarraipena?.....	78
5.2.3. Harremanak kartzelan.....	81
5.3. Bikote harremana kartzela ondoren.....	98
6. ONDORIOAK.....	104
7. ERANSKINAK.....	109
8. BIBLIOGRAFIA.....	111

0. SARRERA

Espetxeak Euskal Herriaren historian toki nabarmena dauka. Entzun izan ditugu gure aitona eta amona 1936ko altxamendu faxista eta gero sufritu behar izan zituztenez hitz egiten (berandu, baina hasi gara), edo Burgosko epaiketaren irudi eta soinuak telebistan askotan ikusi ahal izan ditugu, gaur egunean espetxean dauden Euskal herritarren inguruko albisteak nahikotxotan irakurri ditzakegu prentsan... Horrek guztiak osatzen du gure espetxearen inguruko iruditegia. Baina iruditegi hau maskulinoa da. Duela gutxi jakin genuen Saturrarango kartzelan gertatutakoa eta duela oso gutxi ere euskal emakumezko presoaren egoeraz hitz egiten hasi dira zenbait preso ohi. Ez da gure interesekoa izan emakumezkoek kartzela barruan eta kanpoan bizitu izan dutena. Gizonezkoen bizipenekin ase gara urteetan zehar.

Ni, ez naiz kasualitatez heldu gai honetara. Horrelako egoera bat gertutik bizi behar izateak piztu dit interesa gaian. Ikusten nuen, mutilezko presoaren inguruan genekiena ez zela aplikagarria neska presoaren kasuan. Ikusten nuen, mutilezko preso horien bikotekideek bizitzen zutena, pairatzen zituzten egoerak, zituzten kezkek, erreproduzitzen zituzten rolak... Eta ikusten nituen emakumeak horren inguruan hitz egiten, horri aurre egiten saiatzen. Eta horregatik, master honetan sartu nintzen momentutik, gaia ikuspegi feminista batez landu ahal izatea aukera oso ona iruditu zitzaidan. Bikote harremanak ardatz izango zirela ere oso argi nuen, batez ere, ikusarazi nahi nuelako, kanpoan babes emozional eta material hori ematen egoten diren emakumeak nola bizitzen duten egoera hau. Ikusezinak egin ditugu emakume hauek, eta haien bizipenak kontatu beharrekoak direla kontsideratzen nuen, eta kontsideratzen jarraitzen dut. Haien bizi istorioek ere gure historia osatzen dutela uste dut.

Hasieran, egoera orokorragoaren argazkia ateratzen saiatu nintzen. Aurretiaz eginda zeuden lanak irakurtzen aritu nintzen batez ere. Eta bertan, zenbait konparazio egin ahal izan nituen, euskal preso politikoen eta preso sozialen inguruan. Eta ikusi ahal izan nuen gauza askotan ezberdinak izan arren, bizipen berdina asko konpartitzen dituztela. Eta hori ikustarazten saiatu naiz lanean. Ez zait batere zaila egin behar nuen materialarekin topatzea, aurretiaz egindako bi ikerketa izan baititut bidelagun. Zailagoa egin zait ordea Euskal Preso Politikoen inguruko bibliografia topatzea. Hala ere zegoenarekin aurrera egin, eta *maitasunaren* gaian apur bat sartzea izan zen nire ondorengo pausua. Hemen ere nahiko eroso mugitu naiz, baina denbora falta zela eta aztertu nahiko nituzkeen

autore eta lanen zati batera bakarrik heldu ahal izan dut. Kartzelan maitasun harremanek, edo bikote harremanen inguruko azterketak topatzea ere ez da lan erraza izan. Oso gutxi dago sakondua gaiaren inguruan, baina zenbait lanek lagundu egin didate errealitate hau hobeto ikusten. Tartean, kartzelarekin zer ikusia duten hitzaldi eta jardunaldietara joateko aukera izan dut, eta batez ere, niretzako oso garrantzitsua izan den udako ikastaro bat egiteko aukera izan dut. UNEDk Alcalá-Mecoko kartzela barruan burutzen zuen ikastaro batean parte hartzeko aukera izan nuen, eta instalazioak ikusteak gain, emakume presoekin hiru egun konpartitzeko aukera izan nuen. Bizipen oso aberasgarria.

Bigarren atal honetan murgilduta nengoenean, elkarrizketekin hasteko aukera izan nuen. Ez zen zaila izan bilatzen nituen perfiletako pertsonak topatzea. Jende asko hurbildu zen nigan bere bizipenak kontatzeko prest, edo inguruan duen lagun baten istorioaz informatzen. Azkenean arazoa hori izan da, jende gehiegi neukala aukeran. Eta aukeraketa horretan, parte hartu nahi zuen jende guzti horren artean batzuen eskaintza momentuz alde batera utzi behar izatea zaila egin zitzaidan. Honek ere ekarri du hasieran nahi nuena baina elkarrizketa gehiago burutzea, eta bederatzi elkarrizketarekin amaitzea. Azterketa egiteko garaian honek apur bat zaildu du lana eta nahi baina gehiago atzeratu analisiaren amaiera.

Lan xume hau egitea bururatu zitzaidanean, errealitate konkretu bat azaleratu nahi izatea zen helburu nagusienetako bat, eta elkarrizketatutako guztiek 10 errealitate ezberdin eskaini dizkirate. Teorian murgilduta nengoen aurretik, eta haiekin errealitatera jaisteko aukera izan nuen eta inolako arazorik gabe haietzako bereziak eta gogorak ziren esperientziak kontatu zizkidaten. Haien oparia hain handia eta preziatua zela ikustean, oso zaila egin zait esan zidaten guztia harilkatu behar izatea. Baina amaitu dut (oraingoz) *patchwork* txiki hau. Haien ekarpen guztiak nire egin ditut eta lantxo honetan irudikatzen ahalegindu naiz. Askoz gehiago izan da eskaini didatena, baina honetan utzi behar izan dut oraingoz. Ahalik eta hoberen interpretatzen ahalegindu naiz esandako guztia, eta espero dut lortu izana. Ikaspen handia izan da lan hau burutu ahal izatea, bai teorikoki eta metodologikoki jaso dudan guztiagatik eta baita emozionalki jasotakoagatik.

Ez dut amaitu nahi prozesu guztian zehar lagundu didaten pertsonen eskerrak eman gabe. Ikerketa hauetan aurretiaz aritutako neska ikerlarien eskuzabaltasunak asko

lagundu dit prozesuarekin aurrera egiten, eta zati teorikoan beharrezkoak diren autoreak topatzen. Edozein momentutan ere, esku artean zeukaten informazioa luzatu didate, zoragarria izan da haien esperientzia eta lanak ezagutzea, baina are gehiago haiekin topo egitea. Bestalde, ikerlanaren beraren betebeharrak betetzen lagundu didaten guztiak eskertu nahiko nituzke, zuzenketekin aritu direnei, transkribapenekin lagundu didatenei, elkarrizketatzeko pertsonak bilatzen lagundu didatenei, nire buru hausteak behin eta berriz entzuten egon diren guztiei... Nire tutorea ere bereziki eskertu nahi dut, bere laguntza eta animoak oso baliagarriak izan dira prozesuan aurrera humorez ekiteko. Konfiantza handia eskaini dit eta hori prozesua segurtasunez eta ilusioz hartzea ahalbidetu dit. Amaitzeko elkarrizketetan parte hartu duten pertsona guztiak bihotz-bihotzez eskertu nahiko nituzke. Haien denbora nirekin partekatu dute, batzuetan oso errazak ez diren oroitzapenak konpartituz. Estimaten dut nirekin izandako konfiantza, eta espero dut modu berean erantzun izana egin dudana lanarekin. Espero dut lan hau haiena sentitzea, nik behintzat horrela sentitzen dut, lan kolektibo bat bezala. Eta nola ez, esperientzia honetan sartzeko indarra eman didazun horri eskerrik beroena. Hipotesiak zurekin eraiki nituelako, eta ondorioak jasotzen ari garelako.

Eskerrik asko guztiei.

1. LANAREN PLANTEAMENDUA: HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

1.1. Gaiaren azalpena

Emakumeak, kartzela garaian, bai espetxe barruko bizipenetatik zein kanpokoetatik (bikotea espetxeratuta dutenean, alegia), erlazio afektibo sexualak nola bizi dituzten aztertzea da ikerlan honen helburua. Izenburuan planteatzen den galderak, lanean zehar zeharkatuko den ideia nagusia laburbiltzen du, hain zuzen, harreman hauek askatzaileak diren, edo lotura bat suposatzen duten emakumeentzat?

Emakumeek, Europar Batasuneko kartzeletako estatistiketan portzentaje txiki bat izaten jarraitzen dute oraindik ere. Espainian, 2013ko Martxoan kartzelan zeuden pertsona guztien %7'6 (70.681 presotatik 5392 emakume hain zuzen)¹ ziren emakumeak eta Frantzian, 2013ko Apirilean %3'25 (67.839 presotatik 2207 emakume espetxeratu hain zuzen)². Kopuru hau hain txikia izateak “kolektibo hau ikusezin bihurtzen du, eta honek politika penal eta kartzela politikaren sorreran emakumea kanpoan uztea edo ukatzea dakar. Desberdina modu ezberdinean ez tratatzean diskriminazio eta injustizia egoerak sortzen dira”³ (Aguilera, 2009: 134).

Ikusezintasun hau gainditzeko, zenbait ikerketa (tamalez, gutxi oraindik) egin izan dira emakume presoaren egoera aztertzeko, eta haien egoera espezifikotik jarri da jo puntua, adibidez, emakume ijitoak, kartzelaratutako amak, jatorri ezberdinetako emakumeen egoera... Berezitasun bakoitzak, zigorra areagotzen dio espetxeratutako emakumeari, eta honen ikusgarritasuna lantzeak, zigor horren bisibilizazioak, era batean, lagundu egiten duela pentsatzen dut.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaz (EPPK)⁴ hitz egitea erabaki dut nik lan honetan, baita Kolektibo honetako partaideen bikotekideez. Talde honi, juridikoki eta legalki, eskatzen duten izaera aitortzen ez zaien arren, delako “euskal gatazkaren” ondorioz

¹ Datu hauek Espainiar estatuaren estatistika institututik atera ditut: www.ine.es (Azken ikustaldia 2013ko Ekainaren 1ean).

² Datu hauek Frantses estatuaren Justizia departamentuaren web orrialdetik atera ditut: www.justice.gouv.fr (Azken ikustaldia, 2013ko Ekainaren 1ean).

³ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*Esta invisibilidad de las mujeres en el ámbito penitenciario provoca que se planifique una política penal y penitenciaria desde la ausencia o negación. Al no tratar de manera diferente lo distinto se producen situaciones de discriminación e injusticia*”.

⁴ Bere burua honela definitzen du EPPK-k: *Jatorri eta izaera politikoa dugun heinean, kartzelatuak izan garen euskal herritarrok EPPK osatzen dugu, Euskal Herriaren alde egiten segitzeko asmoz. Kartzela esparrutik eta molde bateratuaz eragiteko tresna dugu, izan ere, Kolektiboa. Gatazka politikoarekiko loturari irmoki eutsi eta gure parte-hartzea euskal prozesu politikoan bideratzeko tresna modukoa, alegia. Hori, besterik ez baita EPPK*” (Auzolana, 2010)

espetxeratuak izan diren pertsona guztiek erregimen berezi batean bizi behar dute. Honetan oinarrituta, eta eskubide murrizketa hauek bikote erlazioak aurrera eramateko sortzen dituzten zailtasunak ikusita (dispertsioa, dei kopuru murriztua, bisitetara sartzeko arazoak, ...) egoera hau ezagutzen eta ikustarazten ahalegindu nahi dut lan honetan.

Hain zuzen, emakumeen egoera berezian oinarritzea ez da kasualitatea, ikusezintasuna bera kolektiboaren adierazpenetaraino heltzen dela iruditzen baitzait. Bai emakume presoen, zein kanpoan dauden bikotekideen egoera erabat isildua dagoela azpimarragarria da. Lan honetan, harreman afektibo sexualak pribatutik atera, eta hauen izaera politikoa aitortzen ahaleginduko naiz, feminismoan aski ezaguna den leloak dioen bezala “pertsonala politikoa baita”.

1.2. Helburuak

- a) Espetxe barruan bizitzen diren harreman afektibo sexualen mundura hurbiltzea, batez ere emakume gazteen testigantzak jasoz.
- b) Emakume presoek haien behar afektibo eta sexualen inguruan egin dituzten (eta egiten dituzten) hausnarketak jasotzea (noraino sentitzen diren aseak, sentitzen dituzten hutsuneak, ...), maitasunaz nolako irudia eta diskurtsoa duten aztertuz.
- c) Espetxean bikotekidea duten emakumeek harremana nola irudikatzen duten eta hau aurrera eramateko zein nolako estrategiak garatzen dituzten jasotzea.
- d) Mutilek, egoera hauetan nesken diskurtsoekin bat egiten duten ikustea, edo egoera ezberdinak bizi dituzten konparatzea.

1.3. Hipotesiak

- a) Emakume presoek zein bikotekide emakumeek, maitasun erromantikoaren baitan irudikatzen dituzte haien erlazioak kartzelan erlazioa mantendu behar duten bitartean.
- b) Biek hala biek, ez dituzte haien harreman afektibo eta sexualak aseak ikusten.
- c) Kartzelatik kanpo dagoen bikotekide emakumeak, gizonaren beharrak bereen aurretik jartzen ditu.

- d) Zenbait lagunek, militantek... presoaren babes emozionala zaintzen dutela pentsatzean, eta hau “burutzean”, kanpoan dauden bikotekideak kontrolatzen dituzte (norekin erlazionatzen diren, parrandetan zer egiten duten...). Batez ere, bikotekide emakumea kontrolatzen dute.
- e) Emakume gazteagoak, militantzia feministari esker, beste harreman eredu batzuen bidean urratsak ematen hasi dira kartzeletako harremanetan.

2. ESPETXEAREN ERRADIOGRAFIA

2.1. Emakumezkoak eta espetxea

2006. urtean Europar Kontseiluko Ministroen Komiteak presondegietakoa arauetan kontuan hartzeko gomendio batzuk argitaratu zituen. Bertan, Batasuneko kide diren estatu guztiek kontuan hartu beharreko gomendio horiek bildu zituzten. Emakumea, modu berezitan agertzen da aipatua, hain zuzen, 34. puntuan. Bloke honetako lehen puntuak (34.1) honako hau dio: “Arauek emakumeei zuzendutako disposizio bereziak betetzeaz gain, agintariek, emakumeen behar fisiko, profesional, sozial eta psikologikoei atentzio berezia eskaini beharko diete atxilo aldian eragin diezaiokeen edozein erabaki hartzerakoan”⁵ (Generalitat de Catalunya, 2010: 19). Puntu honetatik abiatuta Parlamentu Europarrak urte bete beranduago, emakumeen egoera berezituaren inguruko erresoluzio bat kaleratuko du. 2006ko Ministroen Komitean aipatutako “atentzio berezitua” modu zabalago batean landuko dute “Kartzeletan dauden emakumeen egoera berezituaren eta kartzelaraturutakoak guraso izateak dituen ondorio sozial eta familiarren inguruko erresoluzioan”⁶. Nazio kideak, egindako gomendio guztiak oinarri hartuta, sistema penalean aldaketak sartzen hasiko dira.

Honek, eragin zuzena izango du Espainiako estatuko “Presondegiko eremuan Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako ekintzen programa”⁷ (Ministerio del Interior, 2008) osatzean. Diagnostiko bat eta honi aurre egiteko gomendioak biltzen zituen azterketa honek. Gaur egungo egoera diagnostikoa egin zenekoarekin alderatu nahiz izanez gero, lan “zaila” izango genuke eskuen artean, alde batetik denbora tarte “laburra” pasa delako bien artean, eta bestetik, espetxearen barruko errealitatea ezagutzea oso zaila delako (eta beraz, astiro doan prozesua da bertako errealitatea aztertzea). Elisabet Almeda (2002) ikerlariaren hitzetan, Espainiar estatuko kartzeletara sartzea ez da erraza, ez ikerlariarentzako, ezta elkarreentzako ere. Kartzela sistemaren inguruko salaketa egin bezain laster, aurretiaz sartzea lortu izan zuen talde edo

⁵ Jatorrizkoak honela dio: “Además de cumplir con las disposiciones específicas de las presentes reglas destinadas a las mujeres, las autoridades prestarán especial atención a las necesidades físicas, profesionales, sociales y psicológicas de las mujeres, a la hora de tomar decisiones que afecten a cualquier aspecto de su detención” (itzulpena nirea da).

⁶ Jatorrizko izenburua: “Resolución sobre la situación especial de las mujeres en los centros penitenciarios y las repercusiones de la encarcelación de los padres sobre la vida social y familiar” (Itzulpena nirea da).

⁷ Jatorrizko izenburua: “Programa de acciones para la igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito penitenciario”.

profesional-ikerlari batek, ezin izango du edo zailtasun ugari izango ditu berriro sartzeko.

*“Legelari honen arabera (Manuela Carmena), gure herriko kartzela sistemen bahiketaz hitz egin daiteke. Naturalki, hau demokrazia batean ez litzateke gertatu beharko, baina paradoxikoki, herri demokratiko bat izanez, indarrean den legeditik horren urrunduta dagoen kartzelako errealitatea isilean ezkutatzeko beharra handiagoa izan daiteke.”*⁸ (Almeda, 2002: 206)

Esaldi honetan bi egoeraren berri ematen digu, alde batetik, paperean idatzita dagoenetik nahiko urrun aurkitzen dela gaur egungo kartzela sistema, eta bestetik, oso zaila izaten dela honen inguruko informazioa lehen eskutik jasotzea eta beraz, honen inguruko informazioa zabaltzea.

Murrizketa eta oztopo guzti hauetaz kontziente izanik ere, gaur egungo Espainiar estatuko (eta Kataluniako)⁹ emakume espetxeratuen eta emakume espetxeen inguruko diagnostia egingo dut jarraian. Zailtasunak zailtasun, espazio eta gai ikusezin hau azalera ateratzen saiatzen ari diren ikerlari ezberdinen lanari esker, egoeraren argazki bat ateratzeko aukera dugu gaur egunean.

2.1.1. Espainiar estatuko kartzelak

Emakumeak, haientzako pentsatuak izan ez ziren espazioetan aurkitzen dira espetxeratuak. Miren Arbelaitz, Edurne Bengoetxea, Alma Méijome, Maria Ruiz eta Laura Varak (2011) osatutako ikerlanean, hiru motatako presondegi definitu dituzte:

1. Gizonezkoen espetxeen barruan kokatutako modulu txikiak, unitateak edo departamentuak. Emakume espetxeratuen kasuan ohikoena horrelako guneetan atxilo egotea da. (Adibidez, Martutene –Donostia- eta Iruñako kartzelak.)
2. Emakume espetxe txikiak, gizonezkoen espetxe handi edo “makro-kartzela” deiturikoen barruan. (Adibidez, Brians –Bartzelona-, Soto del Real -Madril V-, Topas –Salamanca-, ...) Azken urteetan presondegi hauen kopuruak gora egin du nabarmen, eta horrekin batera, emakumezkoentzako espetxeratze eredu honek ere.
3. Emakumezkoentzako bakarrik diren presondegiak. Hiru daude momentu hauetan: Alcalá de Guadaira –Sevilla-, Brieva –Avila- eta Alcalá Meco

⁸ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: *“Se puede hablar, según esta jurista (Manuela Carmena) de un secuestro de las instituciones penitenciarias de nuestro país. Naturalmente, ello no debería ocurrir en una democracia aunque, paradójicamente, al ser precisamente un país democrático puede que todavía sea más necesario ocultar una realidad carcelaria tan lejana de lo que establece la legislación vigente.”*

⁹ Kataluniako gobernuak, espetxeen kudeaketarako eskuduntza dauka 1986tik.

emakumeak -Madril I-. Aipagarria da horietako bat bera ere ez, hasiera batean, ez zela emakumezkoentzako espetxe bezala eraikia izan (Sevillakoa kartzela militarra izateko eraiki zuten, Avilakoa gizonaen kartzelen kopia bat da eta Alcalakoa gazteen kartzela izateko sortu zuten) (Aguilera, 2009: 138). Katalunian laugarren kartzela bat dago, baina hau Kataluniako konpetentziapean geratzen denez, azterketatik kanpo utzi beharko dut.

Kartzela hauetaraino heldu baino lehen, Espainiar Estatuak ibilbide luzea izan du emakumezkoentzako atxilo guneak sortzen. Almedak (2006) aipatzen duen lehenengo erreferentzia, duela lau mendeko Galera Etxeak (Casas Galera) dira. San Jeronimoko Sor Magdalenak sortu zituen etxe hauek, eta bertan “prostitutak eta eskaleak giltzaperatzen ziren, hau da, gizonaen kontroletik eta etxeko giltzapetik kanpo bizi ziren emakume pobreak.”¹⁰ (Juliano, 2011: 23). Etxe hauek baino lehen, emakumezkoak, gizonaen espazioetan giltzapetzen zituzten, eta gaur egungo arrazoi bera erabiltzen zuten emakumezkoentzako kokapen itxiak ez sortzeko, “emakumezkoak soilik giltzaperatzeko eraikinak eraikitzeak suposatuko lukeen kostu handian ere oinarritzen ziren”¹¹ (Almeda, 2006: 160). Galera etxeak izan ziren beraz, emakumezkoentzako eraiki ziren lehen “espetxeak”. “Bereziki orientazio moralizatzailea zuten eta helburu argiak zituzten, bertan giltzapetuta zeuden emakumeen izate “biziataua” zuzentzea”¹² (*Ibidem*: 160). Hau eta gero, Erruki-etxeak (Casas de Misericordia) sortu zituzten, aurrekoarekin antzekotasun ugari zituztenak.

Garai horietan beraz, emakumezko batek jarrera txarren bat bazuen edo legeren bat urratzen bazuen, etxe hauetan giltzapetzea eta haien jarrera “txarrak” zuzentzea zen zigorra. Berreziketa kokatzen zuten etxe hauen helburu gisa. Gizonaen kasuan berriz, publikoki zigor fisiko bat pairatzea zen punizioa (jipoi baten bidez, edo derrigortutako lanak eginez orokorrean). Kasu honetan, Michel Foucault (1979) pentsalariaren teoriarekin topo egiten dugu, eta berak egiten zuen baieztapenetan (hain zuzen, XVII mende inguruetan zigorra fisikoa zela eta instituzio zigortzaileen historian

¹⁰ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*se encerraban vagabundas, mendigas y prostitutas, es decir mujeres pobres que vivían fuera del control masculino y encierro doméstico.*”

¹¹ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*también se basaba en el gran coste económico que supondría construir edificios para encerrar solamente a mujeres.*”

¹² Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*Tenían una orientación marcadamente moralizadora y unos objetivos claramente dirigidos a corregir la naturaleza “viciada” de las mujeres encerradas en las mismas.*”

galera eta erruki etxeak ez kokatzea) emakumearen bizipenak eta historia falta direla antzeman daiteke.

XVIII. mendearen amaieran, zigorra publikoki eragitetik, sistema “modernoagoetara” pasatzen joan ziren, hain zuzen, pertsona “gaizkilea” espazio itxietan ixtera. Zelatatzea, sailkatzea, lana eta diziplina oinarritzat hartu zituzten espetxe hauetan (Almeda, 2006).

Momentu historiko hau aldaketa momentu gisa irudikatu badute ere espetxeaz jardun diren autoreek (Foucault esaterako) inoiz ez da aipatu izan emakumezkoentzako kartzelak XVIII eta XIX mendeak baino lehenago erabiltzen hasi zirela. Hala ere Foucaulten (1979) teoriak zigorren ezberdintasunak ulertzen laguntzen digu oraindik ere. Adibidez, gizarte tradizionaletan, gaizki jokatzuz gero, zigorra eredugarria zela adierazten digu, honen bidez gizarteari zer gertatu ziezaiokeen erakutsi nahi zitzaion. Zigorrak ere era askotakoak izan zitezkeen. Gizarte modernoan aldiz, zigorrak publikorik gabe ezartzen dira, (zigortzaileen anonimotasunarekin gainera: kartzelako zuzendariak eta langileak) eta zigorren bateratasuna ematen da kartzela eta tortura elkartzuz. Dena dela, zigorra baino lehen burutzen diren epaiketa gehienak publikoak izaten dira, eta zenbaitzuk, komunikabideengatik jarraituak eta zabalduak. Batzuetan ere, izaera “eredugile” hori antzeman daiteke komunikabideek egiten duten jarraipen mediatikoan. Lege antiterroristapean buruturiko atxiloteta guztiak ere publikoak dira, goizeko ordu txikietan, etxetik eskuburdinekin eta batzuetan aurpegia estalirik eramaten dituztela erakusten digute komunikabide guztiek. Honetaz gain, pertsona guzti hauen epaiketak komunikatiboki jarraipen berezia izaten dute.

2.1.2. Delitua.

Aurreko mendeetatik gaurdainoko kartzela egitura fisikoaz aritu naiz, eta honela modu bateko edo besteko zigorrari erantzun diola ikusi daiteke. Baina zigorraren aurretik delitu baten “egikaritzea” edo hori egin izanaren salaketak egon behar du. Delituaren nolako ikuspegia daukagu?

Delituaren ikuskeran, genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da:

“Delituaren ideia gizonezkoei ezartzeko pentsatua izan da -pertsona autonomo gisa onartuz, haien erabaki eta ekintzen jabe onartuz- eta ez emakumezkoei ezartzeko. Askotan, haien buruturiko delituak beste batzuen eraginez egindakoak bezala ikusi izan dira, “biktima” bezala aurkeztuz, “engainaturiko” emakume bezala aurkeztuz.

*Horrela, delitua haien ahuldadearen isla bezala erabilia izan da*¹³ (Arbelaitz, et alt., 2011: 62).

Honela, emakumearen agentzia ukatu egin da. Kontraesankorra ematen badu ere, emakumeak biktimizatzeak ez du esan nahi zigorrik ez dutenik jasotzen, are gehiago, zigor gogorragoak pairatu behar izaten dituzte delitu beragatik. Hain zuzen, emakume delitugile direlako, ez delitugile soilik. Lege penalak eta lege sozialak puskatu dituzten emakumeak dira, eta dirudienez, gizarteak, ez ditu hain erraz barkatzen urraketa hauek (Ibidem: 63).

Estibaliz de Miguelek esaten duen moduan:

*“Emakume delitugileen kasua paradigmaticoa da, lege idatziak zein bere generorako espero diren arau sozialak hautsi baitituzte. Kasualitateetik haratago, kriminologia tradizional positibistak, izaki beldurgarri moduan sailkatu zituen, ez-emakumeak, feminitatearen ezaugarri berezkoak ez zeuzkatelako eta genero mandatutik aldentzen zirelako.”*¹⁴ (2010: 1)

Historian atzera egiten, emakumearen delitua bekatu bezala kontsideratua izan zen. Jaungoikoari eragiten zitzaion ofentsa moduan ikusten zen urraketa, eta honi buelta emateko, aurretiaz aipatutako berreziketa oinarritzat zuten. Honetan lanean erlijio taldeak zeuden, batez ere mojak. Gerora, urraketa egikaritzea naturalizazio batez azaltzen saiatu ziren, hau da, emakumearen biologia aldakorrari egozten zitzaion delitua. Azkenik, gaur egungo egoerarekin aurkitzen gara, non delitua kanpoko parametroen arabera neurtzen den. Kartzela, irtenbide bezala kontsideratzen da, “kartzelaren helburua (...), batez ere, gizarteari arriskuak saihestea da, arriskua suposatzen duten horiek aldentuz eta aldi berean delitugileak birgizarteratzeko lan eta gizarte ikaskuntzak eskaintzea”¹⁵ (Juliano, 2011: 27). Ibilbide guzti honek antolakuntza erlijioso eta feminizatu batetik, antolakuntza zibil eta maskulinizatu batera pasatzea ahalbidetu du (Ibidem: 33).

¹³ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*La idea de delito ha sido pensada para ser aplicada a los hombres –considerados ellos autónomos, y por lo tanto, responsables de sus decisiones y de sus actos- y no a las mujeres. Los delitos cometidos por ellas muchas veces han sido vistos como actos inducidos por otros, con lo que han sido presentadas como “víctimas”, mujeres “engañadas”, y el delito en cuestión ha sido utilizado como testimonio de su debilidad.*”

¹⁴ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “*Caso paradigmático es el de las mujeres delincuentes, quienes han violado las leyes escritas como las normas sociales esperadas para su género. No en vano, la criminología tradicional positivista las calificaba como seres monstruosos, no-mujeres, ya que no poseían los rasgos propios de la feminidad y se desviaban del mandato de género.*”

¹⁵ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “*el objetivo de la cárcel (...) principalmente evitar riesgos a la sociedad, separando a aquellos que constituyen un peligro, y complementariamente reinsertar a los delincuentes mediante el aprendizaje de habilidades laborales y sociales.*”

Gaur egunean, Dolores Julianok dio (2011) delitu txikiarenganako politika *zero tolerantzia* bihurtu dela. Honek eragin du, emakume asko kartzelara sartzea, haien delituak, ehuneko handi batean drogen trafikoa eta salerosketarekin zerikusia duena hau da, osasun publikoaren aurkako delitu bezala kontsideratuak direnak, (% 47, 2005ean Marta Cruells eta Noelia Igaredak koordinatu zuten ikerketaren datuen arabera) geroz eta gogorrago zigortzea, eta beraz, kartzelan egonaldi luzeak egin behar izatea delitu “txiki” batengatik (Aguilera, 2009).

Honela sailkatzen du Margarita Aguilera abokatu eta Emakume Presoekin Kolaboratzen duen Elkarteko (ACOPE, *Asociación de Colaboradores con las mujeres Presas*)¹⁶ kideak delituaz egiten den irakurketa hirukoitzak suposatzen duen zigor hirukoitza:

Zigor soziala

Emakumeak, delitu bat egiten duenean, gizarteak esleitutako rola apurtzen duelako zigortua izaten dela uste du Aguilera (2009). Alde batetik delituaren ekintzagatik berarengatik (emakumeari dagokion rol pasiboa apurtzen duelako), baina bestetik, kartzelara sartzeko garaian familiaren zaintzarekin jarraitu ezin duelako eta beraz, berari egotzitako zaintzaile lana errotik utzi eta mantendu ezin duelako. Hau da, delitu bat egikaritzea emakumearekin bateraezina dela pentsatzera garamatza gizarte patriarkalak, eta honelako ekintza bat burutu duen emakumea “anti-emakume” bezala ikustera bultzatu gaitu (Juliano, 2011: 131). Ikuspegi honek gainera, “estigmatizazio bikoitz batera daramatza emakumeak, alde batetik delitugile bezala ikusiak direlako, eta bestetik emakume delitugile bezala ere ikusten direlako” (Arbelaitz, et al., 2011: 64).

Honela definitzen du estigma Erving Goffmanek:

“Estigma, onarpen sozial osorako gaitasun gabetzea da. Aurkitzen duten estigma nagusia, emakume izan eta bazterketa sozial egoeran bizitzeak sakratutzat hartzen diren rolaekin haustea dakarrela da. Hau da, unibertso kolektiboan ez da barkatzen emakumeek ama, emazte, zein alaba gisa huts egitea. Modu bikoitzean zigortzen da emakumeak egoera honetara iristea”¹⁷ (Goffman, 1998: 7).

¹⁶ ACOPE da Espainiar estatuan emakume presoekin lan egiten duen elkarte gutxietako bat. *Dona I Presó* kataluniar elkarteak ere lan berezitua egiten du emakumeekin. Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan, ez dugu emakumeekin soilik lan egiten duen antolakunderik aurkitzen, bai ordea, emakumea modu espezifikoa tratatzen dituen antolakunde orokorrak (Arbelaitz, et al. 2011, 36).

¹⁷ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*Estigma como la inhabilitación para una plena aceptación social. Y el principal estigma con que se encuentran es que ser mujer y vivir en situación de exclusión social significa romper con los roles que, de alguna forma, están sacralizados, es decir, en el universo colectivo no se perdona que las mujeres fallen en ser madres, esposas e hijas. Se penaliza doblemente el que las mujeres lleguen a esta situación*”.

Estigma hauek funtzionarioen lan egiteko moduan eragina dutela adierazten du De Miguelek (2008), alde batetik, emakumeei zaintza lanetan egin duten “hutsa” behin eta berriz errepikatzen dietelako, eta ideia honen azpimarratzeak emakumea infantilizatzen daramatzalako. Argi eta garbi ikusten da hau Andaluziako Arartekoak egindako lanean biltzen duen funtzionario baten esaldian:

“Bizitza emozionala oso garrantzitsua da emakumeentzat, afektibitatearen behar handiagoa daukate, eta haien artean, teknikoekin ... erakusten dute. Gainera emakume bezala biologiagatik markatuago daude. Besteekiko tratuan errespetu gutxiago daukate gizonezkoek baino, hain zuzen emozionalagoak direlako. Horregatik emakume presoek abildade sozialak erakustea oso garrantzitsua da, kulturarik gabeko emakumeak dira, oihuka hitz egiten dute (Defensor del pueblo Andalucía, 2006: 123)”¹⁸.

Zigor Pertsonala

Emakume presoak lotura familiarrekiko apurketa handi bat sufritu behar izaten du, kartzela aldia baino lehen unitate familiarren mantentzaile bakarrak beraiek baitziren, eta haien espetxeratzearekin familiaren batasuna apurtu egiten delako (Aguilera, 2009: 135). Hala ere egoera ez da gehienetan errepikatzen kartzelaratua gizonezkoa (aita) denean, emakumeak harreman afektibo hauek mantentzen saiatzen direlako kostatuta.

Banaketa hau oso traumatikoa izaten da ama-alaba gehienentzako, eta kanpoan haien identitatea neurri handi batean haien zaintzaile paperaren inguruan eraiki duten horientzako haien emakume identitatean apurketa handia sufritu dute (Aguilera, 2009). Haurren banaketa edo galera honek, auto zigortze prozesu batean murgilduko ditu emakume presoak. Emakume preso ohiekin egindako ikerketan, Arbelaitz eta beste hainbat ikerlarik, elkarrizketa ugari egin zituzten, eta egoera honen inguruan jasotako testigantzek ondo erakusten dute banaketak eragindako frustrazioa eta mina. Zazpi seme alaben ama den emakume ijitoak banaketa “semea amarengatik deserrotzea bezala dela”¹⁹ adierazten du. Haren seme-alabak berarekin batera mantendu ahal izan zituen preso batek bestalde, kartzelan ikusitako egoera deskribatu egiten du:

¹⁸ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*La vida emocional es muy importante para las internas, necesitan más de la afectividad, y la expresan entre ellas, con los técnicos... además como mujeres están más marcadas por la biología. Son menos respetuosas que los hombres en su trato con los demás, precisamente por ser más emocionales. Por ellos es muy importante enseñar habilidades sociales a las internas, son mujeres sin ninguna cultura, hablan a gritos*”.

¹⁹ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*Es como desarraigar a tu hijo de la madre*”.

“Baina kartzelin txarrik... ba sartzi. Eta beti dakazula buru pentsaten: noiz urtengo zu, noiz urtengo zu... Horrexegatik pentsatu neban “Que vá, hartu bihar dot eun bakotxe, eun bakotxe, eun bakotxe, eun bakotxe...” Bestela zaz amargata. Ta be bai, pentsatzen dot suerti nebanela, nebalako gauzak atata, familixin apoiua be bai... Ze beste situaziño batzuk eskasak di be bai. Beste batzuk, ene! Nik entzun ditut gauzak; Diputaziñok kendu dotsazela umik, bestik Diputaziñok reformatoixura biali ta eskapa in dizela ta... zu bakizu hori barrun zelako kezki dan? Zeu za barrun, ezin zu ixte in, ume bat edo bi kenduitxue ta ondio lekutatik eskapando dabiz; bestiak, nobixo eskas bat dakarrelako edo hau ez dabela topaten eta...” (Arbelaitz, et alt., 2011: 148)

Batez ere haurrengatik banatu behar izateak (askotan haien familia bezala identifikatzen dituzten pertsona bakarrak direla kontuan hartuta), egoera gogorretara eta bere burua zigortzera daramatza. Haurren banaketan “eguneroko estres, erruduntasun sentimendu, kezka eta porrot sentimenduen iturri bilakatzen da (emakumezkoen gehiengoak haien haurrekiko arduradun bezala sentitu eta ekiten duten arren)”²⁰ (Cruells et alt., 2005: 41).

Presondegiko zigorra

Emakumeen kondenak betetzeko baldintzak gizonezkoarenak baina askoz gogorragoak izango dira (Aguilera, 2009: 137-144).

Egunerokotasunean zein antolaketan, emakumeen kopuru murriztagoa aitzakiatzat hartuta, murrizketa edo debeku ugari pairatzen dituzte emakume presoek. Horien artean, 2008. urtean Espainiar Estatuko Emakumearen Ministerioak Barne Ministerioarekin elkarlanean egindako programan, hiru arlo azpimarratzen ditu: Dispersioa eta hirugarren gradua lortzeko zailtasunak, delitu kopuru txikiagoa egin arren emakumeek duten kondena urte kopuru altuagoa eta lana lortzeko zailtasunak (Ministerio del Interior, 2008).

Dispersioa arazo larria da presondegri sisteman: Emakume presoen %55,91ak soilik bete dezake kondena bere autonomia erkidegoko kartzela batean Espainiar estatuan (Ministerio del Interior, 2008: 21). Honek beraz, eragin handia izaten du emakume hauen familiarreko eta lagun harremanak mantentzeko garaietan. Frantziako Asanblada Nazionaleko berdintasun lan taldeak osatutako txostenean ere dispersioa arazo larritzat jotzen dute, baina ez soilik geografikoa. Presondegri batzuetan dagoen emakume kopuru txikiak sortzen duen dispersioa ere aipatzen dute. 2009an egindako txostenean, zenbait

²⁰ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “se convierte en una fuente de estrés diario, sentimientos de culpa, preocupación y fracaso (a pesar de que la mayoría de las mujeres continúan sintiéndose y actuando con responsabilidad hacia sus hijos)”

kartzeletan emakume bat (Grenoble, Corbel, Maxeville ...) edo bi (Lyon, Quièvrechain ...) daudela ikus daiteke (Assemblée Nationale, 2009). Oso kartzela gutxi daude emakumezkoentzako soilik direnak; Espainiar estatuan Brieva (Avilan), Alcalá de Guadaira (Sevilla) eta Madrid I daude. Frantses estatuan legalki emakumeak eta gizonezkoak elkartzeko erabateko debekua dagoenez, emakumezkoentzako soilik diren moduluak aipatzen dituzte txostenean (194 espetxetatik 63tan soilik aurkitu daitezkeenak), baina ez dut aurkitu emakumezkoak soilik dituen espetxe frantsesik (Assemblée Nationale, 2009: 13). Emakumeak onartzen dituzten kartzela gutxiago egoteak ere beste mota bateko eragozpena dakar: hirugarren gradua lortzeko zailtasunak. Hauek kudeatu ahalko dituen espetxe kopuru gutxiagotara heltzen dira emakumeak, eta beraz, geografikoki haien eremuan kokatuta dagoen kartzelan geratu behar izaten dute baina hirugarren gradurako aukerarik gabe (Aguilera, 2009: 141-142). Emakumezkoentzako kartzela gutxiago egoteak gainera beste mota bateko arazoa ekartzen du ere: delitu desberdinak dituzten emakumeak elkarrekin kartzela eta modulu berdinetan egotea, hain zuzen ere. Honela, presondegiako sistemaren oinarria den kartzelako tratamendurako premisa ez da betetzen, non perfil sozial eta kriminologikoaren arabera sailkatzea aldarrikatzen den (Ibidem: 137)

Bigarren gabezia edo arazoa haien kondenen urte kopuruarekin dago lotuta. Paradoxa bat ematen da kasu honetan, orokorrean emakumeak duten delinkuentzia perfila maila baxu-ertainekoa kontsideratzen bada ere, 3 eta 20 urte arteko kondenak gailentzen direlako. Hain zuzen, 3 eta 8 urte arteko kondenak dituzten emakume presoak %43a dira eta 15-20 urte arteko kondenadunak %21 Espainiako kartzeletan (Ministerio del Interior, 2008: 23). Emakumearen delitu perfila antzekoa da Espainian, Frantzian eta mundu mailan, osasun publikoaren kontrako delituengatik aurkitzen dira kartzelan gehienak, hau da, droga salerosketagatik (Almeda, 2003: 17).

Azkeneko arazoa lan mundurako sarrera edo honetarako prestakuntza jasotzeko aukera eskasa eta batzuetan eza da. Kartzela barruan lan egiteko aukerei dagokienez, askotan emakumeak gizonezkoek nahi ez dituzten lanak hartzera derrigortuak daude. Gizonezkoek lan hauei uko egiten diete gaizkien ordainduak edo gogorrenak direlako (Aguilera, 2009: 140). Batez ere kartzelari berari begira egindako zerbitzuetan egiten dute lan emakume presoek, %74'7ak, eta honek esan nahi du, gerora kartzelatik kanpo daudenean, lan merkatuan txertatzeko aukera gutxiago izango dituztela ez baitute lan munduan prestatzeko aukerarik izan (Ministerio del Interior, 2008: 27). Lan egiteko

aukera eskasez gain, formakuntza tailer gutxiagotan parte hartzeko aukera izaten dute ere, eta dutenean, hauek genero rolaekin erabat lotutako tailerrak izaten dira: josketa, pelukeria, sukaldea ... (Aguilera, 2009: 141). Beraz, kartzelan emakumeek burutu ahal dituzten lan eta ikasketak (tailerren bidez eskaintzen direnak) emakumezkoaren rola birproduzitzeko, eta emakume presoak berrezteko erabiltzen dituzte. Hasieran aipatutako anti-emakumea dagokion tokian jartzeko erabiltzen dute ere lan-mundua kartzelan.

2.1.3. Emakume espetxeratuaren perfilak

“Zein da kartzelan dagoen emakumeen gehiengoa? Delituak egin dituzten emakumeak dira, baina badira baita ere, haurrak zirenean sexualki eta fisikoki abusatu dituzten emakumeak, eta kasu askotan, helduak zirenean ere bai; toxikomanoak diren emakumeak, familiaren sostengu gutxi edo ezer ez zeukaten emakumeak, baliabiderik gabeko emakumeak, etorkinak eta ijitoak. Estigmatizazioa, diskriminazioa eta aurreiritziak jasan behar dituztenak, arazoak dituzten emakumeak eta zailtasunetan dauden emakumeak... Hauek dira gure kartzelak betetzen dituzten emakumeak.”²¹ (Cruells et al., 2005: 3)

Jada ikusezinak ziren emakumeek betetzen dituzte kartzelak, eta agian horregatik ez dugu ikusten emakume espetxeen egoera nolakoa den. Edo agian, ez dugu begiratu nahi, hain zuzen sistemaren “albo-kalteak” espetxera bidaltzen ditugula ohartuko garelako (Ibidem: 3). Eduardo Galeanok dio: “Justizia oinutsik doanaren oinak ziztatzten dituen sugea da”.

Kartzelaratutako emakumeen gehiengoak, aurretiaz, bazterketa moduren bat pairatu behar izan zuen. Faktore guztien artean, hauek nabarmentzen dira: Etnizitate eta atzerriartasuna; drogamenpekotasuna; guraso-bakartasuna eta etxeko indarkeria (Cruells et al.: 2005, 102). Faktore hauek espetxeratutako emakume askoren bizi historietan topatu izanak, ez du esan nahi gizarte-bazterkeria eta horrekin batera doan pobrezia pairatzeagatik zuzenean kartzelara joango denik emakumea. Hain zuzen, Dolores Julianok azpimarratzen duen moduan, prekarietatea eta zaintza lanak haien bizkar gainean pairatzen dituzte emakume askok (proportzionalki gizonek baino gehiago), eta honek espetxeak emakumez beteta egotea ekarri beharko luke, pobreenak haiek direlako. Baina kontrakoa gertatzen da, proportzioa (ikusi dugun bezala % 7

²¹ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “¿Quiénes son la inmensa mayoría de mujeres en prisión? Son mujeres que han cometido delitos, pero también son mujeres que han sido abusadas física y sexualmente cuando eran niñas y, en muchos casos, cuando eran adultas; mujeres que son toxicómanas, mujeres que tenían poco o ningún apoyo familiar, mujeres sin recursos, inmigrantes y gitanas, que sufren una grave estigmatización, prejuicios y discriminación, mujeres con problemas, y mujeres en dificultades... Esas son las mujeres que llenan nuestras prisiones.”

ingurukoa) askoz baxuagoa da. Beraz, Julianoren ustetan, galderak ez luke izan beharko: Zergatik daude hainbeste emakume kartzelan?, baizik eta: Zergatik daude hain emakume gutxi kartzelan? (Juliano, 2011: 59).

Emakumeek, deliturik ez egiteko estrategiak jartzen dituzte martxan, hala nola, ikasketen bidez haien trebakuntza igotzea, sare sozial eta familiarak osatzea, batez ere zaintza lanetarako, bere lan ahalmen guztia erabiltzea (lan prekario ugari bata bestearen gainean pilatuz), herrialde aberatsetara migratzea, laguntza instituzionalak eskuratzea, ezkontza eta prostituzioa (Ibidem: 61-69).

Hala ere, emakume batzuek kartzelan amaitzen dute, eta gorago aipatu dugun moduan, emakume pobreek gehiengo handi bat osatzen dute kartzelan. Kolektibo honekin batera (edo honen barruan) beste kolektibo batzuk azaltzen zaizkigu: emakume etorkinena, emakume ijitoena, drogamenpekotasuna duten emakumeena eta euskal preso politiko diren emakumeena. Emakume gehitu diot kolektibo bakoitzaren izendapenari, erreduantzia erori baino, kolektibo hauek pairatzen dituzten zapalketa baturak nolabait irudikatzeko. Hasieran aipatu dudun moduan, emakume eta delitugile izateagatik zigortzen dituzte preso dauden pertsona hauek guztiak. Baina kolektibo hauetako kideei gainera, haien jatorriaren edo egoera pertsonalaren zapalketa eransten zaie. Honela, zapalketa hirukoitzez, laukoitzez... azken finean zapalketa anizkoitzez hitz egin behar dugu. Emakume hauek beraz, zapalduen azpian, zapalduago dauden kolektibo bezala ulertu behar ditugu. Eta biktima paperean jarri baino, haien egoeren jabe diren, eta horrekin identitate anitzak osatzen dituzten pertsona moduan ulertu behar direla argi dago, baina ikusgarritasunean ere eragiten du, eta emakume kartzelez modu orokorrean hitz egiterakoan, albo batean utzi ditzakegu emakume guzti hauen bizipenak. Horregatik, kolektibo hauetako batean zentratzea erabaki dut lan honetan, haien bizipen pertsonalak eta kolektiboak ulertu eta ikustarazteko.

2.2. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa eta espetxea

2.2.1. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa. Definizioa

Euskal Herrian, gatazka politiko bat egon da azken hamarkada luze hauetan. Gaiaren inguruan iritzi kontrajarri ugari daude, eta ez da nire intentzioa hemen hauek guztiak aztertzea. Gatazka guzti honek izan dituen “albo-kalteetako” batzuk aztertzen

ahaleginduko naiz lan honen bidez eta hauen aurrean egondako bizipen, mugimendu edo gertakariak biltzen.

Kartzela pairatu behar izan duten euskal herritar gehienak Euskal Preso Politikoen Kolektiboan (EPPK) bildu izan dira. Lan honetan parte hartzen duten preso ohi guztiak EPPKko kideak izan dira. Bikotea barruan duten edo izan duten horien bikoteak ere EPPKko kideak dira (edo izan dira). Kolektiboak honela definitzen du bere burua:

“Jatorri eta izaera politikoa dugun heinean, kartzelatuak izan garen euskal herritarrok EPPK osatzen dugu, Euskal Herriaren alde egiten segitzeko asmoz. Kartzela esparrutik eta molde bateratuaz eragiteko tresna dugu, izan ere, kolektiboa. Gatazka politikoarekiko loturari irmoki eutsi eta gure parte-hartzea prozesu politikoan bideratzeko tresna modukoa, alegia. Hori besterik ez baita EPPK”.
(Auzolana, 2010)

Gatazka politiko baten oinarrian kokatzen dute haien egoera kolektiboko kideek, nazio baten (Euskal Herriaren) ukazioan hain zuzen. Frantziar eta Espainiar estatuek ukatzen duten autodeterminaziorako edo independentziarako eskubidearen alde bidea egiteagatik egongo lirateke kartzelan, hainbat akusaziopean: erakunde armatuko kide izateagatik; ezker abertzaleko kide izateagatik; edo azken urteetan “dena ETA da” Baltasar Garzon epaileak hasitako lelotik jarraiki, herri eta gizarte mugimendu ezberdinetako kide izateagatik.

Historikoki 1978an kokatu ahalko genuke Kolektibo honen hasiera (Ibidem), honen aurretik haien izaera politikoa aldarrikatzen zuten presoak bazeuden arren, 1977ko Abenduan amaitu zen amnistiarekin atera zituzten kalera, eta beraz 1978an atxilotutako lehenengo Euskal Herritarrarekin osatzen hasten da EPPK.

EPPKren izaera ezagutzeko aukera izan dugu hemen, baina garrantzitsua iruditzen zait bere sorrera eta ibilbidea historikoki eta politikoki apur bat kokatzea. Horretarako, jarraian, euskal nazionalismoak izan duen ibilbidearen laburpen txiki bat egiten ahaleginduko naiz, izan duen ibilbideak, “euskal gatazka” bera kokatzen lagundu ahal digulako, eta bertan, EPPK hobeto kokatu.

2.2.2. Emakumea euskal nazionalismoan

Hasteko, euskal nazionalismoaren sorreratzat kontsideratzen den Sabino Arana eta bere alderdiaz hitz egiten hasiko naiz, jarraian, korrante ezkertiaragoarekin jaio zen ETA erakunde politiko eta militarra aztertuko dut. Amaitzeko Ezker Abertzalea bera

kokatuko dut azalpen honetan, hemen kokatzen baitira EPPK osatzen duten zenbait preso. Hiru puntu hauetan emakumeak jokatu duen papera aztertzen ahaleginduko naiz.

Sabino Arana eta Eusko Alderdi Jeltzalea

“Euskal nazionalismoak, emakume euskaldunaren irudi bat sortu du, eta honek eragin handia izan du historian”²² (Diez eta Bullen, 2010: 3). Argi dago, euskal emakumeaz hitz egiten dugunean, irudi konkretu bat etortzen zaigula burura: baserriko etxeoandre langilearena. Iruditegi kolektiboan errota dagoen sinbolo hau ordea, euskal nazionalismoak sortutako eta bultzatutako figura bat izan da, Sabino Aranaren lanetan topatzen dugularik honen aldarrikapena (Del Valle, 1985: 228). Honela definitzen du hain zuzen Aranak emakumea:

*“...El hombre debe considerar a la mujer, 1 como hermano menor que necesita de su protección para vivir...; 2 como hija suya, pues madre de la mujer es el hombre...; 3 como seres semejantes a él y a Dios...; 4 como compañera que le ayude a sobrellevar las penas de este mundo, a servir a Dios y a educar los hijos para Él; 5 como madre de sus propios hijos y persona entre todas las del mundo que más ama a esos pedazos de sus entrañas.”*²³ (Ibidem: 228)

Sabino Aranak bultzatutako Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) alderdian, emakumearen iruditegi honek indar handia izango du, eta erlijio katolikoaren influentziarekin batera emakumearen paper hau bultzatuko dute; emakumearen barnean amaren figura gailenduko dute, indartsua eta minen sendagilea, antolatzailea ere badena eta haurren fedea, arau tradizionalak eta moralak babestuko dituena.

Alderdiaren inguruan, 1922an, sortzen den Emakume Abertzale Batza (EAB) elkarteak EAJk duen emakumearen irudia islatuko du. EABk EAJrekiko izango duen erlazioa “menpekotasun onartuarena” izango da (Ibidem: 243), eta espazioen banaketan ere irudikatuko da: gizona politikaren esparrua bereganatuko dute, eta emakumeek esparru pribatua, berehalakotasuna eskatzen duten gauzen antolatzaileak izango dira, azpiegituren hornikuntzan arituko direnak.

EABk hala ere, “aldaketa garrantzitsua ekarri zuen genero harremanetan, ekintza politikoarekiko emakumeen bazterketa hautsi zutelako eta emakumezkoen kolektiboari bidea ireki ziolako eremu publikoan” (Stürtze et al., 2002: 65). Honek gainera, zigor

²² Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*el nacionalismo vasco ha acuñado una imagen de mujer vasca que ha tenido una gran influencia histórica*”.

²³ Esaldi hau bere hizkuntza originalean uztea erabaki dut. Testu historikoa izanik, hizkuntzaren beraren aukeraketa eta erabilerak zer esana du.

gogorak ekarri zizkien gerra zibilaren ondorengo urteetan. Kartzela, eta batzuek, heriotza-zigorak jasan behar izan zituzten haien jarduera politikoa zela eta.

Euskadi Ta Askatasuna

Talde honek, hasieratik ez konfesionaltzat jo zuen bere burua, eta honek, emakumearen definizioan mesede egin zezakeen, hain zuzen, zuen kutsu moralista hori kentzen zitzaiolako gaineratik, baina emakumearen inguruan egiten duten lehen erreferentzian aldaketarik eman ez dela antzeman daiteke (Del Valle, 1985: 234). Honakoa dio hain zuzen *Moral de resistencia nacional* testuan:

“Frente al concepto tan generalizado de la mujer como promesa placentera, frente a la mentalidad de Don Juan, frente al concepto de dama (cosa bella e idealizada, pero despersonalizada), opone el vasco su concepción trascendente de la mujer como madre y como etxekoandre: es decir como elemento fundamentalmente humano y de primera importancia en la organización social”²⁴ (Ibidem: 234)

Emakumearen inguruko diskurtsoaren jarraipena ematen dela ikusi daitekeen arren, pixkanaka beste ikuspegi bat bultzatzen duten ideiak sartzen joango dira, adibidez, *Carta a los intelectuales vascos* delakoan esaten dutena:

“En cuanto a la posición de la mujer en la sociedad vasca, consideramos que debe gozar de idénticos derechos y posibilidades que el hombre en todos los sectores de la vida política, social, económica y cultural. No obstante conscientes de la especial función que le incumbe en el hogar como esposa y madre, deberá la sociedad prestar la debida atención y facilitar su cumplimiento. Una de las medidas a emprender sería la concesión de un salario a la mujer con hijos en tanto que legítima compensación por su trabajo y educación de los futuros ciudadanos vascos y su consiguiente aportación a la formación de la sociedad”²⁵ (Ibidem: 235)

Emakumea etxeko-andre bezala duen garrantzia azpimarratzeak eztabaida sortu zuela dirudi, kartaren berrargitarapenean esaldia ez baitzen berriz azaldu. ETAren sorreran ez zuen emakume batek ere parte hartu, baina pixkanaka erakundean parte hartzen hasi ziren, 60. Hamarkadan batez ere egiturazko lanak egiten, eta 80. Hamarkadan ekintzarik ikusgarrienetan parte hartzen hasi ziren, hain zuzen, ekintza armatuetan (Alcedo, 1997: 31). Hala ere, burutzen dituzten lehen ekintzetan, une oro behatuak eta aztertuak izatearen sentsazioa dutela azpimarratu izan dute emakume militanteek. Beraien aldetik ere, “balio dutela” erakusteko gehiago arriskatzen dira, eta ekintzetan hotzagoak eta gogorragoak izatera jotzen dute. Hala ere, emakume guztiak bat datoz, gizonezkoen

²⁴ Esaldi hau bere hizkuntza originalean uztea erabaki dut. Testu historikoa izanik, hizkuntzaren beraren aukeraketa eta erabilerak zer esana du.

²⁵ *Ibidem*.

eredua soilik jarraitzeak alienaziora eramán ahal dietela eta honekin nahikoa ez dela esatean, “femeninotasun kontzeptu berri bat sortu behar da” (Alcedo, 1997: 35).

Emakumeek erakunde armatuan egiten duten parte hartzearen arrazoiak azaltzerakoan, Euskal Herriaren egoerari erreferentzia egiteaz gain eta beste maila bateko konpromisoa nahi dutela adierazteaz gain, (hau gizonezkoek ere adierazten dute), genero kontzeptua berreraikitzeke nahi azaltzen dute. Militantziaren bidez, generoen arteko harremanak aldatu nahi dituztela azaldu zioten Miren Alcedori (2007: 32).

Emakumeek erakundean parte hartzen dutela ezaguna bada ere, ETAreñ espazio sinbolikoak espazio maskulinoa izaten jarraitzen du. “Idatzietan, karteletan, pintadetan edo pegatinetan ETAreñ irudia indarraren eta erresistentziaren sinboloz osatzen da, eta irudiak maskulinoa izaten jarraitzen du: gizon ukabil bat, gizonezko baten besoa metraileta bat heltzen duela” (Del Valle, 1985: 244). Espazioen banaketa ematen jarraitzen da (modu sinbolikoan beti) eta adibidez, emakumezkoa, zaintzarekin zerikusia duten erakundeetan irudikatzen da gehiago, adibidez, presoen aldeko elkarteetan.

Presoen sostengurako elkarteak. Etxerat

Emakume hauek, askotan ama hauek, egiten duten lana politikoa dela aldarrikatzen dute, presoen egoerak salatuz eta hobekuntzak exijituz, presoen egoera gizarteratuz... Baina argi dute, hau guztia antolatzean emakumeak gehiengo izatea zergatik den:

“Emakumeak joera nabarmena du, Euskal Herrian beste gizarte batzuetan bezala, asistentzia-lana, errepresioak erakartzen duen zama bere gain jartzeko. Zerikusi handirik badu, noski, emakumearen jarduera pribatuak, pertsonalak. Lehenetasuna izateak arlo horietan bizitzaren beste arloen aurrean –lana, arlo profesionala, publikoa...-, gizonezkoarekin gertatzen denaren kontra. Kontua da emakumeen inplikazio pertsonal hori ez dela asistentzia lanean soilik geratzen, emankortasunak mila aurpegi ditu.” (Erasun, 2001: 267)

Haien amatasunaz kontziente izanik ere, egoera horren aurrean martxan jarri nahi izateak elkartu dituela adierazten dute, eta beste emakumeekin eta haiek “ulertzen” dituztenekin elkartzeak mesede egiten diela uste dute (Ibidem: 270). Arlo pribatua eta publikoa uztartzen dutela, eta pribatua maila publikoan jartzen dutela aldarrikatzen dute.

Ezker Abertzalea eta Prozesu Feminista

Frankismo ondorengo urteak, urte mugituak izango dira politika arloan eta alderdi politiko eta herri mugimendu berri ugariaren sorrera ekarriko dute. Horien artean

Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS) eta beranduago Herritar Batasuna alderdi politikoa eta Jarrai gazte antolakundea sortzen dira. Honek eta beste hainbat herritar erakundek Ezker Abertzalea bezala ezaguna den mugimendu politiko eta soziala osatuko dute. Horren barnean, 1978an KAS-Emakumeak sortzen da. KASen barnean eta ezker abertzalean orokorrean zeuden emakumeak biltzen zituen antolakundea zen hau, eta bertan “zapalketa hirukoitzaren” ideia lantzen hasi ziren, hau da, euskal emakumeak hiru jazarpen pairatzen dituela: jazarpen Nazionala (Espainia eta Frantziaren partez), Genero jazarpena (Gizonen partez) eta Klase jazarpena (Burgesiaren partez) (Vara, 2011: 50).

Ezker Abertzalearen barruan duela 15 urte inguru, Prozesu Feminista²⁶ abiatuko dute. Ainhoa Etxaide, LABko idazkariak honela azaltzen ditu prozesuaren nondik norakoak:

“Prozesu feminista bi zutaberen gainean jarri genuen. Batetik, ezker abertzalearen proiektu politikoak euskal herritar ororen alternatiba izan behar duela argi genuen, eta hortaz, emakumearen errealitateari irtenbidea eskaini behar dion proiektua da eraiki beharrekoa, hau da, feminista. Bigarren zutabea ordea, ezker abertzalea bera benetako eragile feminista bilakatzeari oinarritzen da.”²⁷ (Gara egunkaria, 2007ko Ekainaren 4ean)

Lehenik eta behin diagnostiko bat egin zuten, eta bertan ondorio ezberdinak atera zituzten. Alde batetik, parte hartzeari dagokionez, emakumezkoen presentzia txikiagoa zela ikusi ahal izan zuten, adibidez, adin tarte batetik aurrera parte hartzea erabat desagertzen zela ikusi zuten ere, eta hau amatasunarekin, guraso helduen zaintzarekin edota lan munduan emakumeek bereziki bizi duten esplotazioarekin zerikusia zuela ikusi zuten. Antolakunde ezberdinetan ere, diskriminazio egoerak ematen zirela ikusi ahal izan zuten. Honela, egoerari aurre egiteko plan bat diseinatu zuten, eta hau, ezker abertzalean eta baita beste hainbat antolakundetan jarri zen martxan, hala nola, *LABen, Batasunan, Segin, ... Ikasle Abertzaleak* antolakundeak adibidez, bere azken kongresuan (2012) prozesu feminista abiatuko duela erabaki du²⁸.

Prozesu feminista hau ere Euskal Preso Politikoen Kolektiboan eman dela azaltzen du Laura Varak (2011: 79). Horretarako idatzi desberdinak hartu ditu kontuan, eta batez ere

²⁶ “Prozesu Feminista” Ezker Abertzaleak berak egingo den lan feminista guztia izendatzeko hartzen duen izena da. Horrela deituko dute barne mailan egingo den eztabaida eta lanketa guztia.

²⁷ <http://gara.naiz.info/paperezkoa/20070604/21917/eu/Emakumeak/aktibo/bat/izan/behar/dugu/eraldaketa/p/rozesu/honetan> [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 12ean]

²⁸ www.ikasleabertzaleak.org webgunean jasotako informazioa. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 14ean]

2005eko Emakumeen Mundu Martxarako idatzi mamitsua hartzen du aintzat. Bertan, besteak beste honakoa diote:

“Herri bezala hanka azpian hartzen gaituzten estatu ukatzaileen aurka egiten dugu borroka, eta horregatik gaituzte espetxeratu. Estatuok ezarri eta gurea ez den eredu politiko-soziala eraldatu nahi dugulako egiten dugu borroka. Herri, nazio eta gizarte berri bat eraiki nahi dugulako, alegia. Askea, gizon-emakume askez osatua, justizia sozialean errotua eta sexuen arteko harreman parekideetan oinarrituta. Halako Euskal Herria nahi dugu eta, euskal emakume preso politikook eusten diogu gure borroka-tokiari, bai eta askapen prozesuan ere.”²⁹

Alcedoren (1997) lanean ikusi ahal izan dugun bezala, borroka politiko edo armatua, (EPPKko kideak ez baitira soilik borroka armatuan parte hartutako pertsonak), euskal gizartea aldatzarekin batera, sexuen arteko harremanak aldatzea dute helburu, eta haien borrokek horretarako lagunduko duela sinetsita daude parte hartzaileak.

Agiri honetan ere, Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta erreferentziazat hartzen dute, eta bertan haien ekarpena egingo dutela azaltzen dute, “euskal gatazka eta guk jasaten dugun espetxe egoera izango dira gure ekarpenaren ardatzetakoak”³⁰. Gatazkaren konponbidean beraz, emakumezkoen egoera berezituaren ikuspegia txertatzera konprometitzen dira agiriaren bidez. Honek gatazka beste modu batean bizi ahal dela ikusarazten du, hain zuzen, emakumezkoek, beste modu batean bizi dezaketela gatazka.

2.2.3. Emakumea euskal gatazkan

Hau da hain zuzen Irantzu Mendia ikerlariak azpimarratzen duen ideietako bat, gatazkek, emakumei eta gizonei modu ezberdinetan eragin diezaieketela (2008: 2). Gatazka egoeretan, gizartearen polarizazioa bultzatzen dela adierazten du autoreak, eta generoen arteko rolak indartu egiten direla. Honela, “gizonezkoen “maskulinitasunera” jotzen da borrokalari izan dadin animatzeko, eta aldi berean, emakumezkoak, gizonak defendatuko duen herriaren edo talde etnikoaren zaintzaile eta eroale izatea espero da.”³¹ (Mendia, 2008: 3)

²⁹ <http://etengabe.wordpress.com/2005/05/24/eppkren-agiria-ongi-etorri-euskal-herrira-emakume-martxa/> helbidean dago eskuragarri agiri guztia. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean.]

³⁰ Ibidem.

³¹ Itzulpena nirea da. Jatorrizkoak honela dio: “*los roles de las mujeres y de los hombres tienden a acentarse (...) se recurre a la “masculinidad” de los hombres con la intención de animarlos a convertirse en combatientes, mientras que se espera de las mujeres que sean las portadoras y cuidadoras de las siguientes generaciones del país o grupo étnico que los hombres son llamados a defender.*”

Egoera honek, emakumearen parte hartzea biktima bezala bakarrik ulertzera darama, eta ikusi ahal izan dugunez, ez da hala. Gatazka egoera hauetan, genero indarkeriaren baitan sortutako indarkeria espezifikoak bizi behar izaten dituzte emakumeek. Dokumentatuen dagoen indarkeria biolentzia sexualarena da. Espainiako poliziaren eskutik inkomunikatuta pasatako egunetan, zenbait emakume bortxatuak izan direla, edo bortxatuak izateko mehatxuak bizi behar izan dituztela salatu dute. Aipagarria da, azken hilabeteetan komunikabideetan agertu den Beatriz Etxeberriaren kasua. Torturaren Prebentziorako Europar Batzordeak sinesgarritzat jo du Etxeberriaren kontakizuna. Erratza baten kirtenarekin bortxatu zutela adierazi zuen eta salaketa jarri arren ikerketarik abiatu ez izana salatzen du ere Torturaren Prebentziorako erakundeak.³²

Baina biktima paperean jartzeaz gain, emakumeek ere biolentziaren agente bezala parte hartu dezaketela adierazten du Mendiak. Gorago ikusi ahal izan dugun moduan, hala gertatzen da ETA erakunde armatuan parte hartzea erabakitzen duten emakumeen kasuan. Geroz eta gehiagok erabaki dute bertan parte hartzea Alcedoren ikerketan adierazten den moduan (1997:31).

Bi aspektu hauetaz gain, emakumeak bakerako agente moduan lan egiten duela ikusarazi nahi du Mendiak testuan. Eta horri helduko diogu jarraian. Eztabaida ugari daude gaiaren inguruan, baina hauek alde batera utzi³³ eta bakearen eraikuntzan emakumeek egiten duten ekarpena aztertzen ahaleginduko naiz jarraian.

““Publiko” eta “privatu” ideien arteko bereizketa konbentzionalari feminismo klasikotik egindako kritikak, gatazkaren konponbidearen arloan erabiltzen diren “gerra” eta “bakea” ideiak zalantzan jartzea ahalbidetu du. (...) Gatazkaren konponbideaz jardutean, bakea gerraren absentiarekin erlazionatzen jarraitzen da, eta beraz, honek, gatazkaren adierazpen bortitz eta nabariei bakarrik aurre egitera darama. Ondorioz, genero gaietako dagokienean, su irekirik egon gabe ere, emakumeak askotan termino ekonomiko, politiko eta sozialetan egiturazko desabantaileri aurre egiteaz gain, maila altuko zuzeneko biolentziari aurre egin behar izaten diotela ahaztu egiten da. Azken hau, arlo pribatuan ematen denez, baztertua gelditzen delarik.”³⁴ (Mendia, 2008:10)

³² <http://bilbokobranka.info/?p=33611> webgunetik jaso dut albistea. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean.]

³³ Informazio gehiagorako jo Mendiaren (2008) testura.

³⁴ Itzulpena nirena da. Originalak honela dio: *““La clásica crítica feminista a la distinción convencional entre las nociones de “público” y “privado” ha permitido que, en el campo de la resolución de conflictos, se desafíen igualmente las nociones de “guerra” y “paz” (...) en la práctica de la resolución de conflictos continúa la tendencia a asociar la paz con la ausencia de guerra y, por lo tanto, a afrontar únicamente las manifestaciones violentas y visibles de los conflictos. En consecuencia, en relación a las*

Beraz, gerra-bakea dikotomiaren ordeztu, biolentzia-bakea bezalako terminoak erabiltzea egokiagoa dela iritzi dio autoreak. Aipagarria da adibidez, gerrate zibila eta gero, emakumeek haien kideen eskutik pairatu behar izan zuten mespretxua eta bazterkeria. Gudan, gizonezkoak bezala parte hartu eta gero, eta batzuk kartzelaratuak izan eta gero, ez zuten inoiz politikaren lehen lerroetan egoteko aukerarik (edo baimenik) izan, gizonezkoek, frankismoak bultzatzen zuen emakumezkoaren rol soziala onartu zutelako (Gorosarri, 2008: 74). “Emakumezko politikarien generazio bat hondoratu zuten”. Beraz, batzuetan, emakumezkoaren zapalkuntza “lerro berdinetatik” etorri daitekeela ikusarazteko eta hau ekiditeko, beharrezkotzat jotzen da emakumearen parte hartzea bake prozesuetan. Honela defendatzen du parte hartze hau Bilgune Feministak: “Biztanleri erdiak jasaten duen oinarritzko eskubide demokratikoen gabezia aintzat hartzea, ez isilaraztea, natural ez bihurtzea ezinbesteko baldintza da”³⁵.

Ahotsak ekimena

Testuinguru honetan *Ahotsak* ekimena kokatu behar dugu. Euskal Autonomi Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko parlamentari eta kargu politiko eta sindikaldun emakumeek (UPN eta PP izan ezik. Uko egin zioten bertan parte hartzeari) osatzen dute ekimen hau. Bake prozesuaren babes mugimendu gisa definitu zuten haien burua³⁶ 2006ean egin zuten aurkezpen ekitaldian. Aldi berean “aterabideak biltzeko orduan” haien parte hartzea eta protagonismoa aldarrikatu zuten.³⁷ Manifestuan, emakumeen parte hartzea honela justifikatzen du ekimenak:

“Gaur egun, eta bizi dugun gizarte eredia kontuan hartuta, gure herriko bizitza politikoan gizon eta emakumeon papera ez da bera. Hala ere, eta guri ere dagokigun gatazka politikoaren ondorioak pairatzen ditugun heinean, konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun parte hartzea eta protagonismoa aldarrikatzera gatoz. Konponbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala.”

cuestiones de género, el análisis de conflictos ignora sistemáticamente el hecho de que, incluso cuando no existe fuego abierto, las mujeres con frecuencia se enfrentan no sólo a una desventaja estructural en términos económicos, políticos y sociales, sino también a altos niveles de violencia directa que es ignorada por tener lugar en la esfera privada.”

³⁵ www.bilgunefeminista.org webgunetik ateratako informazioa [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean.]

³⁶ Informazioa <http://ahotsak.blogspot.com.es/> webgunetik atera du. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean.]

³⁷ Hiru premisa hauek identifikatu zituzten: 1. Adostasun politikoak lortzeko tresna bakar gisa, desberdinen arteko elkarrizketa defendatzen dugu. Jarrera politikoak hurbiltzeko eta hitzartzeko modu bakarra dela ulertzen dugu. 2. Indarkeria eza eta bide politiko eta demokratikoak erabiltzeko apustu zalantzarik gabekoa. 3. Demokrazia osoa da edonolako gatazka politiko konpontzeko agertoki bakarra edo zeinahi proiektu politiko demokratiko defendatu eta lortzeko eszenatoki bakarra.

2006ean Bake Prozesu garaian idatzi zuten manifestu hau, eta indarra izan zuen ekimena izan arren, 2007an ETAk bake prozesua bertan behera uzten zuela adieraztearekin batera, indarra galtzen joan zen *Ahotsak* ekimena. Hala ere, noizean behin artikuluren bat edo beste argitaratu izan dute, eta baita agerraldiren bat egin ere. Adibidez, azkena, Iosu Uribetxeberria Euskal Preso Politikoaren egoera salatzeke elkarretaratzea izan zen. Bertan kartzela sistema ez “mendekaria” eskatu zuten³⁸.

2.2.4. Emakume euskal preso politikoa espetxean

Gaur egunean, EPPKko kideak 599 dira eta 80 espetxetan daude sakabanaturik³⁹:

438 preso espainiar estatuko 45 espetxetan sakabanatuta	57 emakume (Horietatik 7 umearekin)
	381 gizon
127 preso frantziar estatuko 29 espetxetan sakabanatuta	27 emakume (Horietatik 1 umearekin)
	100 gizon
19 preso Euskal Herriko 3 espetxetan daude	2 emakume
	17 gizon
4 preso Ingalaterrako espetxe batean	
	4 gizon
Preso 1 Ipar Irlandako espetxe batean	
	Gizon 1
Preso 1 Portugalgo espetxe batean	
	Gizon 1
10 preso espetxeratze arinduan, pairatzen dituzten gaixotasunak direla eta	3 emakume
	7 gizon
Preso bat konfinatua Autunen (Frantzia)	Gizon 1

Esan bezala, kolektibo hau jatorri politiko anitzetako kideek osatzen dute eta ez da soilik ETako militante ohiez osatutako kolektiboa. Bertan, kolektibo ugaritako pertsonak hartzen dute parte, hala nola, gazteriaren kolektiboko kideek, ezker abertzaleko militanteek, nazio eraikuntzan lan egiten duen jendeak, egunkarietako langileak ... Lege antiterroristapean atxilotuak izan dira guztiak. Batzuei ETaren parte izatea edo ETarekin kolaboratzea egozten diete, nahiz eta kasu askotan, atxiloketa baino lehen erabat publikoa zen haien herri mugimenduetako militantziagatik atxilotuak izan.

³⁸ Deia egunkaritik hartu dut informazioa: <http://www.deia.com/2012/08/29/politica/euskadi/el-juez-acude-a-donostia-a-entrevistarse-con-uribetxebarria-y-el-equipo-medico> [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16an.]

³⁹ www.etxerat.info webgunetik ateratako datuak, 2013ko Apirilekoak. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 12an.]

Estatus politikoa

Kolektibo honen aldarrikapen nagusietako bat estatus politikoa aitortzea da. Hain zuzen, haien burua kolektibo politikotzat definitzen badute ere, ez Frantses estatuak eta ez Espainiar estatuak ez ditu kolektibo bezala kontsideratzen modu ofizialean. Modu ofizialean diot, Kolektiboko kideek haien kontra bereziki egiten diren zapalketak jartzen baitituzte kolektibo gisa kontsideratuak direla adierazteko adibidetzat. Hain zuzen, Zigor Kodean egindako aldaketak (197/2006 sententzia adibidez, *Parot doktrina* bezala ezagunagoa dena), bizi baldintzen gogortzea, senideei egiten zaizkien miaketa arbitrarioak, komunikazioak murriztea, ikasketak debekatzea, sakabanaketa... (Vara, 2011: 78). Estatus politiko honen onarpenak, Euskal Herrian dagoen gatazkak, izaera politikoa duela onartzea ekarriko luke⁴⁰, eta ez du ematen hori onartzeko prest egon daitekeenik espainiar zein frantziar gobernua momentu hauetan.

Inkomunikazioa eta tortura

Lege antiterrorista delakoaren izenean atxilotutako pertsona guztiek, tratu ezberdindua pairatzen dute atxilotetaren unetik bertatik, eta inkomunikazioa aplikatzen zaie. Inkomunikazioak, kanpoko munduarekin inolako loturarik eduki ezin izatea dakar, hain zuzen, konfiantzazko abokatuaren edo medikuaren bisitarik ez edukitzea, eta atxilotuaren kokalekuaren inguruko informaziorik inori ez ematea suposatzen du. Erregimen hau bost egunetan zehar luzatu daiteke.⁴¹ Inkomunikazioaldi honek tortura ahalbidetu dezakeela salatu dute hainbat elkartek, eta erregimen honen amaiera eskatu dute (Amnistia International, Torturaren prebentziorako kontseilu eta elkarte ezberdinak, ...). Hala ere erregimen hau “sistematikoki” aplikatzen jarraitzen dute, eta Garzon epaileak tortura galarazteko protokolo bat sortu bazuen ere (atxilo aldia grabatzea eta konfiantzazko mediku batek artatu ahal izatea ahalbidetuko luke protokolo honek⁴²) tortura salaketak anitzak izan dira azken urteetan zehar. Aurten *Torturaren*

⁴⁰ Ipar Irlandan esaterako, IRAko presoek *Protesta Zikina* bezala ezaguna den greba eraman zuten aurrera estatus politikoaren aldarrikapena lehen lerroan zutela. Zeldetan txiza eta gorotza paretetan zehar sakabanatu zuten, eta emakumeek baita beraien hilerokoaren odola ere. Azken honek, militantearen figura homogeneousatua apurtu zuen nahi gabe, eta emakumeak ere preso zeudela, eta gatazka bizitzeko haien modu berezia ere bazutela adierazi zuen (Aretxaga, 1997 –n protestaren moldaera honek izan zuen tamaina ikertzen da). Protesta hau eta gero, gose greba bati ekin zioten, bertako 10 kidek bizitza galtzeraino burutu zutena. Gertakizun hau eta gero, estatus politikoa aitortu zitzaie IRAko presoiei.

⁴¹ Emakumeak eta Lege Antiterrorista artikuluan informazio gehiago: <https://prod.euskalherria.indymedia.org/eh/servlet/OpenMir?do=getpdf&id=15608&forIE=.pdf> [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean]

⁴² http://paperekoa.berria.info/harian/2010-08-05/006/002/ezkerrak_gaixotasun_larria_badu_ere_marlaskak_ez_du_onartu_protokoloa.htm

Prebentziorako Europar Batzordeak osatu duen txostenean, berriz ere Espainiar gobernuari inkomunikazio aldia ezabatzeko eskatu dio, eta erregimen honen pean atxilotutako pertsonekin elkarrizketak burutu eta gero, bortxaketa saiakera bat eta bortxaketa bat egiazkotzat jo ditu⁴³ besteak beste. Eraso sexualaz gain, emakume izateagatik inkomunikazio aldian zenbait tratu berezitu pairatu behar izaten dituzte emakumeek, hala nola, haien agentzia ukatzea (komandoko puta edo sukaldaria izatea deitoratzen diete), galdeketak biluzik egitea, ukimenak gorputz osoan zehar, ... Umilazioak eta irain sexualak etengabe erabiltzen dira emakumeen aurka (Behatokia, 2004).

EPPKko kide izandako Olatz Dañobeitiak eta Eiderrek⁴⁴ Herrirak eta Bilgune Feministak antolatutako hitzaldi bitan, honela deskribatzen dute inkomunikazio aldia. Olatzek honakoa dio:

“Kartzela, atxiloketatik hasita, sistema patriarkarrari erantzuten dion eraikuntza bat da (...) Atxiloketa unetik hasten da hau dena, emakumeari ezarritako rola apurtu izana zigortuz. Polizia etxeko galdeketetan etengabekoak dira “alaba txarra zara, bikote txarra zara, inoiz ez duzu haurrik izango” bezalako irainak jasatea. Bestalde, tortura bizipenak izan dituzten emakumeen kasuan, izaera militantearen aitortza eza erabili ohi dute poliziek: “mugimendu politikoan sartu zara bikotearengatik, sukaldari lanak egiteko, edo zerbitzu sexualak emateko” (Herrira. 2012)

Eider, haren bikotekidearekin batera izan zen atxilotua, eta honen erabilera egin zutela adierazte du, batez ere bera gutxiesteko asmoz:

“Bikotea eta biok batera atxilotu gintuzten. Polizia etxean etengabe esaten zidaten mutilak engañatu ninduela eta “pobre niña” bezalakoak esaten zizkidaten. Herrian ere, intentzio txarrik gabe, baina Ekaitz kartzelara sartuko zutela eta ni aske utziko nindutela uste zuten. Mutila jotzen da militante politikotzat eta gu, emakumeok, haien bikote bezala ikusten gaituzte.”⁴⁵Eider

Dispertsioa

Ettxerat elkartetik⁴⁶ 80. Hamarkada amaieran dispertsioaren aplikazioaz honakoa adierazten da:

“80. Hamarkadako amaieran hasten da fase berri bat (...) non helburua den presoan arteko ezberdintasunak detektatzea eta presiorako espetxe politika bat ezartzea (...) gogortze aldi bat hasten da. Bizi baldintzak minimoen azpitik kokatzen dira,

⁴³<http://www.naiz.info/actualidad/noticia/20130430/europa-insta-al-estado-espanol-a-adoptar-medidas-para-evitar-las-torturas>

⁴⁴ Ez dago Eiderren abizena eskuragarri albistean.

⁴⁵ Tolosako udalaren orrialdean hitzaldiaren laburpena dago parte hartzaileen hitzekin: <http://tlsbat.net/index.php/eu/berdintasuna-tolosa/174/1201> [Azken kontsulta 2013ko Ekainaren 9an]

⁴⁶ Ettxerat elkartea Euskal Preso Politikoen senideez osatutako elkartea da.

murritzeta gogorak ezartzen dira komunikazioetan, baldintzapeko askatasunaren ukapen sistematikoa, maiztasuneko agresioak espetxeetan eta, batez ere, kondukzioetan.” (Etxerat, 2010: 2)

Dispertsioaren ondorioz, Frantses zein Espainiar estatuko edozein kartzeletara bidali dituzte presoak, etxetik gertu egoteko duten eskubideari muzin eginez. Batzuetan, epaituak izan gabe ere, urrundu izan dituzte haien sorterritik.

Kasu honetan, emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa dela azpimarratu behar da. Edozein emakumek (EPPKko kidea izan beharrik gabe) bizitzen duen egoera da dispertsioarena, hain zuzen, haientzako egokitutako kartzelak ez izaterakoan, sorterritik urrun dagoen beste kartzela batera bidaltzen dituztelako. Baina Preso Politikoen kasuan oraindik larriagoa da egoera hau, edonora bidali baititzakete, eta kasu askotan, bakarrik egotera heldu izan dira EPPKko kideak. Momentu hauetan bost emakume daude bakarrik Espainiar eta Frantses estatuko kartzelatan⁴⁷. Baina sakabanaketa ez da soilik geografikoa, kartzela barruan ere modulu ezberdinetan kokatu izan dituzte emakumeak (eta gizonezkoak ere), eta honek are eta isolatuago egotera eramán ditu. Azken urteetan kartzelatan modulu bakoitzean 2-3 gizon gehienez egotea bultzatzen ibili dira, baina aspalditik bizitzen zituzten emakumeek egoera hauek. Honela azaltzen du preso egondako Olatzek, Bilboko Kafe Antzokian egindako hitzaldian, sakabanaketa: “Emakumeak, gutxiago izaterakoan, gure artean isolatzea eta bakartzea gauzagarriagoa egiten da. Neskak bakarka edo binaka egonik, isolamendu edo bakartzearen zigorra gizonezkoak baina gehiago pairatzen dugu” (Herrira, 2012).

Kartzela barruan ama direnen, edo ume txikiekin (3 urte arte izan ditzake emakume presoak haurrak berarekin kartzela barruan) kartzelara sartzea erabakitzen duten emakumeen kasua ere aipatzekoa da. Momentu hauetan, Espainiar estatuan, hiru kartzelatan daude euskal preso politiko amak haien seme-alabekin Aranjuez, Soto del Real (biak Madrilen) eta Picassenten (Valentzia).

FIES (Ficheros de Internos de Especial Seguimiento)

Behin kartzelaratuta, FIES bezala izendatzen dituzte euskal preso guztiak, kartzelara sartu bezain laster (eta oraindik Kolektiboko kide direla baieztatu baino lehen). FIESak, kontrol berezia pairatzen duten presoak dira. Ofizialki, bere izenak dioen moduan, presoen informazioa biltzen duen “karpeta” bat izango litzateke FIESa, haren inguruko

⁴⁷ www.etxerat.info –tik ateratako informazioa.

informazioa eta kartzela barruan sortzen diren taldeekin duen erlazioa jasotzen duena. Baina gaur egunean FIESak kartzela erregimen bat dira bere horretan. Kontrol zorrotza eta murrizketa ugari pairatuko ditu presoak, duen FIES mailaren arabera beti ere.⁴⁸

Bost FIES mota daude, FIES-1 (Kontrol zuzena: "Bereziki gatazkatsu eta arriskutsuak diren presoak"); FIES-2 (Antolatutako delinkuentzia: "Antolakunde edo talde kriminalen barnean burututako delituengatik espetxeratutako presoak"); FIES-3 (Talde armatuak: "talde armatuekin edo elementu terroristekin lotura izateagatik, edo talde hauekin elkarlanean aritu edo lagundu izanagatik espetxeratutako presoak"); FIES-4 (Zigor erakundeko edo Segurtasun-Indarretako langileak: Lan kolektibo hauetako partaide diren edo izan diren presoak); eta FIES-5 (Ezaugarri bereziak: "Haien ezaugarri kriminologikoak edo espetxeak direla eta jarraipen berezia behar duten presoak, segurtasun arrazoiengatik).

EPPKko kideak normalean FIES-3 izaten dira, eta honen barruko murrizketak ezberdinak izango dira lehenengo edo bigarren graduan egotearen arabera. Kartzela bakoitzak ere murrizketa hauek aplikatzeko modu ezberdinak izango ditu. Baina laburbilduz, EPPK kideei komunikazioetan eragingo die haien FIES izaerak. Honek, dispersio geografikoak sortzen duen isolamenduari, isolamendu komunikatibo bat gehituko dio.

Ettxerat-etik, "bakartze soziala" deitzen diote murrizketa honi, eta honek "pertsona gisa garatu diren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik bereizten" dituela uste dute. Lehen aipatu dugun urruntze geografiko eta kartzela barruan ematen den modulu arteko banaketaz gain, honakoak eragiten ditu (Ettxerat, 2010):

- Bisita murriztuak. Espetxe batzuetan senide zuzenen bisitak onartzen dira bakarrik, eta lagunek bisitak egin ahal izateko Espetxe Institutioetako Idazkaritza Nagusiari eskatu behar diote baimena. Sei hilabetetik behin 10 laguneko zerrenda izan dezake presoak.
- Bisitaren denbora mugatuak. 40 minutu inguruko bisitak izan ditzake presoak eta bisitara doan lagun edo senideak. (Kartzelaren arabera minutuak igo edo jaitسي daitezke)

⁴⁸ http://www.eldiario.es/politica/alfon-FIES_0_78392640.html El Diario egunkariaren albistea FIESen inguruan. [Azken kontsulta: 2013ko Ekainaren 16ean.]

- Bisitaren baldintzak. Beira lodi bat erdian dutela hitz egin behar dute Espainiar estatuan. Frantziako kartzeletan adibidez ez dago kristalik eta hala nolako kontaktua posible da.
- Aurrez aurrekoak (Vis a visak). Hilean familiarekin bat egiteko eta bikotekidearekin beste bat egiteko aukera du presoak (bikotekiderik badu biak egin ahal izango ditu, bestela, askotan, bisita hori ez diote familiarekin egiteko beste batekin trukatu). Ordu betetik gora eta hiru ordutik beherakoak izaten dira. Emakume asko vis a vis intimorik gabe daudela aipatzekoa da. Honela dio Irati Tobarrek Herrirak eta Bilgune Feministak Bilbon egindako hitzaldian:

“Preso politikoen artean ere gertatzen da emakumeek kalean duten bikotea galtzea. Urte asko kartzelan daramaten gizonetzko preso politikoei bikote emakumea mantentzen dute kasu askotan. Emakumea izaten dute bera zaintzeko kanpoan. Urte asko kartzelan daramaten emakumeen kasuan, aldiz, ez da hori gertatzen. Batzutan bikotea kartzelan dutelako gertatzen da, baina oro har, emakumearen kartzelaldiko prozesu osoa bizitzen duen bikote gizonak oso gutxi daude”. (Herrira, 2012)

- Korrespondentziaren murrizketa. Bi gutun idatzi ditzakete gehienez presondegi askotan. Batzuetan, euskaraz idaztea debekatu diete. Zortzi telefono dei dituzte gehienez preso politikoei Espainiako kartzeletan. Dei bakoitza bost minutukoa izango da gehienez.
- Komunikazio mota guztien interbentzioa. Bisitak, gutunak, telefono deiak eta bisitetako solasaldiak interbenituak daude. Dena irakurri, fotokopiatu, grabatu eta entzun egiten da.

Kartzeletako egoera dela eta, kasu askotan, bikoiztuta egon behar izaten dute presoek (emakume zein gizonak) eta honek intimitatearen galera osoa eragiten die, haien sexualitatea garatzeko, edo auto-plazera lortzeko bideak asko oztopatuz.

Honetaz gain, emakume preso politikoei, emakumezkoen espetxeetan dauden eskaintza eskasak are eta eskasago bilakatzen zaizkie, zenbait tailer eta jardueretan parte hartzea debekatzen baitiete.

Ilunetik argira

Emakume Euskal Preso Politikoen egoera berezitua aipatua izan ez den “berezitasuna” izan da urte luzez. Honek arrazoiketa ezberdinak izan litzake. Alde batetik, Irlandan gertatzen zen bezala, IRAko kide emakumeek “hainbeste” borrokatu eta gero, “beste bat

gehiago bezala” ikusiak izan nahi zuten eta emakume bezala inolako berezitasunik ez zutelara adierazten ahalegintzen ziren, haiek ere “kapazak” zirela erakusteko. Baina *Protesta Zikinarekin* bat egin bezain laster, nahi gabe, haien izaera berezitua azaleratu zuten hilerokoaren odola barreiatu zutenean gelako ormetan zehar (Aretxaga, 1997). Beraz, emakume presoez hitz egiten hasi zen, eta haien egoera ikustarazten.

Hemen ere, tortura sexualaz hitz egiten hasi ziren zenbait kolektibo testigantzak jaso eta zabalduz. Hasieran, “biktima” izaera hori erakutsaraziz soilik (Mendia, 2008), baina pixkanaka testigantza osoak, bizitza osoak ikustarazten hasi dira, emakumeak agente bilakatu. Horren adibidetako bat da pasa den urtetik hiri eta herri ugarian Herrira eta Bilgune Feministak antolatu dituzten “Emakumea eta Kartzela” hitzaldiak. Emakume presoen parte hartzearekin hasi, eta jada, senide eta bikotekide emakumeen testigantzak ere plazaratzen hasi dira (Tolosan kasu). Behar bat dagoela ikusi da, eta horri erantzunez, emakumeak biltzen eta hitz egiten hasi dira.

3. HARREMAN AFEKTIBO SEXUALAK KARTZELAN

Harreman afektibo sexualak aztertzen ahaleginguduko naiz datozen orrietan. Harreman hauek, zehazki, kartzelaren testuinguruan nola garatzen diren eta nolako garrantzia duten aztertzen arituko naiz. Honetarako, azken urteetan maitasunaren inguruan egindako ikerketa ezberdin batzuk bilduko ditut.

Estibaliz De Miguelek adierazten duen bezala “Emozioak eta sentimenduak, batez ere bikotekideen arteko maitasunarekin eta amatasun erlazioekin zerikusia dutenak, patriarkatua gure eremu intimo eta pertsonalenetan sartzen denaren seinale dira”⁴⁹ (2009: 11), patriarkatu honen adierazpideak kartzelan ematen diren harremanetan nolako eragina duen aztertzen ahaleginguduko naiz, galdera ezberdinetatik abiatuta: emakume presoek gizonetzko presoek bezain besteko babes afektiboa al dute bikoteen aldetik?, zer suposatzen dio bikotea espetxean duen emakumeari egoera honek?, nola garatzen dira harremanak egoera horretan?...

Gutxi aztertutako eremua da bikote harremanena espetxean, baina dauden lanek hurbilpen bat egiten eta uste baino galdera gehiago erantzuten lagunduko digute. Hala ere, azpimarratu nahi dut, azterketa guzti hauetan, bikote heterosexualez mintzatu izan direla, eta beraz, eskura ditudan datu bakarrak familia heterosexualek direla. Ez dago inolako datu edo analisirik harreman homosexualen inguruan, eta tamalez, ezin izan dut horrelako datuetara heldu. Beraz, argitu nahi dut, marko teorikoaren zati guzti honetan, harremanez, bikoteez edo familiez ari naizenean heterosexualak diren harremanez arituko naizela.

3.1. Maitasun pentsamenduari hurbilpen bat

“El amor sólo es una ocupación en la vida del hombre, mientras que
es la vida misma de la mujer.”

(Simone de Beauvoir, 1949: 451)

Maitasuna elementu ugariz eta kontraesankorrez osatua dago. Ainara Santamariak (2012) bere ikerlanean zehazten duen bezala kontuan hartu beharreko hiru elementuk osatzen dutela dio: “[1] alde positibo nahiz negatiboekin identifikatzen den kontzeptu

⁴⁹ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Encontramos que las emociones y los sentimientos, especialmente los relacionados con el amor de pareja y las relaciones maternas, son la manifestación de que el patriarcado penetra hasta en nuestros ámbitos más íntimos y personales”

konplexua dela , [2] testuinguruaren arabera izaera duela, eta [3] gorputza zeharkatzen duen pentsamendu, emozio eta ekintza dela” (2012: 8).

Aztertu dezagun puntuz puntu. Ulrich Beck eta Elisabeth Beck-Germesheim (2001: 31) soziologo alemaniarrek maitasunaren alderdi kontrajarriak ikustarazten dituzte, alde batetik, maitasuna plazera, konfiantza eta *kariñoa* direla baieztatzen dute (behintzat promesa gisa), baina horretaz gain, aspergarria, amorratzailea, ohitura, traizioa, suntsiketa, bakardadea, ikara, etsipena eta algara ere badela azpimarratu nahi dute. Hain zuzen, maitasunaren aldeakartasuna eta emozio “positiboak” soilik osatua dagoela ezeztatzen dute. Ohituta gaude maitasunaren definizioetan irudikapen idiliko eta soilik positiboak egiten, baina maitasuna, hori eta beste guztia ere badela kontuan hartu behar dugu.

Bigarren elementuari dagokionean, Mari Luz Estebanek adierazten duen moduan:

“Haien artean nahasten diren eta haien gainjartzeak ondorio arriskutsuak dituen errealitatearen bi maila ezberdindu behar dira, orokortasun eta etnozentrismo arriskuagatik: Batetik, maitasuna giza indar unibertsal bezala, eta bestetik, testuinguru geografiko, historiko eta sozial batean maitasunarekiko, edo modu orokorrangoan, emozioekiko egiten den erakuntza kulturala. Maitasuna, gaitasun unibertsal bezala, interakzio eta elkartasun modu bat izango litzateke, bestearen idealizazio eta erotizazioa dakarrena, baita erlazioaren intimitate eta iraunkortasunaren nahia ere.”⁵⁰ (2011: 42)

Testuinguruaren arabera beraz, maitasuna ulertzeko eta bizitzeko modu ezberdinak egongo dira, eta gu, kasu konkretu batean zentratuko gara aurrerago, kartzelan ematen diren bikoteen arteko maitasun harremanen inguruan.

Elementuekin amaitzeko, Estebanek berak, maitasunak edozein “ekintza sozial” bezala gorputza erabiltzen duela adierazten du (*Ibidem*: 43). “Performatividad amorosa”(Ibidem: 51) terminoa erabiltzen du autore honek, gorputzek maitasuna bizitzeko eta erreproduzitzeko duten ikasketa eta erreproduzio prozesua izendatzeko. Maitasuna gorputzen dugu.

⁵⁰ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Diferenciar dos niveles de la realidad que se suelen entremezclar y cuyo solapamiento tiene consecuencias adversas, por el riesgo de etnocentrismo y generalización: el amor como un potencial humano universal, por una parte, y la construcción cultural que en un contexto geográfico, histórico y social determinado se hace del amor o, más en general, de las emociones, por otra. El amor como capacidad universal sería una forma de interacción y vinculación que comporta la idealización y erotización del otro, y el deseo de intimidad y durabilidad de la relación”

Testuinguru konkretuetan zentratzerakoan, gure (Europarron eta Ipar Amerikarren) maitasuna ulertzeko modua, *Maitasun erromantikoaren* kontzepzioaren barruan sartuko litzateke (*Ibidem*: 44). Honela osatuko litzateke maitasuna ulertzeko modu hau, maitasun pentsamendu⁵¹ hau:

*“Maitasunaren inguruko sinbolo, nozio eta teoria multzo artikulatua, espazio sozial eta instituzional guztiak bustitzen dituena. Jendearen praktikan zuzenean eragiten du, genero, klase eta etnia harreman ez-orekatuak egituratuz; desioa, identitatea eta subjektua modu zehatz eta heterosexual batean egituratuz.”*⁵²(*Ibidem*: 23)

Maitasuna bizitzeko modu hau, eredu heterosexualean oinarritzen dela, eta honek, binomio maskulino-femeninoa mantentzen jarraitzen duela eta indartzen duela kontuan hartu behar da ere. Gizatiarra irudikatzeko modu bilakatzen da, eta gizonezko eta emakumezkoen definizioak egiten ditu (*Ibidem*: 47). “Eredu patriarkalak besteentzako izakiak bilakatzen ditu emakumeak, afektiboki menpekoak eta askatasun gabeak. Elementu hauek markatzen dituzte harreman afektiboen izaera eta ezberdinkerien funtsa dira⁵³” (De Miguel, 2009: 12). Maitasunaren rol banaketa honetan, “gainbalio emozional” bat (*Ibidem*: 12) ematen dela adierazten du De Miguelek. Gainbalio hau gizonek emakumeengatik jasotzen dituzten maitasun eta zaintza lanengatik ematen da. Emakumeek ordea, modu “orekatuan” jasoko dituzte bi hauek gizonen eskutik. Shere Hitek hezkuntzan jarri zuen jo puntua, eta emakumeari haren xedea maitasunean dagoela irakasten zaiola salatu zuen, gizonezkoei beste helmuga batzuk jartzen zaizkien bitartean (Santamaria, 2012: 13). Honela lortzen da, emakumeak “bere borondatez” maitasun adierazpideak eta zaintza lanak zabaltzea, “gainbalio” bilakatzuz.

Emakumezkoek maitasuna helburu gisa izaterakoan, maitasuna lehentasun bezala ikusterakoan, ondorio kaltegarriak sortzen direla azaltzen du Santamariak, “ezberdintasun diskriminatzailea eta generoen hierarkizazioa ahalbidetzen baitu” (2012: 13). Botere harremanak sortzen ditu honek.

⁵¹ *Maitasun pentsamendua*: Mari Luz Estebanek gazteleraz idatzitako liburuan (2011) “Pensamiento amoroso” bezala izendatzen duen pentsamoldea.

⁵² Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “*un conjunto articulado de símbolos, nociones y teorías en torno al amor, que permea todos los espacios sociales, también los institucionales, e influye directamente en las prácticas de la gente, estructurando unas relaciones desiguales de género, clase y etnia, y un modo concreto y heterosexual de entender el deseo, la identidad y, en definitiva, el sujeto.*”

⁵³ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “El modelo patriarcal hace a las mujeres seres para los otros, dependientes afectivamente y carentes de libertad. Estos elementos marcan el carácter de las relaciones afectivas y son el sustrato que mantiene las desigualdades”

Gaur egungo gazteriaren artean ordea, oso zabaldua dago haien erlazioetan ez dagoela botere harremanen zantzurik, matxismoa zaharkituta dagoen zerbait dela, baina:

“Datu soziologikoak argi erakusten digute diskurtso hutsean, azalean, geratzen den parekidetasuna dela gurea; praktikan, genero ezberdintasuna ematen delako esparru guztietan eta indarkeria sexista eguneroko ogi dugulako, gazteok salbuespena ez garelarik. (...) Gaur egun gazteen artean oso modu sotilean ematen da indarkeria eta diskurtso sinboliko tradizionalaren ondorioz, neska gazteek zailtasun handiak dituzte indarkeriazko egoera sotil horiek identifikatzeko.” (Ibidem: 16).

Estebanek dio, heziketa, ustez, berdintasun diskurtso batekin garatzen ari bada ere, batzuek besteekiko duten botere harremanetan ageri dela oraindik ere, modelo zapaltzaileetan jarraitzen dugula (Esteban, 2011: 83).

3.1.1. Maitasuna historian zehar

Antzinako Grezian, maitasuna perfekzioarekin lotzen zen: “bakoitzak faltan zuena eta beraz, perfektua izatea eragozten ziona eskuratzeko maitatzen zuten” (Santamaria, 2012: 14). Pertsona osoak izatea baino, beste batekin elkartzean osotasuna lortzearen ideia hori, gaurdaino heldu da gugana “laranja erdiaren” mitoa honen adibide garbia izanik.

Kristautasunaren loraldian, maitasuna, bestearentzako ona izatearekin eta borondatezko lanarekin lotuko da. “Elkartasuna, eskuzabaltasuna eta eskertasuna dira maitasun kristauaren ezaugarri nagusiak” (Ibidem: 14)

Maitasun burgesak erotismoa eta sexualitatea bultzatuko ditu. Maitasun kristauaren borondatea eta eskuzabaltasuna pasio erotikoarekin elkartuko dira, eta hau elkarbizitzarekin eta honen helburu aitatasun-amatasunarekin lotzea bilatuko du maitasun burgesak. Familiaren iraunkortasuna bilatzea izango da xedea.

Victoria Erreginaren erreinaldiak eredu oso zurrun eta kontserbadorea zabaldu zuen, “batez ere emakumeentzat: purutasunaren izenean emakumeen sexualitatea gaitzetsi eta desagerrarazi zen eta amatasuna zen araztasuna eskuratzeko modu bakarra, euren jarduna esparru pribatura mugatu zen erabat” (Ibidem: 15).

Eredu guzti hauen hondarrak heldu dira gaurdainoko Mendebaldeko maitasun pentsamendura. Baina historian ere bestelako ereduak bizitzeko eta aldarrikatzeko pertsonentzako tokia dago. *Maitasun askea* aldarrikatu zuten feminista batzuen bizipenek zer pentsatu eta zer ikasi eman digute, horien artean, (eta askotan haien

maitasun ereduarengatik ezagunak diren) Simone de Beauvoir, Virginia Woolf, Frida Kahlo, Mary Wollstonecraft, Alexandra Kollontai edo Emma Goldman aipatu ditzakegu besteak beste. Beraien ekarpenik garrantzitsuenak honela laburbiltzen ditu Santamariak:

“askatasuna ezarriko da harremanen erdigunean eta negoziazioa dute oinarri, sufrimendua baztertuko da, maitasuna berezkotzat hartzeari utzi eta pertsonok garatzen dugun zerbait gisa plazaratuko da, fidelitatea beste pertsonaren jabetza gisa ez ulertzeko proposatzen da eta maitasunaren eskusibotasuna baztertzen da.” (2012: 15)

Historiatik beraz, eredu kontrajarriak jaso ditugu. Maitasun erromantikoak, hasieran aipatutako eredu ezberdinetatik (eta pentsamolde korronte nagusi zirenak) edan egin du. Baina maitasun erromantikoaren inguruko hausnarketa bultzatu, eta honen inguruko kezkek ere ageri dira gure artean (korronte nagusiaren aurkakotasuna aldarrikatuz), batez ere eremu feministetan, azkenik aipatutako autoreen aurrekariei esker. Oraindik, Marcela Lagardek dioen moduan, “emakume bakoitza, norbanako berdingabe bezala, mundu patriarkarraren sintesia da” (2011: 72), eta beraz, momentu batzuetan patriarkatu horrekin “lasai” bizitzeko aukera izango du, zapalkuntza, ez baita beti honela identifikatzen eta leialtasun, entrega eta pairamen bezala identifikatzean, poztasunarekin berdintzera daramatza patriarkatuak emakumeak (Ibidem: 17). Baina feminismoak, pertsona askori, modu “lasaian” bizitzea eragotzi die, gatazkak eta molde berriak azaleratuz.

3.1.2. Maitasun eredu honi erantzuten dion familia eredua

Santamariak dioen moduan:

“Maitasuna eta maitasun-erromantikoa gauza bera ez direlakoan gaude. Azken honetan, maitasunak ondoko forma konkretua duelako gure irudikoz: bizi osorako maitasuna izan behar dela aurreuposatzen du (“bizitza guztian maitatuko zaitut”), pertsona bakar baten maitasunean oinarritzen da (“ezin dezaket zu ez zaren beste inor maitatu”), baldintzarik gabeko maitasuna da (“edozeren gainetik maiteko zaitut”), identitate propioaren ukapen eta sakrifizio maila altua eskatzen du (“nire bizitza baino gehiago maite zaitut”) eta heterosexuala da.” (2012: 23)

Maitasun eredu honek, ahaidetasuna, familia eta ezkontza antolatze eta irudikatze modu konkretuak ditu (Esteban, 2011: 48). Marcela Lagardek dio ezkontideen artean “asimetria politiko” (2011: 447) bat dagoela, eta hau emakumezkoen bizi-dependentziaren oinarrian dagoela. Honek borondatezko neskametzak birstortzen du.

Zoriontasunaren irakurketa generikoa ere topatu dezakegu elkartzeko eredu hauetan, non zoriontasun femeninoa familiaren baitan “ama-emazte” izatean datza:

*“Beste edozein bilaketa gaitzetsia da, ezkontidetasun eta amatasunean dohakabe izatea gaitzesten den bezala. Dohakabetasun femeninoa emakumearen gaitasun pertsonalen ezgaitasun bezala irudikatua da eta beraz, berari leporatzen zaio haren dohakabetasuna.”*⁵⁴ (Ibidem: 449).

Baina ez dugu nahastu behar, dohakabetasuna sakrifizioarekin, hau da, borondatez egiten den nork bere buruarekiko ukoa edo pribazioa beste baten mesedetan. Sufrimendua, emakume askoren bizipenetan errepikatzen den elementuetako bat da, “sufrimenduaren apologia egiten da” (Ibidem: 449). Sufrimendu honen balorazio positiboa dago. Zenbat eta gehiago sufritu eta sufrimendu horri aurre egiteko gaitasuna izateak, maitasuna geroz eta osasuntsuagoa egingo duelakoaren ideia oso zabaldua dago.

Sufrimendua, sakrifizioa, entregatzea ... Aurretiaz aipatutako tradizio kristauan erabat erroturik zeuden ideiak direla ikusi ahal izan dugu, eta gaurdaino indarrean jarraitu dute. Sufrimendu eta entrega hau emakumeei egokitu izan zaie. Beraz, amaitzeko, Mari Luz Estebanek egiten duen hausnarketa batekin aurrera egitea dagokigula uste dut:

*“Beraz, ezinbesteko dirudi agerian uztea batetik, emozioen eta maitasunaren artean ematen den elkartze hori; eta bestetik, eta emakumeei zaintza lanak egotea gizonak baino izaki emozionalagoak direla kontsideratzen delako. Zaintzarik onena sentimenduen bidez eskainitakoa dela pentsatzen da gure gizartean (ondorioz, familiar baten zaintza) emakumeak afektuen zaindari bezala definituak dira beraz, logikoa da haiek izatea zaindariak. Herritarren zati baten menpekotasuna justifikatu baino egiten ez duen ondorio bat da.”*⁵⁵ (Esteban, 2011: 70)

3.2. Kartzelaren eraginak harremanetan

Arestian aipatu bezala, ez da oso ohikoa kartzelaren inguruko ikerketetan, egoera honek, afektiboki eta sexualki duen ondorioez jardutea, baina are gutxiago kartzelaratuak diren pertsonen inguruan daudenek pairatzen duten eraginaren berri ematea. Hala ere, honen inguruan lan egin izan duenik badago, eta haien lanak oinarritzat hartuko ditut jarraian. Hain zuzen, *Observatori Del Sistema Penal I Els Drets Humans* (hemendik aurrera

⁵⁴ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Cualquier otra búsqueda es reprobada, como se reprueba también la infelicidad conyugal y maternal. La infelicidad femenina es considerada producto de la incapacidad personal de la mujer y, consecuentemente, ella es culpabilizada por se infeliz.”

⁵⁵ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Por tanto, parece fundamental desenmascarar esa asociación que se establece entre emociones y amor, por un lado, y asignación a las mujeres del trabajo de cuidar, basada en el hecho de que sean consideradas seres emocionales en mayor medida que los hombres por el otro. Si el mejor cuidado, se piensa en nuestra sociedad, es el mediado por los sentimientos (luego, en consecuencia el de un familiar), y las mujeres son definidas como las guardianas de los afectos, es lógico que sean ellas las que cuiden. Una consecuencia que, en definitiva, no hace más que justificar la subordinación para una parte de la población.”

OSPDH) eta *Zubiko* elkarten bi lanetan zentratuko naiz batez ere. Ez da harritzekoa elkarte hauek honelako lanak argitaratzen lehenetarikoak izan izana. Lehena Bartzelonako Unibertsitatearen teilatupean ikerlari ugari biltzen dituen erakundea da eta kritikotasun handiarekin Kataluniako eta Espainiar estatuko kartzelen eta kartzela sistemaren analisia bultzatzen du⁵⁶, hain zuzen, aurretiaz egin zuten informe batean ohartu ziren, kartzelaratzearen ondorioak ez dituela soilik pertsona presoak bizi, eta zigorrak preso dagoen pertsonaren familiarengan ondorioak dituela ohartarazi zuten. Ondorio hauek askotan “larriak” zirela gaineratzen dute (2005: 7). Horregatik erabaki zuten jarraian erabiliko dudak ikerketa egitea. Zubikorena⁵⁷, presoekin eta haien senitartekoekin Bizkaian lan egiten duen elkarte da, eta haien egunerokotasunean antzeman zituzten hutsune eta galderari erantzuteko urte luzeetako lanaren emaitza da erabiliko dudak liburua: *Prisión y género* (Arostegi et al., 2008). Hasiara batean preso gizonen bikotekide emakumeak aztertu zituzten, espetxeko harremanaren bizipenak nolakoak ziren aztertzeko. Ondorioak ikusita, preso zeuden gizonen inguruko hausnarketa egitea ere beharrezkoa zela pentsatu, eta hau ere egin zuten. Lana guztiz biribiltzeko, emakume presoek harremanak nola bizi zituzten aztertu zuten azkenik. Beraz, bi elkarte hauek, kartzelarekin eta haren ingurune hurbilenarekin kontzientzia eta kezka agertzen dute, eta honek bultzatu ditu hain ahaztuak diren kartzelaren “albo kalteak” aztertzeraz.

Gainera, aurretiaz aipatu dugun moduan, familiaren barruan ere lan banaketa eta hierarkizazioak ematen dira, eta beraz, pertsona bat preso egoteak, modu ezberdinean eta eginkizun ezberdinekin beteko ditu “kanpoan” dauden familia kideak. OSPDHk haren ikerlanean dioen bezala:

“Familia” kontzeptuak egitura sozialaren errealitatea ezkutatu du. Egitura honek sexuaren bidezko lan banaketa eta zaintza eta erreprodukzio lanak emakumezkoiei egoztean oinarritzen da. Gizon eta emakumeen arteko lan banaketa honek familietan ematen diren zaintza lan gehienak oraindik soilik emakumezkoek egiten dituztela ezkutatu du”⁵⁸. (Ibidem: 10)

⁵⁶ Informazio gehiagorako: <http://www.ub.edu/ospdh/cast/observatori.htm>

⁵⁷ Informazioa honako orrialdetik atera dut: <http://www.zubia.org/index.asp> [Azken kontsulta 2013ko Abuztuaren 11]

⁵⁸ Itzulpena nirena da. Originalak honela dio: “*el concepto “familia” ha invisibilizado la realidad de las estructuras sociales, que están marcadas por la división sexual del trabajo y la atribución a las mujeres de las tareas de cuidado y reproducción. Esta división del trabajo entre hombres y mujeres ha escondido de esta manera que gran parte de las tareas de cuidado que se realizan en las familias son todavía desarrolladas exclusivamente por mujeres.*”

Beti bezala, kontzeptu baten pean, kasu honetan, familiaren kontzeptupean, eginkizun eta rol ezberdinak bildu izan dira, garrantzizkoak kontsideratzen ez ziren horiek desagerraraziz. Beraz, ez da berdina izango kartzelaren ondorioa eta honek eragingo duen lana *kanpoan* dagoen familiako kidea emakume bada edo ez, eta ez da berdina izango ondorioa (eta jasoko duen laguntza-zaintza) presoaren gizona bada edo ez.

Ondorio eta egoera hauez guztiez mintzatuko naiz jarraian, OSPDHk berak haren ikerlanean erabiltzen duen banaketa aintzat hartuz. Hain zuzen, arazo komunikatiboak (bere kasuan arazo juridiko eta espetxeko arazoak izendatzen duena); arazo ekonomikoak; osasun arazo eta batez ere arazo psikologikoen eta arazo soziofamiliarrez arituko gara.

3.2.1. Arazo komunikatiboak

Batez ere, presondegiko-erregimenak eragindako (in)komunikazioak jardungo naiz jarraian. Presoek eta haien senitartekoen komunikatzeko dituzten tresnak aztertuko ditut.

Ahozko komunikazio arruntak

Presoaren (eta ondorioz haien senitarteko eta lagunaren) komunikatzeko eskubidea, astean gutxienez 20 minutuko bi bisitetan datza (kartzela gehienetan bisita batean batzeko aukera ematen dute, gutxienez 40 minutuko bisitak lortuz) (Salhaketa, 2011: 111). Aurretiaz, kanpotik bisitara doazenek, kartzelarainoko bidaiak egin behar izaten dituzte, eta kartzelan bertan, erregistro ezberdinak pasatu behar izaten dituzte azkenik lagun edo senitartekoarekin kristal bat tartean dutela komunikatu ahal izateko. Azken urteetan Kartzelako Erregimenean egindako aldaketek, gehienez 4 pertsonako taldeetan sartu ahal izatea legeztatu dute, tartean joan daitezkeen haurrak ere kontuan hartuz zenbatze horretan.

Ordua eta asteko eguna zehazterako garaian, ez da bisitara doazenen beharretatik abiatzen (OSPDH, 2005: 26), normalean, presoaren moduluari ezartzen zaion ordutegiaren arabera antolatuko da bisita.

Komunikazio hauek “lokutorio” batzuetan egiten dira, hau da, itxita edo erdi itxita dauden gelatxo “indibidualetan”. Askotan inguruko zarata, bisitatzeraren doanaren

ahotsa baina gehiago entzuten dela salatzen dute bisitetara doazenek, eta gela hauen egoera “tamalgarria” edo “iraingarria” dela (Ibidem: 26).

Aurrez aurreko familiarrak (Vis a vis familiarrak)

Normalean, familia bakoitzak haren gela “pribatua” izateko aukera du aurrez aurreko hauetan, non preso dagoen pertsonak, eta familiako kideek elkarrekin egoteko aukera duten inolako oztopo materialik gabe. Hala ere, gela hauek duten pribatutasun eskasa azpimarratzen da, kristal batetatik espetxeko funtzionarioek gela barruan zer gertatzen den ikusteko aukera baitute (Ibidem: 28). Honela, senitarteko askok, haiek ere preso daudela sentitzen dute aurrez aurreko horietan.

Bisita hauetan, familia gertukoena soilik sartu daiteke, gurasoak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak (kartzelaren arabera), seme alabak eta bikotea (izatezko bikoteak behar dute izan gutxienez bikote bezala kontsideratuak izan daitezen kartzela askotan). Ikusi daitekeen moduan, familiaren irakurketa zurruna egiten du kartzelak, eta ez presoaren, edo haren gertukoaren beharrena.

Bisita hauetara doazenak, batez ere emakumezkoak izaten dira.

“Kulturalki emakumeei egotzitako genero rol bat bada, espetxeratutako pertsonaren laguntza, zaintza eta babesari dagokiona. Emakumeak dira (amak, bikoteak edo alabak) bisitez arduratzen direnak, itxaronaldiak jasaten dituztenak eta familia eta presoaren arteko lotura mantentzen dutenak.”⁵⁹ (De Miguel, 2008: 9).

Aurrez aurreko intimoak⁶⁰ (Vis a vis intimoak)

Aurrez aurreko hauek, presoak (eta haren bikoteak) erlazio sexualak izan ditzan daude prestatuak. Ohe bat duen gela itxi batean burutzen dira. Aurrez aurreko familiarrak bezala hilean behin burutu daitezke (nahiz eta batzuetan bat baino gehiago egiteko aukera izan, portaera onagatik, kartzela barruan lan egiteagatik, ...).

Aurrez aurreko hauek eduki ahal izateko, gaur egunean kartzela gehienek izatezko bikote paperak edukitzea eskatzen dute, nahiz eta batzuek, paper hauek izan arren sei hilabeteko itxaronaldira derrigortzen dituzten presoak eta haien bikoteak.

⁵⁹ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Existe un marcado rol de género en relación al acompañamiento, el cuidado y el apoyo a la persona encarcelada, culturalmente asignado a las mujeres. Son las mujeres (madres, parejas o hijas) las que se hacen cargo de las visitas, aguantan las esperas y perpetúan los nexos afectivos preso/a y la familia.”

⁶⁰ Intimoa euskarazko hitza ez bada ere, itzulpenean egokia den hitzik ez dut topatu, hain zuen “goxo, lasai, gustukoan” zioen Elhuyar hiztegiak. Batzuentzako toki horrek sentimendu horiek eragin baditzaie ere, beste askorentzat “arrotzak, hotzak eta zikinak” (Almeda, 2003: 106) dira gela hauek.

Erlazio intimu edo/eta sexual hauek “egokiak”⁶¹ izan daitezzen arazo asko izaten dituzte bikoteek, denbora faltagatik; denboraren kontrol zorrotzagatik eta honen amaieran megafoniaz abisua emateagatik; aurrez aurrekoaren aukeraketa modu librean ez egiteagatik, eta beraz gogoia dagoenean baino, ezarri den egunean eta orduan elkartu behar izateagatik; intimitate faltaren sentsazioagatik, besteek (funtzionarioek, beste presoek, lagunek, senideek...) aurrez aurrekoan burutuko den ekintza sexualaren berri baitute; eta kontaktu intimoa burutzeko ingurune baldintza eskasengatik (OSPDH, 2005: 30). Honek, zailtasun ugari sortzen ditu eta bisita hauek ez burutzeraino eraman ditu zenbait pertsona:

*“Te ponen unas sábanas de papel que son de usar y tirar y tenemos cierta intimidad, las sesiones duran dos horas. Pero yo por eso me siento mal, no porque no tenga ganas, es que sólo el hecho de estar allí con tu pareja que no quiere decir que vayas a hacer el amor, es que es algo tan frío, forzado. Es el simple hecho de tener que echar una instancia para estar con mi pareja, no me gusta, después te devuelven una carta que dice pues tal día, tal fecha, tal hora a usted le toca follar. La verdad es un poco frío, luego llegas allí y tienen que pensar que como no te enganche no te va a dar tiempo a nada, es triste. (...) nosotras mismas ponemos de nuestra parte y lo hacemos mucho más fuerte de lo que es. ¿Tú sabes lo que es montar en un furgón a treinta personas?, que la que no va pintadita va con su minifalda y tal, que nos pasean por media Modelo diciendo “¡Ala! ¡Aquí tenéis!, esposadas todas de dos en dos” y los tíos “¡Ala, a pasarlo bien! ¡Aquí tenéis la mercancía!”. No sé, es algo tan denigrante, (...) Antes de que se rompiera nuestra relación, yo dejé de ir por esos motivos. Él me decía, pero, cariño, ¿Cómo te vas a sentir sucia? Si no vienes a acostarte con nadie desconocido, es con tu pareja. Pero yo me sentía tan mal, tan sucia, no sé. Muy mal, y esto ya te digo que perjudica mucho una relación sentimental.”*⁶² (Almeda, 2003: 106)

Vis a vis hauek, modu ezberdinean garatuko dira presoak gizona edo emakume denean:

*“Beraz, emakumezko presoek oso aukera gutxi dituzte haien bikoteen bisitak espetxean edukitzeko eta duten erlazio afektiboko loturak mantentzeko bikotea ere espetxean badago. Emakumea espetxeratua dagoen bakarra bada ia beti kontaktua galtzen bukatzen eta harremana galtzen da. Kontrako kasua ematen da gizonezko presoengan, normalean maiztasunez jasotzen dituzte haien emazteen bisitak, hauek preso egon ala ez. Emakumezkoa preso ez badago, oraindik bisita gehiago jasoko dituzte.”*⁶³ (Almeda, 2003: 107)

⁶¹ Gaztelerazko *satisfactorio*-ren itzulpena.

⁶² Ahapaldi hau ez itzultzea erabaki dut, autoreak berak hizkuntza originalean gordetzeko autua egin baitzuen, eta presoaren beraren hizkuntza delako.

⁶³ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Definitivamente, las mujeres presas tienen muy pocas probabilidades de que su pareja las visite en la cárcel y pueda mantener aún los vínculos de la relación afectiva cuando la pareja también está encarcelada. Si sólo está encarcelada la mujer casi siempre se acaba perdiendo el contacto y rompiéndose la relación. O sea que en ambos casos la relación de pareja se acaba perdiendo. Caso contrario pasa con los hombres presos que, por regla general, reciben regularmente visitas de sus mujeres, estén o no encarceladas. Más aún, si la mujer no está presa, todavía tienen muchas más.”

De Miguelek Langraizeko espetxean egindako etnografian ondorio berdinak atera zituen. Haren lana burutzerakoan espetxean zeuden emakumeen kasuan, gehiengoa abandonatua izan zen kartzelara sartzerakoan (2009: 15). Beraz, aurrez aurreko hauen jasotzaileak orokorrean gizonezkoak izaten direla ondoriozta dezakegu. Gizonezkoen bikoteek, egoera “gogor” hauetan erlazioa uztea, “traiziotzat” ikusten dute (Ibidem: 15), Zubiko elkarteak egindako lanean, nolabaiteko “arau”, “akordio moral” edo “paktu ez ahozko” baten existentziaz hitz egiten dute, non ez den etikotzat jotzen emakumeek preso sartu berri den haien bikotekidea uztea (Arostegi et al., 2008: 77).

Vis a vis hauek, bikotearekin aurrez aurre egoteko aukera luzeena izanik, norberaren egoera pertsonalez eta haien sentimendu eta bizipenez hitz egiteko aukerarik “aproposena” izan daitezkeela pentsatu daiteke, baina bisitan doazen emakumeentzako bestea “animatzeko” espazio bilakatzen da batez ere. “Haiek, kartzelaratuaren egoera haiena baino askoz gogorragoa den esperientzian oinarritzen dela uste dute, beraz, ez dute egokitzen jotzen haien arazoekin edo eguneroko zailtasunekin bikotea kargatzea”⁶⁴ (Ibidem: 78). Aldiz, emakumea preso dagoena denean, kontrako pentsamoldea daukate, hau da, kasu honetan, kanpoan dagoena haiek baino okerrago pasatzen egongo dela sentitzen dute (Ibidem: 108) eta bikotekideek haiek gabe zein gaizki pasatzen ari diren ikustarazten diete etengabe (Ibidem: 108).

Konbibentziazko bisitak

Seme alabak dituzten presoentzat eta haien bikoteentzat denak elkarrekin egon ahal izateko bisitak hiru ordu (bataz beste) ingurukoak dira. Aurrez aurreko familiarrak bezalakoak dira, baina hauek hiru hilean behin (kartzelaren arabera hile gehiago edo gutxiago pasako da bisita baten eta bestearen artean) egiten dira.

Komunikazio idatzia (Gutunak)

Normalean idazteko eta jasotzeko limiterik ez dago. Normalean ere, gutun hauek erabat pribatuak izaten dira, nahiz eta zenbait kartzeletan bertan idatzitakoarengatik funtzionarioek zigortu edo mehatxatu dituzten presoak.

“Gutunen kontrolak ez dio erantzun behar edukiaren zuzeneko zentsura bati, teorian espetxeratzeak, aginte judizial batek ezarritako askatasunaren mugapena baita soilik,

⁶⁴ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “ellas entienden la situación de encarcelamiento como una experiencia muchísimo más dura que la que ellas viven, por lo que no consideran oportuno cargar a sus parejas (...) con las dificultades que ellas padecen día a día.”

ez beste hainbat eskubideren mugapena; hala nola komunikazioak sekretuak izateko eskubidea eta presoaren zein familiarren adierazpen askatasuna.”⁶⁵ (OSPDH, 2005: 32)

“Estos controles en la correspondencia no tienen que responder a ningún tipo de censura respecto al contenido lícito de la misma, ya que, teóricamente, la entrada a la cárcel supone, sólo, la supresión de la libertad por un mandato judicial, pero no la supresión de otros derechos fundamentales, como pueden ser el derecho al secreto en las comunicaciones y el derecho a la libertad de expresión del preso/a y del familiar” (OSPDH, 2005: 32).

Komunikazio telefonikoak

Astean 5 eta 10 dei artean izaten dituzte presoek, bost minutukoa bakoitza. Dei hauek soilik kartzelan dagoenak egin ditzake eta hauen kostua bere gain hartzen du, beraz, diru arazoak dituzten pertsonen ezinezkoa egingo zaie zerbitzu hau erabiltzea. Kartzeletako deien prezioa kanpokoa baina garestiagoa dela salatu izan dute hainbat kolektibok (Salhaketa, 2011: 111).

Zerbitzu honen aldebakartasuna arazo bilakatzen da senitartekoentzat. Alde batetik urgentziazko gertakizunen bat ezin baitzaio komunikatu preso dagoenari (hark noiz deitu zain egon behar dute horrelako kasuetan) (OSPDH: 2005: 33) eta bestalde mugikorraren edo telefonoaren dependentzia handia bilakatzen delako, presoak ere ordu konkretu batzuetan soilik dei dezakeelako.

Komunikatzeko modu guzti hauek erabiliak dira preso dauden pertsonen eta haien bikoteen aldetik (Bikotea daukatenean. Ideia hau berriro errepikatzen dut, ez ahazteko, bikotea ez duten emakume ugari daudela, eta beraz, vis a vis intimoen gain, beste zenbait bisita ere ez dituztelako. Batzuetan “kanpoarekin” inolako loturarik gabe geratzen dira emakume asko). Kanpoan dagoenak ere gustura erabili ohi dituzte baliabide guzti hauek, nahiz eta askorentzat zaila izan daitekeen kartzelaraino hurbiltzea (gida baimenik ez dutelako, autobus konexio txarrak daudelako...). Hala ere, preso eta senitarteko ugari “erlazio on bat eta haien bikoteekin komunikazio on bat izateko espazio hauek nahikoak ez direla salatzen dute” (Arostegi et al., 2008: 92; Cruels et al., 2005: 83).

⁶⁵ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: *“Estos controles en la correspondencia no tienen que responder a ningún tipo de censura respecto al contenido lícito de la misma, ya que, teóricamente, la entrada a la cárcel supone, sólo, la supresión de la libertad por un mandato judicial, pero no la supresión de otros derechos fundamentales, como pueden ser el derecho al secreto en las comunicaciones y el derecho a la libertad de expresión del preso/a y del familiar”*

Hala eta guztiz ere, preso dauden gizonen gehiengoak haien bikoteekin duten komunikazioa “ontzat” jotzen dute (Arostegi et al., 2008: 93), ez dugu ahaztu behar, emakume bikotekidea, komunikatzeko dituen aukera guztietara joango dela. Bikotekide gizonen kasuan, asteroko bisitak eta hileroko aurrez aurreko guztiak ez dituzte egiten orokorrean. Hala ere, emakumezkoentzat, nahiko da gizonen egiten dutena,

“Emakumeek, uste dute eta honela adierazten dute, bisitatuak izate hutsagatik, egoera horietan izan arren, edo telefonoz bikotekideekin nolabaiteko maiztasunaz hitz egiteagatik edo diru kopuru bat jasotzeagatik, haien bikoteak beraiekin daudela sentitzen dute, haietaz arduratzen direla.”⁶⁶ (Ibidem: 104)

3.2.2. Arazo ekonomikoak

Kartzelaratzeko garaian familiaren egoera ekonomikoak okerrera egingo du lau faktorerengatik batez ere: defentsa juridikoa ordaindu behar izateagatik, kartzelara egin beharreko bidaiengatik, pertsona presoaren mantenuagatik (*pekulioa* eta paketeak) eta pertsona presoak preso egon aurretik familiaren ekonomiara egiten zuen ekarpena galtzen delako (OSPDH, 2005: 62).

Kanpotik laguntza materiala eskaintzen duen inor ez egoteak kartzelan “Indigenteak” bezala ezagunak diren pertsonen sorrera dakar (Ibidem: 62). Pertsona hauek egoera oso larrian bizi dira, laguntza minimoa jasotzen ez dutelako. Egoera honetan, batez ere, pertsona kanpotarrak (haien oinarri sozial edo familiarra jatorrizko herrian daukatenak) edo emakumeak egongo dira (Ibidem: 62).

Hala ere, orokorrean, presoek kanpotik laguntzak jasoko dituzte (handiagoak edo txikiagoak). Hauek, askotan, familiaren ekonomian eragin negatibo handia izango dute, daukaten apurra presoari eman, eta haientzako gutxiago izango dutelako.

“Nahiz eta familia askok zailtasun material eta ekonomiko handiak izan, ia gehienek erregularri eta sistematikoki pekulioan⁶⁷ dirua sartzen dietela ikusi dugu. Bataz beste 120 eta 240 euro bitarteko diru sartzeak egiten dituzte eta hau, karga ekonomiko gehigarria bilakatzen da, askotan aurre egiteko zaila dena.”⁶⁸ (Ibidem: 66)

⁶⁶ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “*Ellas consideran y verbalizan que sí les apoya, por el mero hecho de ser visitadas, aunque sean en esas condiciones, o hablar telefónicamente con ellos cada cierto tiempo o percibir una cantidad exigua de dinero, cuando se produce, les resulta suficiente para concluir que sus parejas están ahí ocupándose de ellas*”

⁶⁷ Pekulioa: Presoek kartzelan duten “Kontu korrantea”. Diru fisikorik erabili ezin duten arren, “kreditu txartel” baten bidez egiten dituzte erosketak.

⁶⁸ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “*Aunque muchas familias tengan importantes dificultades a nivel material y auténticas dificultades económicas, hemos constatado que casi todas ellas realizan regular y sistemáticamente ingresos de peculio que, por término medio, oscilan entre los 120 y los 240 euros al mes, lo que puede representar una carga económica difícil de asumir*”

Egoera hauek nolabaiteko diru sarrerak dituzten familietan ematen dira, baina badaude kasuak, non preso dagoen pertsona zen kalean etxetik kanpo diru sarreren egile “bakarra edo nagusia” eta beraz espetxeratzearekin sarrerak desagertu egiten dira. Egoera hau ez da “berezia eta uste baina familia gehiagotan ematen da” (Ibidem: 70).

3.2.3. Osasun arazoak

“Espetxe ingurua ez da pertsonen osasun fisiko eta mentala mantentzeko egokiena, horregatik, familiarentzat ardura eta ezinegonerako beste faktore bat da gaixotasunena. Normalean, familiek espetxeratutako pertsona espetxean osasuntsu sartzen dela ikusten dute, baina gaixo ateratzen dela (VIH, hepatitis, etab.). Gertaera honek inpotentzia sortzen du familietan. Inpotentzia handitu egiten da preso gaixoei bideratzen zaizkien bitartekoen urritasunaz konturatzean. Gaiaren inguruko hainbat ikerketatan egiaztatua izan da hau.”⁶⁹ (Ibidem: 88)

Osasun arazo hauek okertzen direnean, asko ugaritzen da familiaren aldetiko urduritasun eta egonezina, preso dagoen senitartekoa “babestu” ezin dutenaren sentsazioa asko indartzen da (Ibidem: 95). Gaixotasunaren inguruko informazio oso gutxi jasotzen dute, eta presoa ospitaleratu behar denean ere egoera berean jarraituko dute.

Kalean dagoen senitartekoa gaixotzen denean, preso dagoen pertsonarentzat egonezina handiagoa bilakatzen da, baina baita senitartekoarena, ezin baitu presoarekin konpartitu bere egonezina, ezin baitu bere alboan eduki, eta ezin baitu nahi haina bisitatzera joan senidea (Ibidem: 100).

3.2.4. Arazo psikologikoak

Erabat pertsonala den arazo multzo baten aurrean gaude, faktore ezberdinen arabera forma hartzen joango dena. Presoarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen faktoreak honakoak dira: kondenaren luzera, presoaren kokapena eta erregimena, kartzelako bizitzan presoak duen integrazioa, presoaren beraren izaera ... (Ibidem: 103) Familientzat ere honetaz gain beste faktore batzuek izango dute eragina: familiaren egitura, pertsona bakoitzak familian dituen rolak, erlazio motak, ... (Ibidem:103)

⁶⁹ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “El entorno penitenciario no es, evidentemente, el más adecuado para preservar la salud física y mental de las personas y, por lo tanto, supone un factor más de preocupación y angustia para los familiares. Por norma general, las familias perciben que la persona encarcelada entra sana a la cárcel y sale enferma (VIH, hepatitis, etc.). Este hecho genera una impotencia en las familias, que aumenta al percatarse de la falta de recursos destinados a la asistencia de las personas enfermas privadas de libertad, tanto dentro como a la salida de la cárcel, hecho confirmado en varios estudios sobre el tema”

Presoaren egoera familiarekiko

Presoarentzat, familiarekiko duen galera handienetako bat berak kartzelaratu aurretik zuen “rola galtzea” izango da (Ibidem: 105). Kasu honek garrantzi berezia hartzen du ama diren presoentzat. Lehen atalean aipatu dugun moduan, haien rolaren barruan haien izaera eraikitzen zuen zaintzaren papera galdu egiten dute, eta honengatik gainera, zigortuak izaten dira ere (Cruells et al., 2005: 41). Gainera, familiarekin aurretiaz zuen kontaktu etengabe hori moztu egiten da, askotan emakumeentzat egoera zailtzen delarik, oso ohikoa baita emakume presoaren bikoteak hau uztea kartzelara sartu bezain laster. Aurreko puntuan aipatu dudan moduan ere kartzelak, emakume hauek duten sententzia indartu egiten du, “ama txar” direla behin eta berriz errepikatuz (OSPDH,2005: 105). Horretarako,

“Gurasoentzako heziketa, auto-kontrola, garapen morala... bezalako ikastaroak antolatzen dituzte (Wad Ras kartzelako tailerrak dira, adibide moduan balio dutenak). Hau ez da gizonekin gertatzen, haientzako profesionalizaziorako tailerrak zuzentzen baitituzte batez ere. Horretaz gain, gehiegizko medikalizazio batetara bultzatzen dituzte emakumeak. Horrela, emakume preso batentzako kartzelak eskaintzen dituen aterabidea rol femeninoaren “bide ona” zein den irakastea datza: etxekoa, eremu pribatura mugatua; eta haren rol familiarra garatzeko izan duen kapazitate eskasa aurpegiatzen diote”⁷⁰ (Ibidem: 105).

Honek, emakume presoek dituzten erruduntasun sententziak zergatik ematen diren ulertzera eraman gaitzakete (Arostegi et al., 2008: 69). Orokorrean amatasun lanetan emakume preso hauen amak laguntzen diete. Preso ugari, haien amen laguntza aipatu izan dute seme-alaben zaintzarekin aurrera egin ahal izateko (Ibidem: 68).

Gizonezkoen kasuan ordea, orokorrean, ez da seme-alaben zaintza kezka moduan bizitzen, erabat ohikoa baita bikotekidea umeei geratzea. Gainera, gizonezko hauek orokorrean “ez dute inolako kezkarik erakusten haien bikotekideek seme-alaben zaintza aurrera nola ateratzen duten jakiteko” (ibidem: 57).

Presoen babes moduan, aurretiaz aipatu ditugun komunikazio tresnak erabiliak izatea oso garrantzitsua da, eta ikerketek erakusten dute, orokorrean, hauen erabilera femenino bat egiten dela. Hau da, ama, ahizpa, bikotekide emakume... gehiago joaten dira bisitetara (OSPDH, 2005: 106). Beraz, gizonezko presoak emakume presoak baino bisita gehiago/ babes gehiago izango du (bikotekideen babesa ez izatean, gizonezkoak

⁷⁰ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Así, las soluciones de la administración penitenciaria ofrece a una mujer con carga familiar pasan por enseñarle el “buen camino” del rol femenino, doméstico, limitado al ámbito privado, recriminándole su poca capacidad para desarrollar tal rol familiar.”

duen babes sarearen zutabe handiena galtzen duelako) eta hau erabat ikusgarria da seme/alabek egiten dituzten bisita kopuruetan. Bikotekide emakumeak ahal duen guztietan eramango ditu haurrak aita ikus dezaten, baina emakumezkoen kasuan, asko jaitsiko da babes hau, esan bezala, bikotekide gizonak zaintza lana alde batera utziko dutelako (Ibidem: 106).

Askotan, haien bikotekidea kartzelan duten emakumeen kasuan, “bikotekideaz haratago” emakume hauek, ama papera hartzen zutela ikusi izan dute profesional eta ikerlari ugari (Arostegi, 2008: 78). Ama-neskalagun⁷¹ terminoa erabiltzen dute emakume hauen inguruan hitz egiteko. Gizonezko presoek, noski, haien bikotekideengatik erabat babestuak daudela sentitzen dute eta haientzako egonkortasun emozionalerako laguntza handia direla aipatzen dute (Ibidem: 93). Emakume presoek kasuan, behin eta berriz errepikatu dudan moduan, haien babes emozionalerako garrantzitsua izan daitekeen bikotekidearen figura askotan galdu egiten dutenez, orokorrean, ez dituzte haien behar emozionalak asetuta sentitzen, eta beraz, “ulertzekoa” da, beste emakumezko presoek laguntasunean bilatzea babes hori (Ibidem: 120).

Interesgarria da, erlazio hauetan, babes emozionala topatzeaz gain, eztabaidarako eta kontzientzia indartzeko espazioa topatzen dutela azpimarratzea.

“El entorno penitenciario no es, evidentemente, el más adecuado para preservar la salud física y mental de las personas y, por lo tanto, supone un factor más de preocupación y angustia para los familiares. Por norma general, las familias perciben que la persona encarcelada entra sana a la cárcel y sale enferma (VIH, hepatitis, etc.). Este hecho genera una impotencia en las familias, que aumenta al percatarse de la falta de recursos destinados a la asistencia de las personas enfermas privadas de libertad, tanto dentro como a la salida de la cárcel, hecho confirmado en varios estudios sobre el tema”⁷² (Almeda, 2003: 109)

Emakumezko presoek “maitasun erromantikoa” mitoaren apurketa bat izan dutela esateraino iritsi dira Zubiko elkarteko ikerlariak (Arostegi et al, 2008: 197). Sufritutako abandonuak, haien buruaz eta erlazioez hausnartzera daramatzala adierazten dute.

⁷¹ Madres-novias terminoa erabiltzen dute gaztelaniaz.

⁷² Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “A partir del encarcelamiento y del contacto con otras mujeres presas, muchas de ellas han tomado “conciencia” de su situación de pareja. En la cárcel han tenido tiempo de reflexionar y discutir sobre sus relaciones con los hombres y, por esto, muchas comentan que el tiempo de estancia en la prisión les ha servido no tan sólo para conocerse mejor a sí mismas, sino también para darse cuenta del tipo de pareja que han tenido. (...) el encarcelamiento es el único período en la vida de muchas de estas mujeres en que los maridos, compañeros o padres no están presentes y, por ello, pueden reflexionar solas y por primera vez como mujeres, y también con otras mujeres, sobre las relaciones que han mantenido con los hombres en general.”

Familiaren errealitatearen irudikapena

Jarraian zerrendatuko ditudan hiru arlotan nahasteak ematen direla aipatzen dute OSPDHk egindako ikerketan: gehiegizko kezka ematen dela; gehiegizko babesa ematen dela eta itxaropenak neurritz kanpo baloratzen direla azpimarratzen dute hain zuzen.

- Gehiegizko kezka

Familiako kide presoak bizitzen dituen “injustizien” aurrean geratzen den inpunitateak “frustrazio, desesperazio eta larritasun handia” eragiten die senitartekoei, haien egunerokotasunean honek etengabeko presentzia hartzen duelarik kasu askotan (OSPDH, 2005: 120). Gehiegizko kezka honek, presoak eta haren egoera etengabe buruan edukitzera darama kanpoan dagoen familiarra, eta askotan zama hau bikotekidearengan edo/eta amarengan erortzen da.

Kasu batzuetan, egoera honek, “niaren gabezia” eragin izan du emakume bikotekidearengan “Harremanekiko mendekotasunaren”⁷³ zantzu asko topatuz haien egoeretan (Arostegi et al. 2008, 16).

- Gehiegizko babesa

Familia ugariak presoak gehiegi babestea bilatzen dute, batzuek, (vis intimoetan ematen zen kezken elkartruke eskasean ikusten genuen bezala), hau kezkatu dezaketen inolako informazio ez emateraino (OSPDH, 2005: 121). Kasu hauetan ere, kanpoan dauden emakumeak kezka hauen zama bikoitza eramatera derrigortuak ikusten dira. Haien kezkak edo arazoak konpontzeaz gain, haien bikotekideenak ere konpontzera jotzen baitute. Haien bikotekide kartzelaratuak konpondu beharko lituzketen arazoak haien gain hartzen dituzte, eta beraz, presoak “pasibotasun eroso batean axolagabekeria egotera daramatza, bikotekide emakumeek ardura guztien karga hartzen duten bitartean (kanpokoak zein kartzelakoak bertakoak)” (Arostegi et al., 2008: 17).

Noski, gehiegizko babes hau, gizonezko presoengana bideratzen da soilik. Emakumezko presoek gehiegizkoa baino, babes eskasegia jasotzen dute (Ibidem: 17).

⁷³ Gaztelaniazko “dependencia relacional” termino psikologikoaren itzulpen propioa. Mendekotasun honen inguruan asko lan egin izan du Carles Sirvent psikiatrak eta honela definituko luke egoera hau: harremanen inguruko patologiak dira, non besteak beste, bikotearen kideetako baten autonomiaren galera gehiegizko bat ematen den eta ez duen inolako esfortzurik egiten hau berreskuratzeko. Dependentsia harreman honetara oso ondo moldatzen da kideetako bat, eta ez da gehiegi saiatuko iniziatiba propioak edo autonomia irabaztea eskatuko edo proposatuko zaionean. (Arostegi et al., 2008: 88)

- Gehiegizko itxaropenak

Kartzelaratzea amaitzean egoera guztiei aurre egitea “askoz errazagoa” izango dela pentsatzen da gehiegitan, bai senideen zein presoek aldetik. Behin kaleratzearekin dena konponduko dela uste dute askok eta askok. Baina birgizarteratzeak dituen zailtasunak kontuan ez hartzeak gatazka ugari sortu ditzake ere gerora (OSPDH, 2005: 122).

Momentu hauetan gertatzen da harreman askoren amaiera. Espetxeratze garaian bikotekide emakumeak zaintza lanak eta maitasun lanak bete izan ditu, askotan “esfortzu, neke eta zailtasun askoren batuketarekin” eta honek azkenean, harremana okertzen du eta presoak espetxetik ateratzen hasten denean (baimenekin edo definitiboki) harreman askoren amaiera gertatu ohi da (Arostegi et al., 2008: 77). Preso zegoena jada ez egoteak, hasiera batean sortzen zuen “betebehar moral” horren amaiera dakar, eta hau ere harremana amaitzeko gakoaren artean egon daiteke.

Esan bezala, gehiegizko itxaropen hauek guztiak garatzen dituzte. Emakume presoek kasuan ere, egoera hau ematen dela ikusi ahal izan zuten *Zubiko*-ko kideek (Ibidem, 121).

Afektibitatea eta sexualitatea

Kartzelako egunerokotasunak presoaren izaeran eragina duela ezin da ukatu, eta hau arinago edo beranduago, baina haren harremantzeko eran sumatuko da (OSPDH, 2005: 130). Bisitetan, aldaketa hauek apurketa afektiboak ematen dituztela adierazi izan dute autore ugariak (Goffman, 1998; OSPDH, 2005; Arostegi et al., 2008).

Gainera, apurketa hauek handiagoak bilakatzen dira bikotekideen kasuan, hauek, kartzelako egoerari aurre egin ahal izateko “momentu onen oroitzapenei” (Arostegi et al., 2008: 79) heltzen baitiote, iraganari, eta presoaren aldaketak oroitzapen hauek guztiak suntsitu ditzakete, harremana mantentzeko helduleku gehiegirik gabe utziz bikotekidea.

Afektiboki, preso dagoenaren bikotekide emakumeak, behar duen bakarra, kasu askotan, “haren bikotekidea alboan izatea da”, (Ibidem: 79) aipatu dugun harremanekiko dependentzia hori agerian utziz baieztapen horrekin.

Preso dagoen emakumearen kasua bereziki azpimarragarria da eremu honetan. Autore ezberdinek haien ikerketen bidez ikusi ahal izan dute (Almeda, 2003; Cruells et al.,

2005; De Miguel, 2012; Arostegi et al. 2008) emakume hauen kopuru altu batek, espetxeratu aurretik tratatu txarrak pairatu izan dituela haren bikotekide zein gurasoen eskutik. Harremanean tratatu txarrak pairatu ez dituenak ere, harreman gatazkatsuak bizitu behar izan ditu, drogaren kontsumoarekin oso lotua izan dena. Kartzelan ere, haren isla du honek, *Zubiko* elkarteak ikertutako emakume presoek %55ak bikotekidea kartzelan izan baitu, eta gizon presoek %5ak besterik ez baitu izan bikotea kartzelan. “Datu honek emakumezkoek harreman berriak (eta dauden espiroletik ateratzeko kapazak izango direnak) hasteko garaian arazo gehiago dituztela errepikatzen du”⁷⁴ (Arostegi et al., 2008: 206).

Sexualitatean ere nahasmen ugari ematen dira. “Kasurik onenean planifikatua eta gogorki baldintzatua egotera pasatzen da” (OSPDH, 2005: 132) aurretiaz ikusi dugun moduan.

Emakumeek (presoek zein bikotekide ez presoek) ez dute lehentasun moduan ikusten, ez diote garrantzirik ematen eta kasu batzuetan sexua errefusatzera heldu dira batzuk (Arostegi et al. 2008: 204). Autoreek autodefentsatzat daukate erantzun hau, emakumeak ikusgai jarrita dagoela sentitzean emozio negatiboak sortzen baititu sexuarekiko.

Honetaz gain, presondegiek gorputzekiko inposatzen duten kontrol zorrotzeak eragin negatiboak ditu. Intimitatearen erabateko galerak (Cruells et al. 2005: 40) masturbaziorako edo norbere gorputzarekiko elkargune momentuak ukatzen ditu.

Gizonezkoek, orokorrean, sexualitatearen arautze eta planifikazio honetara nahiko ondo moldatzen direla ikusi ahal izan dute *Zubiko* elkarteko ikerlariek (Arostegi et al., 2008: 229). Baina emakumeen kasuan kartzelak “emakumezkoaren sexualitatea ikusezin bihurtu, ezeztatu eta ezkututzen duela” uste dute (Ibidem: 229).

3.2.5. Arazo sozio-familiarrak

“Espetxe sistemak lotura familiarren zahartze eta pobretze bat laguntzen du, eta aldi berean lagunen eta inguru sozialaren urruntasuna bultzatu. Berandu edo lehen preso dagoen pertsonak ingurune honetara bueltatu beharko du. Ondorioz, espetxeak,

⁷⁴ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “Este dato redundo en la idea de que las mujeres tienen más dificultades a la hora de iniciar nuevas relaciones, distintas a las habituales, que las haga salir de la espiral en la que se encuentran”.

*harreman interpersonal eraikitzaile eta positiboak garatzea oztopatzen du*⁷⁵.
(OSPDH, 2005: 140)

Bikote harremanean sor daitezkeen arazoak

Bikote harreman batek modu *egoki* batean garatzeko dituen zailtasunak behin eta berriz errepikatu ditugu: komunikaziorako espazio eta momentu eskasak, afektiboki elikatzeko aukera apurrak, aurrez aurrekoen kontrol zorrotza ... honek guztiak harremanak aurrera ateratzeko zailtasunak besterik ez ditu ekartzen, eta “ez da harritzekoa bikote harreman ugarik egoera honetan jarraitu ezin izatea eta harremana uztea” (ibidem: 145). Gizonezko espetxeratuen kasuan, egoera hau “aurreikusiz”, batzuek haien bikotea uzteko erabakia hartzen dute kartzelara sartzean (Arostegi et al. 2008: 93). Erabaki hau gizonezkoek hartzen dute, emakumearekin eztabaidatu gabe. Hari gehien komeni zaiona harremana jarraitzea den edo ez haiek erabakitzen dute, hau da, emakumezkoarentzako hoberena zer den gizonak erabakitzen du.

Azpimarratzekoa den beste ondorio bat, kalean dagoen emakumezkoaren egunerokotasunaren errotiko aldaketa da. Espetxeko egutegira egokitzeaz gain, haren egunerokotasuna, haien lagun harremanak eta bizitza soziala murriztu egiten dute. Egunerokotasunak eskaintzen dizkion alde onak ere modu positiboan bizitzeari uzten diote askok ere. Hau, “maitasun erromantikoaren irudikapenarengatik egiten dute, posesioan eta mendekotasun emozionalean oinarritzen dena. Emakumeak erlazioak paper pasibo eta mendekoan bizitzeko heziak izan dira” (OSPDH, 2005: 146) eta beraz, gizonen falta dutenez, ezin dute pozik bizi, haien poztasunetik bizi behar baitute. Aurretiaz aipatu dudan moduan gainera, emakume hauen gehiengoak, gizonezkoaren egoera harena baina okerragoa dela sentitzen du, eta beraz, haien egunerokotasuna “penitentzia” moduan bizitzen dute bikotea aske izan arte. Katolizismotik jaso dugun “sufirimenduaren” eta “penaren” ikusmoldea argi eta garbi ageri zaigu hemen.

Hala ere, aipatzekoa da, emakume askok, espetxeratzearekin bizi behar izaten dituzten egoera guztiei aurre egiteko duten “indarra”. Haien artean askok, zeukaten potentzial hori ez zuten ezagutzen, eta bikotekidearen espetxeratzeak dauzkaten alde on eta

⁷⁵ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “El sistema penitenciario contribuye al empobrecimiento y deterioramiento de los vínculos familiares, y el alejamiento de las amistades y del entorno social al que, tarde o temprano, tendrá que volver la persona presa. En definitiva, la cárcel impide avanzar en el establecimiento de unas relaciones interpersonales constructivas y positivas.”

gustukoak berreskuratzea eta autoestimua indartzea ekarri izan die. (Arostegi et al., 2008: 197).

Familiaren berrantolaketa

Preso dagoen pertsonak etxearen egunerokotasunean egiten zuen lanaren birbanaketa bat egin beharko dute familiako kide ezberdinen artean. Hemen, asko sumatuko da preso dagoena emakume edo gizon den (OSPDH, 2005: 153), esan dugun moduan, gizonezkoa bada presoaz haren bikotekidea arduratuko delako, gehienetan, guztiaz. Preso dagoena emakumea denean, orokorrean, hark egiten zuen lana (batez ere seme alabak dituenen) beste emakume baten eskuetan eroriko da, normalean presoaren ama. Bikotekidea gehienetan desagertuko da.

Bikotekide emakumea, askotan, etxe barruan dituen zaintza lanez eta etxeko lanez gain, etxetik kanpo ordaindutako lanean hasi, edo lanaldi bikoitzak egiten hasiko da (Ibidem: 153).

3.2.6. Laburbilduz

Ikusi dugun moduan maitasuna garrantzitsua da presoentzat espetxeratzearen egoerari aurre egiteko, kanpoko babesa izateak lagundu egiten du espetxearen egunerokoan integratzeko, eta bertan ahalik eta hoberen bizitzeko. De Miguelek (2012) dioen moduan, “maitasuna garrantzitsua da itxialdian bizirauteko eta estigmaren ondorio kaltegarriak desegiteko”⁷⁶.

Baina ikusi dugun moduan, maitasun hau jasotzea ezberdina izango da presoaren gizona edo emakumea bada, eta maitasuna ematea ere horren arabera aldatuko da. Gizonezko presoek “gehiagizko” maitasuna eta zaintza lanak jasotzen dituzte, hauek ematen dituzten emakumeak askotan kartzelara soilik bideratzen dutelarik haien kanpoko eguneroko bizitza. Emakume presoek kasuan ordea, asko, abandonatuak izaten dira espetxeratzean, eta honek eta familian zituen rolen galerak (amatasuna batez ere) “haien autoestimua apurtzen du askotan, haien erreferentzia garrantzitsuak eta sozialki

⁷⁶ Itzulpena nire da. Originalak honela dio: “Amor importante para sobrevivir al encierro y para neutralizar los nefastos efectos del estigma.

atxikitako rol baloratuenak galtzen dituztelako: haien bikoteen emakumeak eta haien seme alaben ama izatea”⁷⁷ (OSPDH, 2005: 229).

Presoez gain, haien senitartekoei, eta batez ere bikotekide emakume eta amari eragiten die kartzelaldiak, eta “gizarteak eta estatuak, eragin negatibo hauek, presoak soilik pairatzen ez dituela onartu beharko lukete” (Arostegi et al., 2008: 166).

Gaur egun ezagutzen dugun kartzela ereduak ez luke existitu beharko, honek guztiak, zigorrean eta mendekuan oinarritutako kartzela sistema izatetik, birgizarteratzeko xedea duen sistema izatera pasatu beharko luke (Salhaketa, 2011: 113).

3.3. Maitasun harremanak EPPKn

Lan hau egiten hasteko elkarrizketa batek izandako indarra aipatu dut hasieran. Elkarrizketa hori *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalean dago jasoa, eta preso egondako gizon baten eta haren bikotearen artean ematen da. Sukaldeko mahaiaren bueltan daude biak, haien erlazioaz hitz egiten, eta bertan, lan honetan behin eta berriz aipatu ditugun elementu ugari biltzen dira minutu pare batean. Hauxe da haien arteko elkarrizketa:

- *Pelotas*: Tarteka ikusten gintunan, konpromiso handirik ez genian ez?
- *Maika*: Ez
- P: Harremana ez zuan hola... formal hoietakoa, eta poliki-poliki ba... gertau huan nerea, ez? Porque hik baekinan neria ez?
- M: Jakin jakin ez
- P: Eta ze sentitu huan, o ze.. sustua o ezustekua o...
- M: Hasten haiz negarrez, ta gaixki sentitzen haiz eta holakoa
- P: A, ze ordurako ia maitte hienan pixkat
- M: Maite, bueno maitte ez
- P: A ez, maitte ez. (Barreak) Ni enamorauta nion, asi que hi ere neurri baten egongo hintzen. Ez dakit neurri duan enamoratzeta, baina...
- M: Eta... hoixe, hasi nintzan idazten eta listo. Behar hori sentitu nian eta punto.
- P: Hire eskutitza oso bixia izan zunan... Ez zekinat, behar ninan. Gainera une horretan afektibitate toke hoiek, ba... Amaiera nola emateion maitte haut eta esaten nian “ostras! Ze ederki, maitte naute, eta...” ba idatzi egingo ziot eta aber zertan gelditzen garen ta...
- M: Eta bueno ba..
- P: Ba agian gure...
- M: Eta gero hori, ba ez dakit, ba hoixen, gure harremana hasi zan pixkat indartzen horrela ta horrela, ta gero konturatu orduko, ez dakit izan zan dexkuido bat bezala, ta ez dakit, ta haurdun gelditu nintzan, ta klaro hor bai pixka bat neretzat... klaro 27 urtekin nahiko boom izan zan, nahiko aldaketa handiya.

⁷⁷ Itzulpena nirea da. Originalak honela dio: “una quiebra en la autoestima y una desestructuración psíquica como consecuencia de la pérdida de referencias importantes y de los roles socialmente más valorados: ser mujeres de sus parejas y madres de sus hijos e hijas.”

- P: Orduan gure artekoa o nik behintzat, ez?, pixkat hori idealizauta eukiko nian, bai hi, bai hi ta Urtziren harremana hasierakua, gero bixkiyekin beste horrenbeste, ba emoziyo hoiek sentimendu hoiek barnean... beste intensidade bat diete, premiya nolakaken ta hango bortizkeria gestionatzeko kudeatzeko ba... ostras, hi sobredimentsionau iten dituk positibuak. Porque hik idealizaziok ez den..
- M: Ez
- P: Eskape bat esateana beti horra juten hitzana
- M: Ez ez. Denborik ez, klaro, goizean jaiki, umeak, aber bideratu, hartzaindegian, batzuk ikastolan, eta nik lanea, klaro nik lan egin izan den Arrasaten, Bergaran, Donostin... mugitu in ber eta ordu ba bueno, ba... hoixen bukatzen dek, gero gabian etxeko lanak, eta labadorak, eta... ordun hoixen, denborik ez hirekin amesteko, eta holako ametsak egiteko.

(Barrura begiratzeko leihoak (2012): 03:19 minututik aurrera)

Elkarrizketa hau mugarri izan zen harremanen inguruan ikertzen hasteko erabakian. Eta teorikoki landutako kontzeptu eta gai ugari bertan laburbiltzen direla sumatu ahalko dugu; kanpoan dagoen emakumearen lanaldi hirukoitza (etxea, lanbidea, senarra); senarraren afektibitate beharra; bikote (edo kasu honetan pare bat aldiz egondako bi gazte) harremana jarraitzeko erabakia gizonezkoaren kartzelaratzearekin, ...

Beraz, pentsatu dezakegu Euskal Preso Politikoen Kolektiboan ere aurretiaz aipaturiko egoera ugari errepikatu egiten direla. Ez dago inolako lanik eginda honen inguruan bereziki, baina zenbait txosten, hitzaldi eta ikerketaren bidez, hainbat ideia atera ahalko ditut jarraian.

Kolektibo konkretu honetan bereizgarriak diren bi faktore azpimarratuko ditut jarraian, harremanen garapenean eragin zuzena dutenak nire ustez: erregimen berezia (komunikazio mugatuak eta dispertsioa) eta kolektiboaren babesia.

Erregimen berezia

Erregimen bereziari dagokionez, lehen puntuan ikusi dugun moduan, dispertsioa faktore garrantzitsua da. Honek, presoak haien etxeetatik urruti egotera daramatza, eta ekonomikoki arazo handia izateaz gain, psikologikoki eta osasun aldetik ere zailtasun handiak eragin ditzake (Etxerat, 2010: 2).

	€	Km.
Preso baten familiak (bataz beste) asteroko bisitetara joateko	Astero: 377,94 € Hilero: 1.637,75 € Urtero: 19.653,00 €	Astero: 1.223,06 km Hilero: 5.299,95 km Urtero: 63.599,47 km
Orokorrean (EPPKko kide guztien bisitak kontuan hartuta) asteroko bisitetara joateko	Astero: 282.700,98 € Hilero: 1.225.037,58 € Urtero: 14.700.450,96 €	Astero: 914.854 km Hilero: 3.964.367,33 km Urtero: 47.572.408 km

(Etixerat, 2010-ko datuetan oinarrituta egindako taula)

Honetaz gain, lege antiterroristapean atxilotutako euskaldunei aplikatzen zaien FIES-3 erregimenak, komunikazioetan murriztapen zorrotzak eragiten ditu: hala nola, zenbait kartzelatan bi gutun bidali ahal izatea (zenbaitetan euskara ezin erabiltzea), 10 deiren ordeztan 8 dei izatea, komunikazio guztiak grabatuak izatea ... (Etixerat 2010). Gorago aipatu dudana moduan, bai bikote harremanak, zein harreman sozial eta familiar guztiak, modu *egoki* batean burutu ahal izateko kartzelak ematen dituen komunikaziorako aukerak ez dira nahikoak, eta EPPKko kideentzako oraindik eta murrizagoak izateak oraindik eta zailago bihurtzen du harreman afektiboen garapena.

Babes soziala

Hala ere, azpimarratu beharreko bigarren faktorea preso hauek duten babes soziala da. Haien babestu eta haien senide gertukoena ere laguntzeko elkarteak (Etixerat, Jaiki Hadi, Herrira...) daude, eta honek, izaeraren garapenean beste presoentzat hain gogorra zen estigmatizazioa ekiditera daramatza (behintzat haien ingurune hurbilenean). Preso hauek ere, preso eramane dituen ekintzaren jabe dira, kontzienteki hartutako erabaki baten ondorioa da, eta beraz, ez dute haien burua “delitugile” bezala ikusten (Arbelaitz et al., 2011: 133). Hartutako erabakiak kartzelara eramane ahal zituela zekiten edo horren jabe ziren gehienak. Kartzelaratzearekin batera, kolektibo baten partaide bilakatzen dira, EPPKko kideak, eta horrek ere talde izaera indartu eta haien izaera pertsonalaren babeserako tresna garrantzitsu bilakatzen da (Ibidem: 146).

Baina kolektibo baten parte izateak, eta honek izaera aldarrikatzailea edukitzeak, eraginik al du genero harremanetan? Alde batetik bai, baina orokorrean ez. *Jaiki Hadik* 2009an egin zuen txostenean, gurasoen inguruan hausnarketa bultzatu zuen, eta rol banaketa dagoela atzeman ahal izan zuten. Kasu honetan, amek egiten dute zaintza

lanen gehiengoa, askotan ere *Etxerat* elkartean duten inplikazioa altuagoa da beraien aldetik. Bikotekide emakume asko ikusi ditzakegu ere elkarte honetan (elkarreak ez dauka daturik elkarteko partaideen artean zenbateko inplikazioa duten emakumeek eta gizonak, baina emakumeen parte hartzea handiagoa dela adierazten dute), eta azken aldian egindako “Emakumea eta Kartzela” hitzaldi batean jaso ahal izan zen bezala, bikotekide emakumeek “dena” ematen dute haien bikoteengatik baina “ni nire gizonaren lekuan egongo banintz, ez dut nire gizona nire lekuan imajinatzen” (Tolosako mahai-ingurutik jasotako hitzak, 2013ko Otsailaren 27an, Tolosako Aranburu Jauregian Tolosaldeako Herrirak eta Bilgune Feministak antolatua) esaten du partaideetako batek. Kartzelan egondako emakumeek ere, haien inguruan ikusitakoagatik, emakume presoek bikotekidea galtzea “errazagoa” dela uste dute:

“Preso politikoen artean ere gertatzen da emakumeek kalean duten bikotea galtzea. Urte asko kartzelan daramaten gizonetzko preso politikoek bikote emakumea mantentzen dute kasu askotan. Emakumea izaten dute bera zaintzeko kanpoan. Urte asko kartzelan daramaten emakumeen kasuan, aldiz, ez da hori gertatzen. Batzutan bikotea kartzelan dutelako gertatzen da, baina oro har, emakumearen kartzelaldiko prozesu osoa bizitzen duen bikote gizonak oso gutxi daude” (Bilboko hitzalditik ateratako hitzak. 2012ko Abenduaren 18an, Kafe Antzokian burutua).

Rol banaketa, beraz, ematen dela suposatu dezakegu, baina ezinezkoa zaigu konfirmatzea ez dagoelako gaiaren inguruan inolako ikerketarik eginga. Esan bezala, modu negatiboan eta positiboan eragina izango duten faktore berezietekin aurkitzen gara (erregimen berezia eta kolektibo baten partaide izatea urrenez urren), eta honek bere eragin propioa izango du harremanen bizipen horretan. Datozen orrietan, bizi esperientzia ezberdinen bidez, horren inguruan gehiago sakontzen ahaleginduko naiz.

4. METODOLOGIA

Lan honetan ezarri diren helburu eta hipotesietan sakondu ahal izateko, metodologia kualitatibo bat erabili dut. Ikerlanean protagonista diren emakumeen bizipenak eta maitasunarekiko hausnarketak jaso ahal izateko modurik egokiena dela uste dut. Beraz, metodo kualitatiboaren baitan kokatzen diren elkarrizketa sakonak izan ditut ardatz lan honetan. Jarraian, ikerlanean zehar izandako prozesua, eta metodologiaren baitan erabilitako teknikak azalduko ditut.

Hasieran batean, azaldu dudan bezala, bizi esperientzia batek eragin zidan lan honetan zentratzea, eta egoera honetan sortutako ideia guztiak, biltzen eta antolatzen ahalegindu nintzen hipotesi eta helburuetan. Bi hauetan, lanean ardatz izan diren ideia nagusiak agertzen dira, eta une oro, hauen inguruan lanean aritu naiz, bai analisi dokumentalean zein elkarrizketa sakonen diseinuan.

4.1. Teknikak

Analisi dokumentala

Analisi dokumentalak lan guztian zehar pisu handia izan duen zatia izan da. Hasieratik ia amaiera arte irakurtzen eta ideia berriak lortzen ahalegindu naiz.

Alde batetik, hasieran, emakumezko espetxeen eta emakume presoengatik inguruko bibliografia zabal batean murgildu nintzen. Hurrengo pausoa Euskal Preso Politikoen Kolektiboari buruzko materialaren bila hastea izan zen, eta egia esan, alor honetan, zailtasun gehiago izan ditut aurrekoan baino. Emakume espetxeen inguruko informazioa murrizta bada, kolektibo konkretu honen inguruko informazioa, are murriztagoa da oraindik. Informazioa, batez ere, duela gutxi egindako pare bat ikerlanei esker izan dut batez ere, baita, aurretiaz aipatu bezala, kolektibo honen inguruan lanean dabilzan elkarte batzuei esker ere.

Bestalde, espetxean ematen diren harreman afektibo eta sexualen inguruko informazioa oraindik zailagoa egin zait aurkitzeko. Egoera konkretu honen inguruko oso lan gutxi dago, eta adibidez, honen inguruko doktore tesi bat irakurtzeko aukera izan nuen Leioako Liburutegi Nagusian. Bertatik ateratzeko ezintasuna dela eta, irakurraldietan hartu ahal izan ditudan ideia nagusi eta autoreak (Estibaliz De Miguel) idatzitako

artikulu ezberdinek laguntza handia eskaini didate gaian apur bat gehiago sakontzeko. Hala ere, alde honetatik, gehiago sakontzeko aukera izango nukeela uste dut, hainbat dokumentu gehiago eskuratu izan banitu, eta lan honek, inoiz, jarraipena izango badu, hemen gehiago sakontzea lehentasun bat izango litzateke.

Elkarrizketa sakonak eta hauek aukeratzeko kontuan hartutako aldagaiak

Analisi dokumentalak bezala, pisu handia izan duen teknika da elkarrizketa sakonena. Hasiera batean, elkarrizketatu nahi nuen emakumeen perfilak osatu nituen:

Egoera	Adina	Militantzia	Kontzientzia feministarik?
Preso egondakoa	20-25 (preso egondako garaian)	Segi	Kontzientzia feminista
Preso egondakoa	25-30 (preso egondako garaian)	Segi	Kontzientzia feminista
Bikotea preso duena (edo izan duena)	20-30	Militantea	Kontzientzia feminista
Bikotea preso duena (edo izan duena)	20-30	Militantea izan ez dena	Kontzientzia feminista bai edo ez
Preso egondakoa	30tik gora		Kontzientzia feministarik ez
Bikotea preso duena (edo izan duena)	30tik gora		Kontzientzia feminista ez

Preso ohiak eta bikotekideak (ohiak): Harremanak espetxe barruan eta kanpoan nola bizitzen diren ikusi nahi da lan honetan. Alde batetik, barruan dagoenarentzat harremanak hartzen duen garrantzia eta hau garatzeko dauden baliabideak ikusi nahi ditut. Kanpoan dagoenarentzat aldiz, harremanak berak hartzen duen pisuaz gain, honek ematen duen “lanaren” kudeaketa nola egiten den jakin nahi dut besteak beste. Hau guztia lantzeko, aurretiaz maitasun edo bikote harremanez egiten den hausnarketa landuko dugu elkarrizketatuek eta nik.

Adina: Gazteekin egingo dudana lan bat izanik, 20 eta 30 urte artean kokatu dut azterketa tartea. Batez ere, preso egondako nesken artean, bi zati banatzea interesgarritzat jo dut, espetxe esperientzia adinaren arabera ezberdina ote den jakiteko. Honekin batera, kontrasterako, adinez nagusiagoak diren pertsonak elkarrizketatzea pentsatu nuen hasiera batean, baina aurrerago ikusiko den moduan, hau atzera bota behar izan nuen ikerketa prozesuan.

Militantzia: Militantzia aktibo bat izan duten pertsonak elkarrizketatu nahi izan ditut, batez ere, nire hipotesietan, honek kontzientzia feminista bat lantzen lagun zezakeela adierazten bainuen. Gazte antolakundeetan, edo antolakunde feministetan parte hartzen duten neskek elkarrizketatu ditut. Bikotea preso izandako nesken artean, militantziarik ez zuen norbait topatzen ahalegindu naiz, baina modu batean edo bestean, beti inplikazioen bat zuen jendea aurkitu dut. Ezinezkoa egin zait militante ez den pertsonarik aurkitzea (egon badagoela uste dudaren arren).

Kontzientzia feminista: Lan honetan kontzientzia feministak eman ahal zion ikuspegi eta analisi maila beharrezkoa zela uste nuen, eta kontzientzia hau modu batean edo bestean elkarrizketatu guztietan aurkitu dut, hasiera batean batzuek militantzia feministarekin lotzen bazuten ere, eta beraz, ez zutela esan bazidaten ere, azkenean, kontzientzia edo analisi maila hau, elkarrizketatu guztietan topatu ahal izan dut.

Harreman afektibo sexuala aurretik: Elkarrizketatu guztiek bikote harremana espetxeratu baina lehen izan zezaten bilatu dut. Horietako batean, aurretiaz laguntasun harreman estu bat zegoen, eta egoera honek harremana sexuala ere izatera eramandu, baina beste guztiak aurretiaz hasiak ziren. Hau horrela izatea nahi izan dut, batez ere, prozesu guztia nola eramaten den analizatu ahal izateko, aurretiaz zeuden ideiak aldatzen ote diren ikusteko, harremanean aldaketarik dagoen ikusteko...

Aukera sexuala: Ikerlan honetan bat izan ezik, harreman guztiak heterosexualak izan dira, nahiz eta praktika hauek ez izan eskusiboak batzuen kasuan. Zenbaitek harreman homosexualak ere izan dituzte aurretiaz.

Perfil hauetako jendea lortzeko, esan bezala, nire aurretiazko bizipenak erraztasunak eman zizkidan, baina “gertuko” sare horretatik apur bat urrutiago bilatzen ahalegindu nintzen, sarea zabaltzen. Askotan, zalantzak izan ditut nire gertutasunaren inguruan. Elkarrizketatu ditudan asko, lagunak edo ezagunak izan dira, bai preso egondako zein haien bikotekideak preso izan dituztenen artean. Gertutasun honek, momenturen batean, elkarrizketak egiterakoan, interesgarria izan daitekeen informazioaren bila ez joatea eragin ahal zidan beldur nintzen, eta ziur gertatu dela. Baina gertutasun honek ere, gaian sakontzeko aukera eman dit, askok, ni nintzelako eskaini baitidate elkarrizketa, eta honekin batera, haien bizipenetan sakontzeko aukera.

Hala ere, elkarrizketen sakontasunarekin pozik nago. Elkarrizketatu bakoitzak zituen bizipen berezi eta propio horietan hitz egiten aritu gara, gehienetan bi ordu eta erdiz gutxienez. Transkribapenak egiterakoan hala ere, zenbait gaietan gehiago sakonduko nukeela sentitu dut elkarrizketatu guztiekin. Arazoetako bat, behar nituenak baina askoz emakume gehiagok esan didatela prest zeudela lanean parte hartzeko, eta askok, gogo asko zeukaten haien bizipen horien inguruan hitz egiteko. Aukeraketa beraz oso zaila egin zait, perfila bakoitza betetzen zuten bost emakume baintuen gutxienez, eta noski, bakoitzak, bere berezitasuna ekarri ahal zion lanari: bera preso egon eta gero haren bikotea preso izandako emakumea; haren bikoteak ihes egin zuen emakumearena; harremana eramangaitza egiten zitzaionarena; bikote bat baina gehiago egoera hauetan izan dituen... Aukeraketa bat egin nuen, baina ikerlanetik kanpo egoera posible ugari geratu direla argi daukat.

Honekin guztiarekin preso egondako emakumeekin hasi nintzen, hasiera batean bi izan behar zutenak, laura pasatu ziren. Preso zegoen bitartean haren bikotea ere preso hartu zuten emakume batek elkarrizketetan parte hartzeko aukera izan nuen, eta bi ikuspegi horiek uztartzea interesgarria izan zitekeenez, gehitu egin nuen. Lan guztian zehar harreman heterosexualak izan dituzten pertsonekin topatu naiz, eta preso egondako neskekin lanean nengoela, harreman homosexuala zuen neska batekin topo egiteko aukera izan nuen. Ikuspegi honek ere lanean egon behar zuela iritzita berari ere elkarrizketa bat eskaintzea eskatu nion, eta beraz, honekin, lau emakume preso ohi elkarrizketatu nituen. Argi utzi nahi dut, hasieratik, preso ohiekin lan egitea erabaki nuela, denbora faltagatik ezinezkoa baitzitzaidan emakume presoekin lan egitea. Lanarekin jarraitzeko aukera izanez gero, elkarrizketa hauek lortzea interesgarria eta aberasgarria litzatekeela uste dut, bizipenak momentukoak baitira, eta ez, bertatik atera eta denbora batera egindako hausnarketen ondorio.

Ondoren, haien bikotekideak preso izandako neskekin aritu nintzen, eta hemen ere, bi izatetik, hiru izatera pasatu ziren. Hemen ere, kontuan hartu ez nuen faktore bat sartu zitzaidan tartean, eta hiru perfil ezberdin elkarrizketatzeko aukera izan nuen. Alde batetik, bikotea oraindik kartzelan zuen neskarekin elkartu nintzen lehenik, ondoren, espetxeratzea eta gero harremana uztea erabaki zuen neskarekin, eta azkenik, espetxeratze garaian bikotea uztea erabaki zuen neskarekin. Bakoitzak erlazioaren beharrez eta egoeraz ezberdin hitz egin zidaten, haien ahulgune eta indarguneak puntu ezberdinetan jarritz.

Elkarrizketa guzti hauek egiten nabilela, mutilen kontraste bat beharrezkoa zela ikusi genuen tutoreak eta biok, eta “sasi eztabaida-talde” bat antolatzea erabaki genuen, hiru mutilekin. Perfil ezberdinetakoak, preso egondako bi eta bikotea preso izandako mutil batekin amaitu nuen. Hau dinamizatzeko, mutil baten beharra nuela uste genuen tutoreak eta biok, eta beraz, laguntza eskaini zidan master bera egindako lagun batek. Hala ere, azken momentuan bikotea preso izandako mutilak ezin izan zuen agertu, eta beraz, bi elkarrizketa ezberdin egin behar izan genituen, alde batetik preso egondako mutilak izan zituen Jokinek, eta nik bikotea preso izandako mutila. Jokinek, birekin egindako hori, elkarrizketa bikoitz bezala definitu zuen, ez baitzen eztabaidarik sortzeko aukerarik egon bien artean. Eta nire aldetik, nire aurreiritziengatik izan daiteke, baina zaila egin zitzaidan mutilaren elkarrizketa dinamizatzea, uste bainuen harentzako zaila izaten ari zela. Elkarrizketa egin nuenean, zaila egiten ari zitzaiola pentsatu nuen, baina gerora, hau berriro entzuterakoan, nik galdera gehiegirekin bonbardatu ez ote nuen beldur naiz. Isiluneak uste baina askoz motzagoak ziren, ea hauek, agian, behar baina lehenago moztu nituen behin baina gehiagotan.

Elkarrizketa guzti hauekin esku artean, pertsona “nagusiagoekin” egin nahi nuen kontrastea beste momentu baterako utzi beharko genukeela pentsatu genuen tutoreak eta biok. Tesina baterako elkarrizketa nahikotxorekin esku artean, analisiari ekingo diogu aurrerago eta hauek, hasieran planteatutako hipotesiekin kontrastatuko ditut. Honekin guztiarekin, ondorio nagusi batzuk atera ahalko dira, baina baita, zenbait galdera, eta aurrera begira landu ahal izateko puntuak ere.

Elkarrizketa “ofizial” hauetan gain, elkarrizketa “estra-ofizial” ugari izan ditut, kolektiboetako militanteekin, psikologoekin, preso ohiekin, presoan (edo preso ohien) bikotekideekin... Haien hitzak ere garrantzitsuak izan dira, zenbait ideia landu ahal izateko.

Behaketa parte hartzailea

Ikerlan honetan ideiak lantzen eta bideratzen joateko erabili dudana teknika izan da hau. Lanean isla argia ez badu ere, ideiak zentratzeko eta baieztatzeko laguntza eman didan aspektua izan da. Honetarako, *Herrirak* eta *Bilgune Feministak* antolatutako zenbait hitzaldietan hartu dut parte, “Emakumea eta Espetxea” hitzaldi multzoetako batzuetan hain zuzen. Bertan, preso egondako emakumeak eta haien bikoteak preso izandakoak entzun ahal izan nituen, eta nire aurre ideia asko bertan azaltzen zirela entzuteak, lanean

indar gehiagorekin sakontzeko indarra eman zidan. Honetaz gain, gaia lantzen duten zenbait ikerlariren hitzaldietan egon izan naiz, Dolores Juliano eta Emakunderen bekari esker ikerketa egin zuten emakume ikerlarien zenbait hitzaldietan. Honetaz gain, azpimarratu nahi dut, bertako Laura Varak, Maria Ruizek eta Edurne Bengoetxeak une oro materiala bilatzen eta informazioa biltzen lagundu didatela eta haien esperientzia handia konpartitu dutela nirekin hasiera-hasieratik, ezinbesteko laguntza eta akuilu bilakatuz.

Honetaz gain, pertsonalki esperientzia oso aberasgarri bat bizitzeko aukera izan nuen Uztailean. UNEDk antolatzen dituen udako ikastaroen baitan, Madrileko Alcala-Meco espetxean antolatzen zen batean izen emateko aukera izan nuen, ikerketa eremu berdinean lanean dagoen lagun batekin, eta hiru egunetan zehar, kartzela barruan egoteko aukera izan genuen, emakume preso batzuekin ikastaroa konpartitzen. Ikastaroan interesa geneukan bai teorikoki zein espazialki, baina azkenean, nahiko eskasa izan zen teoria aldetik. Baina esperientzia aldetik, aukera ikaragarria izan zen, Espainiar estatuko emakume kartzela bat ezagutzeko, eta bertako zenbait emakumerekin haien esperientzia konpartitzeko. Batez ere, amatasunak hartu zuen garrantzia handia, hau baitzen ikastaroaren ardatzetako bat, eta emakume hauen bizi istorioetan garrantzia zentrala zuela entzun ahal izan genuen. Testigantza gogor baina aldi berean itxaropentsuak entzun ahal izan genituen. Honetaz gain, kartzela bat nola antolatzen den ikusi ahal izan genuen. Hala ere, Alcala-Meco kartzela berezia da, aurretiaz gazteentzako erreformatorio bat izan baitzen. Honek, berezi egiten du kartzela hau, murruxak ditu, belarra eta zuhaitzak ikusi daitezke, mugitzeko aukera gehiago daukate... Haien delituaren berri ematea debekatua duten arren, jakin ahal izan genuen, horietako asko drogen trafikoarengatik zeudela kartzelan. Gehienak atzerrian jaiotako emakumeak ziren. Estatistikei aurpegia eta bizi-istorioak jartzeko aukera hau opari berezia izan da proiektu honen gauzapenerako.

4.2. Elkarrizketatuen argazkia

Hasieratik argi utzi nahi dut, elkarrizketatuen datu garrantzitsu asko alde batera utzi beharko ditudala, haien identitatea erabat jakin ezina izan behar baitu. Batez ere, preso ohien kasuan, asko, epaiketaren zain daude oraindik eta espetxeratzeko arriskua izanik, haien inguruko informazioa ezin baitaiteke zuzenean haiekin lotu.

Onintze: *Segiren* kontrako “makro-operazio” batetik ihesi egitea lortu zuen, eta denbora batera Ipar Euskal Herrian atxilotu zuten. Gipuzkoako barnealdekoa da, eta 25-30 urte tartean zegoela bizitu behar izan zuen operazio poliziala. Espetxetik bermepean atera zen, eta garaitik bere bikotea denaren herrian bizitzen dabil. Gazterik hasi zen militantzian, *Ikasle Abertzale*en hasi eta berehala *Segin* sartu zen. Gazterik ere, egoera politikoak eraginda, zeukan bikoteak ihes egin behar izan zuen eta zenbait urte eta gero atxilotua izan zen. Frantses estatuan preso zegoela harremana berriro hasi zuten, baina gaur egungo bikotea tartean agertu zenean, aukeraketa egin beharrean ikusi zuen bere burua eta gaur egungo bere bikotearekin geratzea erabaki zuen.

Nire bila etorri zen gaur egungo bere herriko plazara, eta jende dezente agurtzen ibili zen. Etxera sartu ginenean bertan kartzelako oroitzapen ugari ikusi ahal izan nituen, gutunak, argazkiak, kaleratzean oparitutako kriseilua eta txapela... Espetxeak presentzia dauka oraindik bere bizitzan, eta aurrera begira egin beharreko planetarako ere (amatasuna batez ere) oztopo bat dela baieztatu zidan.

Ihintza: *Segiren* kontrako “makro-operazio” batean atxilotua izan zen. Nafar hau gau horretan bere gurasoen etxean zegoen lotan bikotekidearekin, eta atxilotzera etorri zirenean, hasiera batean mutila atxilotzera etorri zirela pentsatu zuten biek, nahiz eta gutxira jakin bere bila etorri zirela. Torturak pairatu behar izan zituen, batez ere psikologikoak eta sexualak. Hiru egun inkomunikatuta egon eta gero, espetxeratua izan zen. Kartzelan zegoela, bere bikotea ere atxilotua, torturatua eta espetxeratua izan zen. Bi hilabete egon ziren biak espetxeratuak, eta Ihintza bermepean askatu zuten. Beraz, kartzelan, harremana bi aldeetatik bizitu izan du. Bikotea ere askatu egin zuten bermepean, eta elkar bizitzan zenbait hilabete egon eta gero, harremana uztea erabaki zuten. Zailtasunak izan dituzte harremana bizipen hau eta gero berrartzeko, eta bakoitzak bere aldetik aurre egitea erabaki dute.

Militantziak paper garrantzitsua bete izan du bere bizitzan gazte-gaztetatik. Herriko elkarte ezberdinak biltzen diren gizarte-etxe batean elkartu ginen. Elkarrizketa duela gutxi jazotako bikotearen apurketarekin hasi zen, eta garrantzia handia hartu zuen apurketa horretan egondako faktore ezberdinen hausnarketak.

Alaitz: *Segiren* kontrako “makro-operazio” batetik ihes egitea lortu zuen. Ipar Euskal Herrian atxilotua izan zen zenbait hilabete beranduago. Espetxeratua izan zen, eta espetxe ezberdinak ezagutu zituen, emakumezkoen bat eta mistoak ere bai. Ihesaldi eta

espetxeratze garaian aurretiaz zeukan laguntasun harreman oso estu bat, bikote harreman bihurtzen joan zen. Harreman hau “plus” bat bezala bizitu izan duela azpimarratu zuen. Harremanen inguruko hausnarketak ere egin genituen elkarrizketan zehar, feminismoak eragindako ibilbide pertsonala ardatz hartuz. Garrantzitsua izan da berarentzako kontzientzia feminista hori.

Espetxetik atera zenean Gipuzkoako barnealdeko bere herrian ongi etorria egin ziotenean, elkarte bateko giltzak eman zizkioten, eta bertan egin genuen elkarrizketa. Bizitakoaren isla bat den elkarte horretan orduak egon ginen, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiten.

Irantzu: *Segiren* kontrako “makro-operazio” batetik ihes egitea lortu zuen, eta zenbait hilabeteren ostean, Ipar Euskal Herrian bizi publiko eta “normala” egiten saiatzen ari zela izan zen atxilotua. Militantziak paper garrantzitsua dauka bere bizian Bizkaitar honentzat. Egunerokoan militantziak eragiten zion zurrunbilotik ateratzeko, oporrek garrantzia handia hartu zuten haren bikote harremanean. Bere neskarekin, opor txiki edo luzeagoak egin ahal izatea jolas modura, eta esperientzia modura garrantzitsuak ziren. Kartzela garaian ere berezi bihurtu zen hau. Frantzia hilabete egon zen preso, eta ondoren Espainiaratua izan zen. Harremana eksklusibotasunetik atera, eta beste esperientziak izan dituzte, bai kartzela barruan zein kanpoan.

Idurre: Bizkaitar honek, bere bikotekidea preso izan du duela gutxi arte. Elkarrizketa egin nion garaian preso zegoen oraindik. Oso harreman prozesu “intentsoa” bizitu izan dute, hasieran neskaren partetik “gehiegizko” inplikazio batetik, oreka batera pasatu baitira. Dependentsia handiko erlazioak kartzelan bere topea jo zuen, eta egoera honetan, harremanari buelta ematen ahalegindu dira, eta dirudenez, baita lortu ere. Mutilarengatik “ia dena” alde batera utzi eta gero, bikotekidea espetxean zegoela, bere espazio propioak berreskuratu eta onek, erlazioa osasuntsuago egotea lortu du.

Bere herrian elkartu ginen, eta egun horretan bertan, handik gertu, Ondarroako Herri Harresian Urtza Alkorta atxilotu zuen Ertzaintzak.

Argiñe: Duela zenbait urte, bikotekidea preso izan zuen Bizkaitar honek. Garaian oso gaztea zen, 20-21 urte inguru zituen. Egoera horretan erlazioa aurrera ateratzea ezinezkoa egin zitzaion. Berak “badaki” harremana kartzelarengatik utzi behar izan zuela, nahiz eta berarentzako ez duten erlazioa itxi, ez baitzuen izan bikotekide

ohiarekin aurrez aurre hitz egiteko aukerarik, honek ez baitzuen nahi izan. Telefonoz utzi zuten harremana. Egoera “gogor” honek maitasunaren inguruan hausnartzera eramane zuen, eta feminismoarekin parez pare topatu zen. Maitasun ereduaren inguruko lanak eta ikerketa bat ere egin ditu, hausnarketa hauek bere bizitzaren erdigunean kokatuz.

Lorea: Lapurtar honek bikotekidea kartzelan izan zuen. Aurretiaz hala ere, bikotekidea ezkutatu behar izatea, bi atxiloteta eta etxeko espetxeratze bat bizitu behar izan zituzten. Kartzelatik fidantzapean atera zen bikotekidea, eta segituan elkarrekin bizitzen jarri ziren. Espetxe garaia “ongi” eramane bazuten ere, askoz zailagoa egin zitzaieen kaleko elkar bizitzara berriz ohitzea, eta azkenean, bikote harremana uztea erabaki zuten. Espetxe garaian, beste pertsona batzuekin harremanak izatea adostu zuten, eta hau praktikara eramane arren, “gogorra” izan zen lehen esperientzia. Gaur egunean beste bikote bat dauka, eta ez du harreman irekien aukera berdin ikusten, kasu honetan, ez luke egingo.

Gotzon: *Segiren* kontrako operazio batetik ihes egitea lortu zuen, eta Ipar Euskal Herrian bizi proiektu berri bat abiatu zuen bere bikotekidearekin. Aukera ezberdinen artean hau aukeratu zuen, bikotekidea harekin bizitzera joango zela esan baitzion. Hala ere, denbora gutxira atxilotu eta Espainiaratu zuten. Kartzela garaian bere buru hausterik handiena bikote harremana izan da, eta momentu onak izan baditu ere barne borroka konstante bat izan duela adierazi zuen. Espetxetik baldintzapean atera eta gero, Bizkaiko haien herrian elkarrekin bizitzen hasi ziren, eta etapa guztiak bezala, hau ere “oso intentsoa” izaten ari da Gotzontzat.

Koldo: *Segiren* kontrako operazio batetik ihes egitea lortu eta Ipar Euskal Herrira joan zen bizitzera. Hilabete gutxi batzuk eta gero atxilotu eta Espainiaratu egin zuten, aurretik Frantziako kartzela batean hilabete batzuk pasatuta. Bikote harremanek oso garrantzia gutxi izan dute haren bizitzan, eta gaur egungo (eta espetxeratze garaiko) bere bikotekidearekin topatu zuen harreman batean behar zuen “askatasuna”. Etengabeko negoziazioan daude, eta haren hasierako usteetan, kartzelan, bikote harreman bat eramatea ezinezkoa zen. Presioa sentitzen zuen bikotekideak egiten zuen lan guztia ikusita, eta “krisi txiki” bat pasatu zuten honengatik. Harreman irekia eta “erabat askea” mahai gaineratu zion bikoteari espetxean zegoela.

Jurdan: Harentzako esperientzia “txiki” bat bizitu izan zuen preso baten bikotekide bezala, sei hilabete eman baitzituen haren neskak kartzelan. Bizkaitar honek, kartzelak eskatzen zituen lan guztiak bere gain hartu nahi izan zituen hasiera batean, baina gero bikotearen familiarekin banatu zituen. Bikotekidearen aitak, amak eta berak, lana modu orekatu batean banatu zuten haren ustez. Espetxe garaia “oztopo” bat bezala ikusi zuen haren bikote harremanean, eta gaur egunean ez du gaiaz bikotearekin gehiegi hitz egin.

5. HARREMAN AFEKTIBO SEXUALAK ESPETXEAN: HAINBAT EUSKAL EMAKUMEREN BIZIPENAK

Azken atal honetan sartu baina lehen, argi utzi nahi dut, elkarrizketatuek beraiek niri argi utzi nahi izan didaten kontu bat: haien esperientzietatik hitz egiten dute. Eta hau esatean, batez ere, haiek espetxean eman duten denborari buruz hitz egiten ari naiz. Sei hilabetetako izan da esperientziarik “laburrena” eta “luzeena” hiru urtekoa. Denboraren faktore hau garrantzitsua dela uste dugu (nik eta elkarrizketatuek), denbora tarte erlatiboki laburrez ari garelako. Honetaz gain, orokorrean bigarren graduan egon diren pertsonekin elkarrizketatu naiz, honek esan nahi du, patio ordu gehiago zituztela, eta beraz, jendearekin gehiago komunikatzeko aukera. Bi kasutan lehen graduan egon dira, baina hau ere denbora tarte “labur” batean. Honek guztiak, espetxeaz hausnartzeko era bat ekarri die, agian, hogeitaz kartzelan egon denak ez lukeena konpartituko.

Jasotako informazio guztia pilatu eta hiru multzotan sailkatuta agertuko da jarraian. Hain zuzen, harremanak kartzela aurreko, garaiko eta ondorengo esperientzian banatu ditut.

5.1. Bikote harremanak kartzela aurretik

Aurretik aipatu bezala, lan honetan hamar pertsonen hartu dute parte haien testigantza eskainiz, zazpi emakumek eta hiru gizonek. Hamarrek garai eta militantzia antzekoa konpartitzen dute. Azken hamar urteetan gazte mugimenduaren inguruan mugitu izan dira, konpromiso maila altuago edo baxuagoarekin, bai espetxeratuak izan direnak, zein bikotekidea espetxean izan dutenak. Honek, esperientzia eta bizipen antzekoak konpartitzera daramatza.

Inguru antzekoan egonik dituzten maitasunarekiko eta bikote harremanekiko hausnarketak zertan antza duten eta zertan desberdintzen diren eta honek, espetxearen bizipenetan izandako pisua aztertzen ahaleginduko naiz jarraian.

Harremanak ulertzeko moduak

Norberaren ibilbideak, harremanak ulertzeko modu ezberdinetara eraman ditu. Inguruan ikusten dutenak eragin izugarria dauka adin bakoitzean harremana ulertzeko moduari dagokionean.

“Hor nik uste danok pasatzen dogula, 15-16 urte, kriston enamorada, kriston ezdakitzere, kriston bestia ez? Azkenean erakutsi dogulako horrela bizitzen” (Alaitz)

“Segurtasuna eta prestijio soziala eta hori hasiera baten. Gero, nik uste dot, momentu batzutan, edo behintzat holan daukat oroitzapena, momentu batzutan holan aztertu izan dotela, militantzia erritmuen ondorixoz bebai, ostia, bastante militantzi buff, eta gainera errepreziñoa tartean egonda eta ez dakit nik zer, bebai bilatu izana segurtasuna bikote harremanetan. Zabilaz kriston borajinien sartunda baina gero etxera heltzerakoan edo denpora bat libre daukazunean ba igual Koldok kuadrila eukean baina nik ez, ba bilatzen neban pertsona bat egotia hor.” (Gotzon)

Hasierako harremanak, gehienek “laguntasunezkoak” edo “musu batzuetakoak” bezala definitu izan dituzte, baina bikote harreman “sendo” bat definitzerako garaian, denborari ematen diote garrantzia handia, pertsona horrekin denbora gehiago konpartitzeari besteak beste.

“Hor ya bai bikotik pisu handixa hartu ebala....pertsona horrek piso haundi-haundixa hartu ebala nire bizixan. Eta hor ya ba etorkizuna begireko halako proiektuk eta hori oso ezberdina izen zan ia zelan bizitzen neban. Igual aurreko bikotiaz konparaute askoz denpora gehixa pasaten genun...ia...ez dakit...ba bai harremana bera bebai askoz sakontasun handixaua zan. Bai sexu arlun dagokixonez baina baitxe be konfiantziai dagokixonez edo dana dalaku...bai hor ya oso ezberdin.” (Argiñe)

“Apur bat gehixau ezagutu ez? Gehixau ezagutzen dozun heñean gehixau gustatzen jatzu edo... ez dakit ze hitz erabili, eta holan... plan ezberdinekin itten. Eta azkenian, konturatzen zara ostia! merezi dao jarraitzie, ez?” (Jurdan)

“Familiarena bai, familia bai sartzea tartean bai dator hor, oporretan joatea ere dator hor, em... (isilunea) ez dakit diren plan gehiago egitea, e... denbora ere bai asko pasatzea elkarrekin, ... (isilunea) ez dakit, igual ere bai, konfiantza hasieratik, baina zoaz handitzen, komunikazioa bebai, kontatzea... hori beti gertatzen da, dituzun arazoak edo dena, osea lehenengo pertsona deitzen duzuna edo hitz egiten duzuna... ez litzatekeela zergatik izan behar baina, ... hori uste dut.” (Irantzu)

Elkarrizketetan, bikotea “sendotzean”, denboraz gain ikusi ahal izan dugu, denbora gehiago pasatze honek sortu dezakeen konfiantza eta komunikazioa garrantzitsutzat hartzen dituztela elkarrizketatuek.

Hala ere, bikote harremanak ulertzeko edo bizitzeko modu ezberdinak aurkitu ditugu testigantzetan. Gerora, elkarrizketatuengatik beraiengatik, praktika negatiboak bezala identifikatuak izan direnak adibidez. Hala nola, bikotearen partetik “gehiegizko” jeloskortasuna eta honek eragindako kontrola pairatu behar izan zituen Loreak.

“Baaa... ez dakit igual apuntatu tailer batetara edo eta bera ere bai. Ez dakit nora joan eta bera ere bai. Osea, beti igual atzetik. Igual lagunekin edo atera eta ya pun! Begirada edo pixka bat aldatzen zen. Edo mutil batekin hizketan edo hasiz gero, edo lagun bat, oso lagun batekin ere... bai, kontrol hori, ez?” (Lorea)

Egoera honetaz ohartuta, bikote honekin harremana utzi zuen Loreak. Baina egoera “txarrak” denborak asko luzatu ahal direla adierazi zuen Idurrek. Berak, bere bikotearekin, nolabaiteko dependentzia egoera bizitu zuen, eta hau, gerora ikusiko dugu bezala, espetxe garairaino heldu zen, bertan egoera okerrera joz. Erlazioaren hasieratik, espazio propioaren galdera handi bat bizitu zuen.

“Ikustia ba zelan berak zelan beste lehenetsun batzuk eukazan eta gauza asko garrantzitsutzat jotzen ebazala, lagunakin egotia ahal dan ixan modura edo kirola bera. Eta horrek niri ba, gaizki sentiaraztea eragite ostan eta ez neban asmatu egoerai buelta emoten bez, orduan ni berana oraindik gehixo moldatzen nintzan eta berak libertade, bueno, hau beti nire ikuspegitik zeren berak beste ikuspegi bat izango dau, baina ez? Gehixo sentitzen neban nik berak bere libertadia gehixo hartze ebalaz zeren ni nintzan oindik gehixo moldatzen zana.” (Idurre)

Egoera honek, bere militantzia, edo herria alde batera uztea eraman zuen Idurre. Dependentzia hauek, emakumeekin eta haiek maitasun harremanetan izan beharreko “menpeko” figurarekin lotzen ditugu orokorrean, baina egindako elkarriketen kasuan, mutil batek, Gotzonek, harremanekiko duen dependentzia aitortu zigun, batez ere, babesleku gisa bizitzen baitzuen, militantziaren eguneroko gatazkatsuaurrean.

“Eta nik usteot, lehenetsi in dotela beste edozer gauzaren gainetik, kenduta salbuespeneko momentu batzuk egon dizela, lehenetsi dot ikasketen gainetik, beti segidu izan dot unibertsitatean matrikulata baina beste erritmo batean, lehenetsi dot kuadrila harremanan gainetik, lehenetsi dot hobby, kirol, ... nik futbolin jokatzeko neban eta hori be itxi neban, parranden gainetik, parranden gainetik bebai e? Guzti horren gainetik. Ez dotena lehenetsi da bikote harremanan gainetik, osea geratzen izan jatan esparru txiki hori beti gorde ixan dot, horrek emoteostan segurtasuna eta babesa eta aste guztian nabil kriston trotiaz eta behintzat gabaz reserbakot neska lagunak etxian lo eitzia, edo neska laguna nire etxian lo eitzia, edo zapatuan behintzat buelta bat emateko aukera neska lagunak edo domekan reserbatzia neska launaz egoteko.. hori nik uste dut konstante bat izan dala.” (Gotzon)

Beraz, dependentziaren oinarria desberdina dela ikus badezakegu ere (Idurreren kasuan ia dena uzten du bikoteagatik, eta Gotzonen kasua haize pixka bat ematen dion espazio bakarra delako), bikote harreman batzuek egoera hauek sor ditzaketela ikus daiteke. Eta hain zuzen, horrelako dependentzia egoerek, edo batak bestearekiko gehiegi moldatze horrek “beldurtuta”, edo hori nahi ez izanda, askok, haien bizitzako momenturen batean, bikote harremanei uko egin diete.

“Nik uste dut ere bai esaten genuela bikote harremana ez da, baina bikote harremana suposatzen zuen guztiarekin, lotuta egon behar hori, edo ikusten zenuela ingurukoak ba bikote harremanak, bikotearekin hasi eta ez direla despegatzen... nahi ez genuena bikote harremanarekin lotzen genuen, orduan, osea, gainerakoak ziren gainera lioak.” (Irantzu)

“Bua porque eske bikote bat da oztopo bat zure bizitzan zeren ezingo zara inoiz garatu, bikote baten mugak eta nik egia dana da hor, igual alde batetik hausnarketa hori de bikoteak ze leku izan bar daben nire bizitzan zeren klaro, ni militantea naiz eta feminista naiz, a ver si me voy a enamorar y voy a caer en manos de un hombre. Nononono, yo no soy de esas, pixkat orduan freno hori edo muga hori bai jartzen dozula.” (Alaitz)

“nik kontua da nik (...) karga bat bezala, edo askatasuna galtzeko arrisku bezala ikusten non (bikote harremana) eta egia esan ez non bilatzen ezer berezirik por que ez nun planteatzen bikotea izatea.” (Koldo)

Bikote erlazio “tradizionalekin” lotutako ereduak aldatu nahi dituzte elkarrizketatuek, hori behintzat buruan daukate. Beste gauza bat da haien eguneroko praktikak eraldatzaileak ote diren edo ez, baina hausnarketa hori burutzen dute askok. Harreman ereduaren inguruan hala ere, heterosexualitatean oinarritutako erlazioekin egin dut topo elkarrizketa gehienetan, eta oso gutxik planteatu didate harreman homosexualen aukera eta praktika edo bikote harremana harreman itxi batetik haratagoko zerbait bezala (kartzela garaian askotan planteatzen den elementua izango da hau, gero ikusi ahalko dugun moduan). Hala ere harreman eredu anitzen esperientziak agertu dira.

“Kontzientzia feminista horren hasieretan (...) hor bebai, hasiera horretan eta gerora bebai modu ezberdinak probatzea. Nik adibidez hor izan zan ba igual lehenengo aldiz neska batekin liau izan nintzala osea, eta ez dut uste nik hori egin nebala por mi conciencia de no se que, ez, gustoko nebalako ebai ere ez? Baina bueno, bai izan zan momentu bat donde podria... ez dakit ez? Ni nere burua pixkat a prueba ipini edo pixkat... bai... ez dakit.” (Alaitz)

“Baina hasi nintzenean harreman honetan berak zituen, berak esaten zidan ekipo de futbito bat zeukala montatua, osea bikotea zeukan, maitalea zeukan eta sartu nintzen ni. Orduan, harreman horretan sartzea izan zen nahiko, sin flotadores a una piscina... Hasieran nahiko mugitua, zeren claro, osea berarekin hitz egiteko gogoia edo egotekoa, edo geratu... muchas locuras, geratu ordu erdirako, joan etorri, hemendik alde batetik bestera, baina berak aldi berean beste harreman batzuk zituen eta sinisten zuen harreman bakoitzean, osea, harreman bakoitzean zeukanarekin berezia zela, eta... osea harreman batean zeneukana ez zeukala zergatik kendu bestean zeukana.” (Irantzu)

Kontzientzia feministarekin lotuta, edo behintzat, harremanen inguruko kezka eta hausnarketetatik abiatuta, eredu ezberdinak probatzen dituenik badago, eta “erraza” ez bada ere, etengabeko bilaketa horretan dabilenik badago.

Militantzia elkarrizketatuen bizitzetan

Elkarrizketatuen kasuan, garrantzia handikoa izan da militantzia haien bizitzetan. Guztientzat, momenturen batean edo bestean, haien bizitzaren ardatz bilakatu da, egunerokoa militantziaren arabera antolatuzera helduz.

“Militantziak eskeintzen dizuna da bat, eta nik uste dodala dela oso inportantea eta nire bizitzan eta dala ardatza, osea, izan dala ardatz bat eta azkenean danok bizitzan behar dogu bizitzari zentzu bat eman edo arrazoi bat eman ez? Ze itxen dogun hamen. Agian oso filosofikoa baina ze itxen dogun hamen. Ta zu militatzen a muerte zarenian ya sabes cual es tu funcion en esta vida, tienes tal lucha y lo tienes super claro, orduan hori ez da kezka bat zuretzat, ulertzen dozu zeren oso argi daukazu ordun hori neri behintzat kriston seguridadea ematen zoztan.” (Alaitz)

Batzuek, gorago aipatu bezala, bikote harremanagatik alde batera utzi zuten (Idurreren kasua), eta beste batzuek “kontrakoa” egin zuten, militantzia maila altua zela eta, bikote konpromisoak alde batera utzi zituzten.

“Nik uste dot nire bizitzan eragin asko euki izan dabela militantzia zelan bizi izan doten, igual lehen bikote harremanetan eta esan doten bezela ez neban nahi igual konpromiso maila bat euki, eramaten neban bizitzak berak be bai, igual uzten nebalako... ez zoztalako lagatzen, ez zoztalako lagatzen baina bai, egia da azkenean Segiko militante izanda ia klandestinidadean militatzen dozu, igual ez daukazu gogorik etengabe esplikazioak ematen egoteko, eta horrek baldintzatzen dotzu.” (Alaitz)

Kasu honetan, emakume baten erabateko inplikazioa ikus dezakegu, eta elkarrizketatutako emakume preso ohi guztiek bat egiten dute militantzia maila honekin (nahiz eta bikote harremanarekin uztartu zuten beste hiruek). Ezinezkoa da jakitea gazte antolakundean zenbat emakumek parte hartzen duten, baina Segiren kontrako hiru makro-operazioetan atxilotutako 66tik, 23 emakumeak ziren⁷⁸. Nahiz eta sarekada hauetan atxilotutako guztiak ardurak izan zitzaketen pertsonak ez izan arren, nolabaiteko ideia bat egiteko balio ahal digu. Neska gazteen inplikazioa antolakunde hauetan handiagoa dela esan dezakegu (duela urte batzuekin alderatuz gero). Eta honek, antolakundean bertan, emakumeen arteko aliantzak sortzeko aukera eman zien.

“Nik uste dot dala abiapuntu bat, da, (...) mugimendu misto horren baitan, emakumeok bakarrik ibiltzeko behar izana, eta nik uste abiapuntu horretatik etorri direla gainontzeko hausnarketak. Nik behintzat aurreratu dutena edo aparte gero irakurri izan dotena edo, hasiera izan dalako emakume hoiekin izandako elkarrizketak, indako hausnarketak, incluso militantzia misto horretan militantzia bera zelan bizi dogun inguruko hausnarketak, neurriak hartzeari begira eta hori, orduan nik uste izan dala, nik benetan sentiu izan dotela horrelako beharra izatea emakumeekin bakarrik egoteko eta hausnarketa hoiek egiteko eta orduan, nik uste eskeini, eskeini hori izan dala, oinarria, eta gero hortik aparte ya, gauza gehiago.” (Alaitz)

Militantzia kide ziren emakumeen arteko elkarrizketa horietan, militantzia ereduaren inguruko hausnarketak egiten zituzten. Honek, antolakundean zegoen rolen erreprodukzioaz hausnartzera eramaten zituen besteak beste. Emakume izanda, erabaki

⁷⁸ Albiste ezberdinetan ateratako datuei esker atera dut kopuru hau.

markoetan parte hartzeko zituzten (eta dituzten) zailtasunez hitz egiten zuten adibidez, eta esperientziak konpartitzean, “lasaiago” geratzen zirela gogoratzen dute. Hain zuzen haien bizipenak kolektiboak zirela ikusten zutelako.

“Nik uste dut biltzarrean (Segiren zuzendaritza), ni naiz pertsona bat, orokorrean beti kosta... osea, beti ia ari naizela seguridade hori edo... baina bai izan naiz pertsona bat asko kostatu izan zaitena jendaurrean hitz egitea, eta... ba asko inseguridadeekin zer esan, esango detena izango da txorrada bat edo ez, edo tipiko, e,z ez det esango eta gero esaten du beste norbaitek eta... osea... betiko historia horiek hola. Eta niri bai iruditzen zait, nintzela oso parte hartzaile entzutekoa. Eta, azkenean zelako askotan pin pon pilo bat, daude lau eta pun-pun pun-pun, bai. Eta gero botatzen da jendeak ez dut hitz egiten, ez du parte hartzen, zer pasatzen da? (Ironia tonuarekin dio) Bai, eta inkluso momentu askotan hori planteatzen denean sentitzen zea gaixki, zer pasatzen da, es que hemen jendeak ez du parte hartzen, es que hemen hitz egin behar da, aportatu behar da, eta... zu hor sentitzen zara zure beldurrekin, zure... Bai.” (Onintze)

Espazio hauek hala ere, nesken artean geratzen ziren inizatibak ziren, hau da, antolakundeak berak (Segik), ez zuen lan ildotzat hartzen feminismoaren lanketa eta hausnarketa. Honek eragin du, antolakundeko gizonak, egitekotan, haien kabuz egin izan dituztela hausnarketak. Harremanen inguruko hausnarketak ere hemen koka litezke.

“Nik uste dot hori bastante habilidad libre izan dala (Barreak gelan) Habilidad libre ixan da, bastante, orokorrean gu militaten geuzazenean artean geneukazen harreman ereduak, salbuespen batzuekin, askok eta askok bikote harreman bat eukagula, orduan ba dala militantzia eredu bat zuzentzen zaitxuna era bateko bikote harremanak eukitxera, eta horretaz berba hitz egiteko aukera izan dogunian ez da izan gure euztura formaletan, baizik eta Topagune baten, edo habilidad libre, edo nonork libururen bat irakurri badauen, edo hitzaldi batera jun naizela, edo topaketa batzutara... baina bestela ez.” (Gotzon)

“Da kurioa baina, niri eman dit justo harremana nola ulertu aukera gehiago eman dizkit bera, nire bikotea non zegon militatzen, jakinda bere eragilea, bikotea dago Bilgune Feministan, jakiteak Bilgune ze nolako irakurketak, edo momentuko eztabaidak zeintzuk diren, horrek eman dizkit aukera gehiago nire erakundea baino (barreak) eta aukera gehiago hitz egiteko, eta zalantzak jartzeko eta...” (Koldo)

Gotzonek dioen moduan, feminismoaren inguruan barne hausnarketarik ez egiteak, harreman ereduaren erreproduzioa ekarri du, eta hauek zalantzan jartzeko baliabiderik ez egoteak, normaltzat jotzea harreman eredu konkretu bat.

“Ezker Abertzalean ere ze garrantzia daukan amor romantikoak onerako eta txarrerako” (Gotzon)

Beraz, feminismoaz ez eztabaidatzeak, maitasun harremanen inguruko hausnarketak ez egitera eramanez dituzte Ezker Abertzaleko kideak, eta kasu honetan honen gazte antolakundeko lagunak, ez bada haien kabuz elkartu eta hau lantzen hasi ziren nesken

kasua. Prozesu Feministak honetan ere lagundu dituela azpimarratu dute neska askok, eta honi esker, gaur egunean, “feministagoak” edo parekideagoak izan daitezkeen antolakundeak daudela.

“Bai bai, uste dut gero eta emakume gehiago parte hartzen ari dela militantzia politikoan, ezker abertzalean ere bai prozesu feminista egin zela aspaldi eta gaur egungo gazteetan bai izan duela ondorioren bat, eta Ernai gazte erakunde bai ikusten dut feminismoarako bidean, gainerako erakundeak ez, nahiz eta esan, bueno LAB ez dakit, ez dut ezagutzen, Sortu ez dut ikusten, nahiz eta eztabaida hori egon, eta... gauza bat da esaten dena eta bestea da zelako praktikak, eta a ber jendea prest dagoen feminista izateko, zeren feminismoak gauza asko suposatu ahal ditu.” (Irantzu)

5.2. Bikote harremanak kartzela garaian

Atal honetan, kartzelaratzeari baina lehenago emandako atxiloketak eta torturak, edo atxiloketak egon ezean gordeta emandako denborak eta Ipar Euskal Herriko bizipenak kokatuko ditut lehenik. Ondoren, kartzelan bertan jazotako bizipenak bilduko ditut.

5.2.1. Kartzelaratzeari edo ihesa

Etxean goizeko ordu txikietan atxilotuak izan dira gure protagonistetako batzuk, baina beste batzuk egoera honi ihes egiteko aukera izan zuten operazioa eman zen gauean ez baitzeuden beraien oheetan. Guztiek, Ipar Euskal Herrian bizitza ahalik eta normalena egiten saiatzeko hautua egin zuten, gero atxilotuak izan baziren ere.

Egoera traumatiko eta zailak izan dira askorentzat eta haien bizitzak aldatuko zituen momentuko oroitzapen gazi-gozaok dituzte.

Atxiloketa

Garai politiko gogorak bizi izan dituztela oroitzen dute guztiek, militantzia egoera oso altuak eta askotan “klandestinoak” (Alaitzek gorago aipatzen zuen bezala), zurrunbilo batean sartuta egotera eramane zituen asko eta asko. Egoera horietan, norbere burua edo bikotea ere atxilotua izan zitekeela pentsatzen zuten batek baina gehiagok.

“Nahiku konziente ginan atxilotu ingo ebela, batez ere azken hilabeteetan. Nahiz eta hasierako momentutik nekixan arrisku hori ebala, azkenian diñozu ez zauz prestatuta, nahiz ta jakin arrisku hori daola, ez zauz prestatuta, ni behintzat ez nengoan prestatuta egoera horri aurre eitzeko.” (Idurre)

Bi kasutan, emakumezkoa militantea bazen ere, mutilezkoaren atxiloketa espero zuten neskarena baina lehen.

“Bai, eta ez. Nik banekien gerta zitekeela, beti egon naizelako militatzen eta banekielako gertatu ahal zela, gainera urte bete neraman zerrenda beltzen rolloarekin eta orduan banekien gerta zitekeela, baina igual nire buruan bai hartu nuenez el rol de novia, bera ikusten nuelako inminenteagoa, mundu guztiari harrapatu ziola “e?” bera zen pertsona bat mundu guztiak pentsatzen zuela atxilotuko zutela eta gu askotan... espero genuen berea, ez nirea horren beste, ez dakit nola azaldu.” (Ihintza)

“Ba bueno beldurrez igual bai, bai beragatik baina nigatik bebai. Nik ez nauen espero berai hau gertatuko dakonik bez, nik gehixao espero neban nigaitik beragatik baino.” (Jurdan)

Ihintzaren kasuan, egun horretan, sarekadaren bat emango zelaren zurrumurrua heldu zitzaion, eta bikotekidea atxilotu ahal zutenetako bat zela pentsatuta, Ihintzaren gurasoen etxera lo egitera eraman zuen. Bertan atxilotu zuten Ihintza, nahiz eta hasierako momentuan bere bikotekidea atxilotzen ari zirela pentsatu. Honek, zer pentsatu ematen digu, Ihintzak berak dioen moduan, “bikotekidearen papera” hartu eta gizonezkoak militanteak eta atxilotuak izateko arriskua dutenak bezala identifikatu ahal izan ditugulako. Marko teorikoan azaltzen genuen moduan, militantearen identifikazio maskulinoa egin izan dugu, eta honek, atxilotuak izateko arriskua duten horiengan ere isla zuzena dauka. Harritu egiten gara bikotekide neska atxilotzen badute gizonaren orde.

Torturak

Elkarrizketatutako preso ohi guztien artean, bakarrak pairatu behar izan zituen torturak, Ihintzak. Besteek ihes egitea lortu zuten. Atxilotu zuten garaian, ebakuntza batetik atera berri zen, eta horren ondorioz torturatzailleek tratu txar fisiko gehiegirik eman ez zizkiotela kontatu zidan. Hala ere tratu txar psikologiko eta sexualak pairatu behar izan zituen.

“Ez, ba prakak jeitsi, te vamos a violar... daukat nahastuta dena, ez dut ere dena oroitzen ongi, baina daukat lau momentu grabatuak. “Como no hables...” klaro, blokeatzen nintzen, ez nuen hitz egiten, prakak jeitsi fue... No paso nada baina fue.... Daukat egoera batzuk oso heavyak hor grabatuta, baina bestela, ni atera ninduten, a veces me riñe la psicologa porque me dice que le quito importancia, baina claro, ni entzuten nituen besteak, eta neri atera ninduten lau aldiz bakarrik, me tenian igual horas, no se cuanto.. baina, ikusten zutenean ezin nuela gehiago, “vas a descansar pero vas a volver”, osea, me intentaban machacar baina... neurtzen zuten ongi, orduan ni nire buruari esaten nion, hori duzu alde. De hecho nik ere aprobetxatu nuen...” (Ihintza)

Polizia-etxeetan, tratu txar sexualak pairatu behar izan dituzten euskal emakumeen testigantza ugari jaso dira. Bortxaketa mehatxuak edo bortxaketak armekin, makilen batekin... pairatu behar izan dituzten emakumeen testigantzak jaso izan dituzte

Torturaren aurkako antolakunde desberdinek. Honek, euskal militante emakumeetan zer pentsatu eman du.

“Nik asumitu dot momentu batean militante politiko izatearren estar expuestas a que nos violen. (...) osea sexualki bebai erasotuak izatera, beste mila mobidatara bezela ere, baina hostia! hori asumituta eukitzea eta hori hola kokatzea eta nere kasuan holako egoera bat ekidin ahal izatea pues izan da... izan da la ostia ez? Baina jakinda ni libratu naizen bitartean beste kide batzuk hortik pasau direla ez?” (Alaitz)

Tortura kasu hauek salatuak izan diren arren, askoren kasuan artxibatuak geratzen dira epaitegietan, baina kartzelatik ateratakoan, haien buruarekin egin beharreko lanketa bezala izaten dute askok. Ihintzaren kasuan, psikologoarekin beste hainbat gauza lantzeaz gain, hori apur bat landu eta bere ustez, egoera hori garaitua dauka. Haren bikotekide ohiaren kasuan ordea, egoera honek, torturak pairatu behar izanak, eta hauei aurre egiten jakin ez izanak oraina asko zailtzen ari dio kalean. Torturen ondorioz deklarazio polizialak sinatzea, edo epailearen aurrean ere poliziak esandakoa sinatzea, nork bere gain hartzea zail egiten den egoeratzat izaten dute zenbaitzuk.

Ihesaldia

Beste batzuek ordea, egoera honi aurre egitea lortzen dute, eta Alaitzek zioen moduan, haienezako lasaitasun handia izaten da hori. Hala ere, ezkutatuta dauden bitartean zenbait aukeraketen aurrean bat hartzera behartuak ikusten dira, eta askotan, erabakia ez da oso erraza izaten. Batez ere, kontrasterako (bikotearekin, familiarekin, ...) aukera eskas horiek “zaildu” dezakete batzuek kasuan erabakia.

“Esnatu izana egun baten, justo ez dozula in lo zure etxian ta enteraten zarila gazte asko atxilotu eta.. hor ia sartzen zatzu beste mundu bat, da... (...) zabaldu zatazen amildegi horretan, erabaki ezberdinak hartu behar nebazana, eta ze ostia egingot, nire bila etorria dia eta ez naiz egon, eta kartzelia, aukera ezberdinak dagoz,... ta klaro, konponente bat izen zen erabakiak hartzeko orduan, ta nik uste dut konponente zentrala, bikote harremana. (...) Ez bakarrik, baina bai nagusiki. Ez bakarrik dinot, hasi nintzalako proiektaten, ostia, hartukotazen erabakiak momentu honetan baldintzatuko dabe neure bizija. Hartukoten erabakia hartukotela nire bizia baldintzatukou. (...) eta erabaki neban ba Lapurdira bizitzen jutia. Karo, hori erabaki neban, batez be, eta nik esan aurretik, bikoteak planteauztalako, nik erabaki hori hartu ezkeru bera prest euala bizitxen etorteko.” (Gotzon)

Hala ere Gotzonen testigantzan ikusi dezakegun moduan, batzuetan zenbait aukera izaten dituzte “gordeta” (ezkutatuta) dauden gazteek haien gertukoenekin hitz egiteko. Hala ere, guztientzako ez da beharrezkoa onarpen hau, eta bakarrik haren bizitzaren norantzaz aukeratu ahal izatea garrantzitsua dela uste dute beste batzuek.

Elkarrizketatu preso ohi gehienek Lapurdin hartu zuten bizileku. Bikotekidea preso izan zuten nesketatik bik ere aukera hori izan zuten, eta bata bertan bizi bazen ere, besteak bertara bizitzera joateko erabakia hartu zuen Gotzonen bikoteak eta Onintzerenak bezala. Hala ere, hilabete gutxiren barru atxilotuak izan ziren guztiak, eta Frantziako espetxe batean hilabete gutxi gora behera pasa eta gero denak izan ziren Espainiaratuak eta bertan espetxeratuak.

Lorearen kasua apur bat ezberdina izan zen. Epaileek Euro-agindua onartu edo ez deliberatzen zuten bitartean baldintzapean aske utzi zuten haren bikotea. Garai horretan, etxetik soilik lanera joateko eta polizia-etxera sinatzera joateko atera zitekeen. Hasiera batean etxetik ateratzeko mugapen hau onartu bazuten ere, gerora ateratzen hasi ziren “normaltasunez”. Hala ere bakarrik egoteko aukera gutxi izan zituzten, etengabe lagunerekin eta senideen bisitak jasotzen baitzituzten.

*“Ni uda horretan ez nintzen ezta atera, egon nintzen egunero berarekin etxean. Izan zen momentu zaila, bat-batean bere lagun guztiak etortzen ziren, familia... eta azkenean zen pixkat ez zenuela tarterik zuretzako ere ez. Beti jendez inguratuta.”
(Lorea)*

Egoera honetan bizitzea zaila izan zen Lorearentzat, eta azkenean, bere bizitza egiteari utzi eta une oro bikotearen inguruan egotera jo zuen. Egoeraz konturatuta irteeratxo bat egitea proposatu zion bikoteak.

“Lorea atera gau bat bederen eta lagunekin joan nintzen. Ez naiz oroitzen nongo festetara eta ez nintzen ni. Bera, lagun batzuk joan ziren etxera afaltzera eta nik ere esan nuen bakarrik utziko zaitut zure lagunekin, ez egoteko ni beti hor eta hola ni ere ateratzen naiz. Baina keba! Egon lagunekin eta burua horretan eta ya desiatzen etxera juteko eta hori, etxera jun eta ba hortik bi egunetara atxilotu zuten.”

Egoera zail hauetan, espetxeratua izan daitekeen kidearen ongizatea bilatzean, batzuetan, bikoteak haien buruak alde batera uztera eramaten ditu. Lorearen kasuan hori gertatu zela ikus dezakegu.

Dispertsioa

Behin Espainiako kartzelan egonda, guztien beldurretako bat, zein kartzeletan amaituko zuten jakitea zen, zelako kide, eta batez ere, zelako urrun egongo ziren jakiteko.

“Nora noia? (...) nik hori baneukan bilurra. Ez hainbeste urruntasuna, zeren urruntasuna bai, baina zuretzat pertsonalki baino zure familiantzat. Igual zu zaude espetxe batean urrunago dagona baina igual baldintzak hobiaguak dira... Baina familiatik aparte, de nora eta zeinekin toukau behar jat.” (Alaitz)

Presoen artean sortzen diren harremanak aurrerago aztertuko ditugunez, orain dispertsioaren ideian zentratuko gara gehiago. Alaitzen kezketako bat, Euskal Preso Politikoen Kolektiboari ezartzen zaion zigor “erantsietako” bat da, hain zuzen, haien etxetik urrun dagoen kartzela batean egotea. Baina hasieran esaten genuen bezala, espetxeen barruan ere Euskal Preso Politikoa haien artean dispertsatu egiten dituzte. Jurdanen bikote S.k, Andaluziako kartzela batean amaitu zuen, beste bi preso politikorekin erabat bakaturik. Ez zuten beste inor ikusten.

*“Ez dakit ze gradu zekon, baina hori, egon zien juntu hemengo preso neskek, 3, eta eurek euren patixotxue, eta... ez zuten beste inor ikusten. Sekule besteren bat, horren inguruan egiten giñula berba beti. Osea, sozial bat. Zirela espejimen batzuk.”
(Jurdan)*

Emakumeak espetxeetan gutxiago izaterakoan, bakarrik egoteko aukera gehiago izaten dituzte. Goiko egoera kasu.

Emakumeen egoera kartzelan

Emakumeek kartzela barruan bizitu behar dituzten dispertsio horiek, Euskal Preso Politikoen eta ama diren presoek bizi behar izaten dituzte batez ere (salbuespenak salbuespen). Baina guztiek espetxeak emakumeekiko hartzen duen jarrera pairatu behar izaten dute. Bazterketa hauek identifikatzeko garaian, adibide batekin geratzea zail egiten zitzairen elkarrizketatuei. Irantzuk adibidez honela definitu zuen kartzelan ematen zen egoera, zapalkuntza integralekoa bezala.

“Da kanpoko soziedadearen erreprodukzio bat baina igual bortitzagoa izan daitekeena eta gainera segregazio batekin eta horrek ekartzen duen guztia.” (Irantzu)

Espazialki, eskaintza aldetik, baliabideen aldetik... orokorrean guztian atzean uzten zituztela gogoratzen du Onintzek.

*“Emakumeak ginan beti como las ultimas monas, osea, emakumeen moduloa zen, kirola aztertu behar bazen egutegian, normalean mutilak beti zeukaten hobeto gu baino, modulo aldaketa eman behar baldin bazen, zeren errespetuzko modulo gehiago ireki behar dira mutilei begira, ba emakumeak egingo ditugu horrea eramanez, moduloz aldatu ginan agian hiru aldiz, gainera azkenean ia-ia geratzen zea txarrenekin. Ta gero gainera mutilak joan behar badira modulo horretara, lasai hau botako degu ta jarriko degu patio guztia ongi... badaude hor gauzak konturatzen zarena garela beti,... pues claro, azkenean 15 modulotatik 1 emakumeena, pues...”
(Onintze)*

Militantzia

Preso Politikozentzako garrantzitsua da kartzela barruan lan politiko bat egiten jarraitzea. EPPKn militatzeak, edo kanpoan egon daitezkeen eztabaida ezberdinak kide artean ematea beharrezkoa da haientzat.

“Espetxeratua izan zara zure militantziagatik eta bat-batean ez zara ezer zentzu horretan. Orduan militante sentitzea, eta bestalde espetxean euskaldunok duguna da (...) asko eta hori ematen du kolektiboak. Espetxearen helburua da zu bakarrik sentiaraztea eta kolektiboarekin ez, sentimendu hori beti de pertenencia a un grupo, horrek espetxean salbatzen zaitu.” (Ihintza)

Hain zuzen, kolektiboan egoteak, preso izaera politikoa dutela aldarrikatzera daramatza etengabe. Haien borroka konstantea, euskal preso politiko gisa kontsideratuak izatea da, alde batetik, preso dauden arrazoiak politikoak direla agerian uzteko, eta bestetik, haiekiko egiten den espetxe politika konkretua agerian uzteko.

“Bada borroka konstante bat zure izaera onartzeko, preso politiko bezela, ze hori da ukatzen dizuten lehenengo gauza, abian hori ukatzeak ere ukatzen du gatzaka bat dagoela EHn. Eta horrekin zaude etengabe zure izaera politiko hori aldarrikatzen, gainerako presoekin erreza da eta onartzen dizute” (Irantzu)

Honetaz gain, zenbait emakume feministak, kolektiboaren barruan emakumeen egoera berezitua agerian utzi beharko litzatekeela uste dute, haiekiko zapalkuntza berezituak egiteaz gain, kartzela bera bizitzeko eta ulertzeko modu ezberdinak dituztelako. Kolektiboak talde baten parte izatea bermatzen dizu, baina aldi berean, zenbait berezitasun, kasu honetan emakumeen egoera berezitua, ez da islatua ageri lan politiko horretan.

“Batzutan ematen du dela gai bat landu daitekeela edo landu behar dena, baina nire kezka da batzutan jendea ez dela konziente, ez da ildo bat bezala, gaixo dauden presoak, edo dispertsioa, edo... Emakumeak espetxe politika diferentea bizi dute, orduan da, errealidade guzti hori nola bizi duten azaltzea, izan beharko litzatekeena, gaur egungo diskursoaren diferentea da, zuk galdetu didazun bezela den, nik hitz egingo dut emakume moduan nola bizi dudan espetxea, ez gizon bezala, eta uste dut diferente bizi dugula, eta oinarrian hartu dena beti izan da gizonezkoena, eta bai iruditzen zait gabezia bat dagoela, gabezia dago ez delako inoiz lanketarik egin, ez dago lanik apenas horren inguruan jasota, eta kalera begira ere oso lanketa gutxi egin da, ez bada izan bueno, mugimendu feministako kideekin kontaktuan jarriko gara eta a ber zer... edo amatasunarekin lotua... Ezin da horrela izan.” (Irantzu)

5.2.2. Harremanaren jarraipena?

Espetxeratzeak, harremanean egoera berri bat suposatzen duenez, egoera honetan, harremana mantentzearen edo puskatzearen inguruan hausnarketarik egiten ote den galdetu nien elkarrizketatuei, eta inork ez zuen horrelakorik planteatu. “Oztopo”, “zailtasun”, “jarraipen” edo “moldaketetz” hitz egin zuten, “negoziaketetz” batzuek,

baina egoera horretan harremanarekin jarraitu nahi ote duten ez zion inork bere buruari galdetu. Gerora, hausnarketa hau beharrezkotzat jo zuen batek baina gehiagok, baina momentuan, ez zuen inork egin.

“Lehenengoa harremana izaten jarraitu nahi duzun edo ez. Nik uste. Ez igual hasierako momentuan, edo behintzat niri...baina nik bizi izan dudanagatik, lehenengo momentuan jendeari ez zaio hori burutik pasatzen. Da gure reflejoaren...bat besteari babestu a sako. Eta gero nik uste dut ia nekea agertzen hasten den heinean... osea, nik uste ez kanpokoak ez barrukoak hasieran ez garela guztiz kontziente dugun egoeran...vis guztiak, aber hilabetero,visak ...eta orduan ikustea hasten dela ya dudak. Eta hor bai, eta ia askotan inseguridadeak barrukoari de...baina merezi dizu, baina...nik uste askotan gehiago kezka hori dela barrukoarena kanpokoarena baino.” (Ihintza)

“Keba, momentu bat bez ez da eon, bueno igaul burtik pasa iten jatzu baina planteatera heldu ez da heldu, urte hauetan ez da eon momentu bat platea dotenik, burtik pasa bai, baina garai horretan (...), atxilotze eguna eta falta zan momentuetan keba, burutik pasa bez, garai horretan ez, neuan prest inplikatzeko erabat. Edozertarako prest neuan.” (Idurre)

Hala ere, bai ikusi ahal izan dugu, batez ere barrukoaren partetik, kanpoko bikotekideak egiten duen lana dela eta zalantzak edo kezkek izatea. Batez ere kanpokoak egiten duen lan guzti horren aurrean, barrukoak eskaintzen diona gutxiegi ez ote den pentsatzean.

“Azkenean dira beldurrak porke nahi edo ez preso dagoenak, nik uste, sentitzen duela, nik behintzat, zu barruan sentitzen zara pixka bat marronito bat. Eta badakizu zarela marroi bat, badakizu ez duzula hori pentsatu behar...sentitzen zara horrela. Bidaiengatik, paketeak,...konziente zara ke no aportas casi y recibes un monton...” (Ihintza)

Eta emakumeek soilik ez, elkarrizketatu ditugun gizonezko presoek ere asko baloratzen zuten bikoteek haiengatik edo haientzako egiten zuten lan guztia, eta horrek ere modu batean presioa eragiten zien.

“Esan nion, beitu, nik uste dut ni oso gustora nago zurekin, baina orain ditut kriston beharrak hemen barruan, behar afektiboak, niretzako bera zen oso sustengu handia eta nik aldi berean esan nion, nik uste dut harremana ezin duela izan harreman sendoa, ulertuta konpromiso altuko harreman bat, nik uste izan behar da askatasun osoko harremana, lehen baino gehiago, askatasun sexuala batez ere, osoa zuretzako, kanpoan zaudelako.” (Koldo)

Egoera honetan, bikotekideak egiten duen guztia ikusita, eta mutilen begietan egiten zituen “sakrifizioak” ikusita, zenbait kasutan, bai elkarrizketatutako mutilek, zein elkarrizketatu ditugun bikotekide neskek kontatu digutenez, “askatasun osoa” ematen zieten mutilek neskak beste pertsona batzuekin harreman sexualak (eta kasu batzuetan afektiboak ere) izan zituzten. Zenbait kasutan, badirudi nolabaiteko baimena ematen

dietela mutilek neskei nahi dutena egiteko. Kasu gehienetan ordea, neskek, “haiek nahi zutenean egingo zutela” erantzuten zieten, eta erabaki hori “haiena” zela.

“Niretzako zen obsesio bat hori, ba hori batez ere ez zela sana, me imaginaba como rollo, hau da jarraitzea elizaren dogmak, erromantizismoa, zeozer idilikoa, bai-bai-bai posiblea da harremana mantentzea bizi osorako y sin tocaros ni nada, zen en plan, hau da surrealista hau ez da normala. Eta berak adibidez esaten zidan, hasieran arrazoia ematen baina gero, berak esaten zidan hori nik esango dut, ez zuk, ze nolako beharrak ditut kanpoan eta hori nire esku dago eta nik esango dizut, eta noski baietz egingo dudala beti nahi dudana, hori ni lo dudes.” (Koldo)

Geroago aztertuko dugu harreman irekien “fenomenoa”. Kasu askotan ematen den egoera bat baita.

Interesgarria da ere, harremana kartzelan sartzen denean harremanaren egoeraren inguruan duen ikuspuntua, horrek, kartzelako bizitza eramateko modua definitu dezakeela iruditzen baitzait. Adibidez, Irantzurentzat harremanak “jarraipen” bat izan zen kartzelan egon zenean.

“Nik harremana bai bizi izan dut jarraitzen zuen zerbait bezela, eta bai uste dut elikatu dugula etengabe, zeren elikatzen ez baduzu, elikatu hitz egiten, hitz egiteko aukera gutxiago daukazu baina dituzunak aprobetxatu behar dituzu topera, orduan, uste dut oinarria izan zitekeela komunikazioa.” (Irantzu)

Jarraipen gisa irudikatzeak, egunerokotasuna bizitzera eraman dezake bikotea, bakoitzaren espazioak aintzat hartzera eta horiekin harremana elikatuz. Beste batzuek ordea, kartzela, oztopo bat bezala ikus zezaketen haien harremanaren garapenean.

“Azkenean badakizu dela epe laburreko obstakulu bat bidien, eta hori pasauko dala, azkenien pentsetan dozu, oin gaixki pasako dogu baina helduko da momentua berdin jarraituko dabela lengo moduen, ez? Horrek igual.” (Jurdan)

Kasu honetan, Jurdanek dioen moduan, iraganean elikatzen ahalegintzen dira egoerari aurre egiteko, kaleratzean, “lehen” zeukaten hori aurkitzeko esperantzaz. Beste batzuek, lehenaldi hori bizitzen dute, baina baita etorkizuna ere. Ametsek paper handia hartzen dute harremanaren garapenean, eta kartzelako egoera “amaitzean” egingo duten horrekin elikatzen saiatzen dira harremana.

“Apu bat zuen harremana iraganin eta etorkizunin zentratzen da. Hau da, iraganeko oroitzapenetatik elikatzen da behin da barrero, eta etorkizuneko proiektu... proiektu horretan, baina orainin ezta gauza handirik.” (Argiñe)

Kartzelan, harremana bizitzeko hiru denbora: lehenaldia, oraina eta etorkizuna, elkarriketatutako besteek konpartitzen zutena. Noski, ez dira denbora itxiak, eta aldatzen joan daitezke. Ametsek, lehenaldia edo oraina bizi duten horietan ere eragina

daukate. Iraganak ere presentzia dauka orainean... Hala ere, baliagarria izan daiteke harremana bera ulertzeko modu hauek kontuan hartzea, gerora, harremanaren beraren garapenean nolako garrantzia duen (edo ez) ikusi ahal izateko.

5.2.3. Harremanak kartzelan

Elkarrizketak egiteko garaian, bai kartzela barruan egon diren neskak, zein haien bikotekideak preso izan dituzten neskak izan dira protagonista. Alde bakoitzak bere ikuspuntua du, bakoitzak bere bizipena duen neurrian. Beraz, atal honetan, ahal den neurrian, barruko esperientziak eta kanpokoak banatuko ditut (askotan errepikatuko direla jakin arren). Horrela, eremu bakoitzean dauden berezitasunak hobeto ikusi ahalko direla uste dut.

Barruko esperientziak

Bikote harremana garrantzitsua

Elkarrizketatu ditudan preso ohientzako, gauza garrantzitsuenetakoa da bikotea espetxe garaian. Alde batetik ematen dieten babesagatik. Oso garrantzitsua da presoentzat egoera horretan babestuak sentitzea, norbaitengan konfiantza eduki ahal izatea. Haien ustez, besteak beste, bikote harremanak hori ematen die.

“Bua, neretzat momentu hortan zan inportantea. Bai. (Isilunea) Zan euskarri bat. Ez dakit. Momenturen batean gaizki egongo banintz edo, ostra, jun eta norbaitekin askatu ahal zeana... eta bai egia da sentitzen nula alde horretatik erantzuna, ez dakit koltxoi hori hor egongo dala bezela. Eta ni momentu horretan bai behar non.” (Onintze)

Bikoteak pisu handia hartzen du egunerokotasunean, bai komunikatzeko aukera asko harekin erabiltzen direlako, zein ametsen protagonista asko haiek bihurtzen direlako.

“Eta gainera bikoteetan, esan duguna, espetxean zentratzen zara bikote harremanean, y te da vidilla, pero la mierda era, osea, azkenean gehien bizi duena da ondoan dagoena, izaten direla bikoteak... Para mimarle, para aguantarle, para hostias, mierda...” (Ihintza)

Ihintzak bizitu izan zituen espetxean harremana eramaterakoan egon ahal diren bi aldeak, barrukoa eta kanpokoak, eta bere testigantzan oso presente dago, egunerokotasunean bikoteak hartzen duen figura garrantzitsu horrek, askotan, kanpoan dagoena mugatu dezakeela. Egin behar dituen lan guztiengatik edo bere egunerokotasuna kartzelan zentratzeagatik. Hala ere, ez da bakarrik aspektu hau kontuan hartzen zuena. Preso ohi emakume zein gizonek aipatu egiten dute aspektu hau.

Bikote harremana poztasun iturri bezala ikusten dute gehienek, ilusioa bizirik mantentzeko elementuetako bat bezala. Alaitzentzako adibidez, bikote harremana kartzelan zegoela hasi zuten, nahiz eta lehenagotik lagun harreman sendoa izan. Alaitzek, bere bikotearekin zuen harremana, “plus” bat bezala ikusten zuen.

“Bizi neban de ostia, que buena, egoera honetan egonda, izan gazela gai apustu bat egiteko. Igual kalean ez ginan inoiz konturatuko eta harreman bat termino hauetan hasiko ez? Orduan nik uste igual beste bikoteetan ya harreman bat daukazunian ya minus bat bezala bizi dozula eta nik plus bat bezala bizi nabela.” (Alaitz)

Plusa, kasu honetan, beste harremanekin alderatuta izendatzen zuen. Hain zuzen, berarentzako, kartzelan, harremanak eramateko muga ugari daude, eta harremana beste parametro batzuetan bizitu izan dutenentzako, harremana kartzelan negatiboa izan behar duela uste du. Harremana garatu ahal izateko moduak gutxitzen dira dudarik gabe (ikusteko aukera gutxi, hitz egiteko denbora gutxi, egunerokotasun bat-batekoa konpartitu ezin izatea...), baina honetaz gain, harremanaren beraren “funtzioak” ere aldatzen dira batzuen iritziz.

“Zailtasun egoeretan harreman horri ematen diozu garrantzi gehiago, ematen diozu funtzio gehiago, funtzio oso ezberdinak ere bai. Hor bikoteak egin behar duena ere ez da bakarrik harreman normaletan egiten dena, hortik haratago doa, erlazioa familiarekin ere, igual ez da egon garai arte eta bat-batean da izugarritzko harremana... Hor ia agertzen dira faktore oso ezberdinak, eta ia bikotea ez da bakarrik hori, gainditzen du dimentsio oso-oso ezberdinak.” (Koldo)

Harremanak zentroan jartzean eta honi funtzio berriak ezartzean, modu hobea edo okerrago batean moldatuko dira bikoteko kideak. Kartzelan, batzuentzako, “obsesio” bihurtzeraino heldu dira bikote harremanak edo hauek galtzeko beldurra.

“Nire tripako min nagusija bikote harremana izan zan. Ez dakit hori estrapola ahalko bada, hori in beharko zana zabalago ikerketia baina ni behintzat kartzelan momentu askotan bajoiaz egon, edo txarto egotia egonarazi dostan azan bikote harremana, bilurrak, galtzian bilurrak, osea, konstante bat.” (Gotzon)

Beraz, ikusi dezakegun moduan, faktore oso garrantzitsua dira guztientzat bikote harremanak. Batzuentzat ez dira poztasun iturri bakarra, familiarekin, lagunekin, edo kartzelako kideekin izan ditzaketen harremana garrantzitsuak dira ere bai haientzat. Baina bikotea, faktore garrantzitsuenetakoa dela baieztatu dezakegu kasu guztietan, batzuetan, erdigunea izatera heldu delarik.

“Nire kasuan positiboa izan da idealizatze hori, nik adibidez harremanak ez ditut idealizatzen, baina espetxean a saco. Era todo rosa. Momentu horretan nik uste dela autodefensa.. X. ez da nire bizitzako zentroa, baina espetxean casi bai. Ni saiatzen nintzen orekatzen deien kontuarekin por ejemplo, baina nire pentsamendua

etorkizunean %60ean seguramene izango ziren X.renak. Y tengo mucha gente en mi vida.” (Ihintza)

Ametsak

Esan bezala, amets egitea, edo etorkizunean pentsatzeak, garrantzia handia hartzen du bikotearen egunerokotasunean kartzelan. Etorkizunean burutu nahi diren planak, elkarrekin konpartitutako ametsak espetxetik ihes egiteko mekanismo garrantzitsua da presoentzat.

“Nik uste dut barruan behar dituzula ametsak, joe ba ateratzen egingo det... Ba amets hoiek, hoiekin bizitzea ebai azkenean hortik pixka bat ihes egiteko, ametsen bidez egiten duzu ihes.” (Onintze)

Hala ere, ametsen kontu honekin, batzuek ez zuten haien pentsamenduen edo zorientasunaren giltza bertan kokatu nahi. Amestea beharrezkoa dela diote, baina saiatzen dira gauza “errealekin” amesten, edo egunerokotasunean egin ditzaketen gauza “txikiei” garrantzia bera ematen.

“Eta nik uste beharrezkoa dala (idealizazioa). Nik imaginatzen dut, danak imaginatu behar dogu. Imposible da zure bizitza bakarrik imaginatzea. Lau paraten artean eta hor gertatzen dana. Seria inhumano. Evidentemente baina zerbaitetan indarra jarri behar badozu eta elikatu behar badozu zure harremana, pues izan dadila en esa carta que le has escirto o en ese vis... mas que en prometer, en pajear en que vamos a ser felices. Vamos a ser feliz ahora, y en un futuro tambien o no. Ez dakit gustora ez?” (Alaitz)

“Gero ere badituzu kanpoan dituzun ametsak, igual espetxean aurretik zenituen ametsak. Nik oportekin amesten nuen pilo bat zeren ziren gure jolasa bebai, oportetan joatea, oportrak egitea egunero... Edo joatea por ahi jatera, edo zinemara, zela igual egiten genituen gauza hoiek.” (Irantzu)

Amesteko bi modu dira, batzuen “errealagoa” dela esan dezakegu, eguneroko gauza txikietan zentratuagoa, eta besteena “onirikoagoa”. Baina harremanaren denborarekin (iragana, oraina edo etorkizuna) gertatu bezala, hemen ere alde batetik bestera salto egitea posiblea da. Gainera, hori izaten da modurik arruntena presoan artean, bien uztarketa bat egitea. Hala ere bai da errealitate bat, batzuek espetxeko egunerokotasunean ere amesteko baliabideak aurkitzen dituztela, eta besteek kanpokoak behar dituztela amets egiteko.

Kartzelak harremantzeko ematen dituen bitartekoak

Kartzelan, kanpoko jendearekin harremantzeko, deiak, gutunak, bisitak eta visak daude. Askotan, bitarteko hauek, batez ere bikotearekin erabiltzen dituzte. Maitasuna demostratzeko daukaten modua izan daiteke batzuen iritziz, zenbat eta dei edo gutun

gehiago eskaintzen zaizkion bikoteari, maite duzunaren seinale. Beste batzuentzako “behar” bat da ahalik eta gehien komunikatzea bikotearekin.

“Deitu... emm zenbat dei genituen? Zortzi... Ba sei gastatuko nituen berarekin eta batzuetan zazpi. Osea ama deitzen nuen astean behin eta saiatzen nintzen lagunen bat deitzen, txandakatzen nuen lagunen bat astean behin, eta gainerako deiak M.rekin, baina bueno, desfasatzen nintzen nahikotxo, osea bukatzen zitzaizkidan deiak igandea baino lehen, astelehenetan normalean egiten nituen bi dei jarraian,, 10 minutukoak. Zeren nik kanpoan berarekin hitz egiten nuen telefonoz asko eta bost minutu es que ez da ezer, orduan, astelehenak jartzen genituen 10 minututakoak, eta astelehena zen opari bat niretzako.” (Irantzu)

Baliabide hauek kudeatzeko modua aldatu egiten da elkarrizketatutako pertsonaren arabera. Baina denek konpartitzen dutena, vis a vis intimoen erabilera da. Hauek, nahi eta nahi ez bikotearekin egin behar dira, eta hilean behin burutzen dira. Harreman sexualak izateko prestaturik dauden gelak dira, eta haien egoera kaxkarra eta “kutrea” izan daitekeen arren, guztiek bat egiten dute kartzelako momenturik intentsu eta hoberenetako bat zela esaten.

“Bua, neretzako ziren onena, batez ere intimoa, familiarra ere bai, baina... hilabetean behin izaten ziren, jartzen ginen, prestatuago, aukeratu ze arropa eramango duzun, ez dakit nork egiten dizula peinau hau, ez dakit zer, baina zen pues, gure espazio intimoa.” (Irantzu)

“Emocion. Sentsazio onak denak. Osea, nik uste, burua ere egiten dela eta ese propio.. mentalizatu beharra egin behar duzunerako, ateratzen dela natural. Osea, oroitzapena da, de hacer el mongolo, disfrutatu edo.. Igual porque somos de tendencia de hacer el subnormal baina... Ez nuen bizi izan frustrantea bezala, edo izango da motza.... Agurtzean bai beti un poco de... Azkenean burua joaten zaizu kanpora, eta ahazten zaizu kasi hor zaudela, eta berriro, mierda, otra vez... Gehien bat agurtze zati hori, eeehhh!!! Emocion, ongi, guay, pero ya de, queda un minuto, eta jo... (negar imintzioak egiten ditu) mierda! Baina ongi. Eta gero buelta ere subidon.” (Ihintza)

Hala ere, bai sortzen da nolabaiteko “egonezina” aurrez aurreko hauen programazioarekin. Ez da, ez presoak, ez haren bikotekideak nahi duenean, baizik eta espetxeak esaten duen egun eta orduan, eta honek, batzuetan “gogo atera behar” izatea dakar. Horrek izorratu dezake momentu hauen “berezitasuna” elkarrizketatu batzuen ustez. Hala ere, egoera honi aurre egin izan diete guztiek, eta ez dago bat ere ez oroitzapen txarra duenik.

“Badakizu, espetxean es como el ratico, y rompe ahi.. Nik uste dut buruak ere egiten duela klak! Ez dagoelako besterik y te animas sola de camino... Oso ongi eraman genuen. Baina, azkenean no deja de ser forzado. Edo igual askotan zen, ahora me apetece estar... Pero... Azkenean programatzen duzu dena, programatzen duzu egunerokoa, programatzen dituzu zure harremanak...”(Ihintza)

Denborarekin, vis a visetara ohitzen joaten da presoak, eta pixkanaka muga batzuk azaleratzen joaten dira.

“Lasaitasuna, naturalidadea, osea alde horretatik gero eta hobeto baina gero beste alde batetik benetan daukazun behar hoiek ez direla betetzen be gero ta gehixeago. Esaten dot azkenean zuk sexualki bebai, eta bikote batek eta be lagun batek bebai ematen dotzuna ez da sexua ez dakit zenbat denbora (...), sino nik ia botatzen nuen faltan, pues, lasai egotea, besarkatuta egotea, mimoak egite, osea isilik egotea, porque claro, ezin zara egon isilik porque claro, ez badozu iten berba, ez badozu iten ez dakit zer, estas perdiendo el tiempo porque daukazu super kalkulauta orduan nik uste dot hasiera baten, horregatik, de nerviosismo ez dakit zer, gero juten dala naturalizatzen, lasaitzen egoera, eta bizitzen minutu hoiek.” (Alaitz)

Vis a visetan, elkarrizketatu ugari espexetik ihes egiteko aukera izan zuten mentalki. Momentu hauetan, burua espexetik kanpo ateratzen da, eta horregatik batzuei gogorra egiten zaie hauek amaitu eta espexera bueltatu behar izatea. Beste batuek aldiz “hilabete txutea” bezala definitzen dute.

Ezkontza

Aurrez aurreko intimoak egin ahal izateko, izatezko bikote paperak izatearekin aski da (lehen bizikidetasun ziurtagiriarekin nahikoa zen), baina zenbait kartzelatan paper hauek espexeratze garaian eginez gero, sei hilabete itxaron arazten dute bikotea lehen vis a visak izan baina lehen. Hau dela eta, zenbait bikotek ezkontzeko hautua egin dute. Honen inguruan hala ere eztabaida ugari daude Presoen Kolektiboaren barruan, vis a visak izateko exijentziak geroz eta altuagoak direlako.

“Zan eztabaida bat kideen artean zegona hor... eta gainera nik uste dut egon direla kide asko, horri aurre egiten, ez dugu horretara jeitsi behar, hau eskatzen digute, eta hurrena eskatuko digute umeak eduki behar ditugula, hurrengo eskatuko digute agian pinoa egiten sartzea... Orduan hor eutsi egin behar da... Baina gero momentuan esatezu, nik nahi dudana da visa egin, nahi dut berarekin egon eta azkenean paper bat firmatu edo bestea pues, pixkat como que berdin zait, eta ordun egin genun ezkontzekoa.” (Onintze)

Paper horiekiko axolagabetasuna erakustea izan da ezkondu diren askoren hautua, ez baitute egin ezkondu nahi zutelako (elkarrizketatu ditudan pertsonen artean behintzat). Beste batzuei aldiz gatazka gehiago sortu zizkien erabaki honek.

“Guretzat ezkontza da gure ideologiaren kontra doana baina a tope, orduan, pentsatzen genuena zen, pareja de hecho egite horretan, eta bueno, ikusiko genuela zelan egin, eta de hecho ipar EHn egon nintzenean egon ginen hori begiratzen, baina Frantziar estatuan bi neskek ezin zuten egin, badago kontrato bat deitzen dela Pacs eta hori bai egin genezaken, baina hori egiteko joan behar nintzen espainiar kontsulatura eta orduan atxilotuko ninduten, eta orduan ezin nuen egin. (barreak)

Orduan hori ere deskartatzen joan ginen eta Ipar EHN nengoela hasi ginen ezkontzarena mugitzen...” (Irantzu)

Irantzuren familiak eta bikoteak “ez-ekontza” deitzen diote egin zuten tramite horri. Etorkizun batean, egoera guzti hau amaituko denean, ospatuko dutena dibortzioa izango da, horrek, “guztia” amaitu dela erakutsiko baitu.

Sexualitatea

Sexualitatearen praktika vis a vis intimoetara mugatzen du espetxeak, eta askotan, presoek beraiek, horretara bakarrik mugatzen dute haien esperientzia sexuala. Zaila izaten da masturbatzeko momentuak aurkitzea askorentzat, batez ere bikoiztuta daudenean (zelda batean binaka daudenean). Preso batzuek, tarreak bilatzen ahalegintzen dira, komunetan, bakarrik egoteko aukera dutenean...

“Oso arautuak daude harremanak, arautuak ez daudenak egiteko muga asko hautsi behar dituzu, batez ere psikologikoak direnak, izaten da intimidadea, jende asko masturbatzen da bakarrik, bakarrik dagoenean, zeren uste dut zailtasun asko dituzula beste pertsona bat aurrean dagoenean egiteko... Igual baten batek beste bide batzuk aurkitu ahal ditu, baina kalean bezala.” (Irantzu)

Beste presoekin afektibitate eta kontaktu hori bilatzen saiatzen dira, besarkaden, masajeen, muxuen, etab.en bidez.

“Guk afektibitatea gure artean bai lantzen dugu, gu asko geundenean, bueno ni oso mimosa naiz, eta igual eskatzea kili-kiliak elkarri edo bata bestaren gainean botata egotea, edo gutxiago zaudenean ere bai, eta nahiz eta eduki epoka bat ez daukazuna gogoia, ba beste batek eskatu... eta inkluso, sozial batekin ere bai eduki dut harreman bat oso estua, besarkadak ematekoa, osea afektiboa. Nire laguna zen, eta nik nahi nuen berarekin egon, eta inkluso, kili-kiliak eskatu. Eta lagun bati idazten niola, esaten nion, zuk nola betetzen dituzu zure behar afektiboak? Nire kezka nagusia zen mutilek zelan egingo zuten hori.” (Irantzu)

“Emoten dabe emoten dabena (familia, lagun eta bikoteekin dituzun hartu emanak kartzelan), puntu, hori baina gehixo ez dotzue emango. Orduan, hau emoten dau, honarte heldu ber zara (marra gorago jartzen du), eta honarte zeuk kudeatu behar dozu eta kudeaketa hori barruan in ber dozu. Orduan saiatzen zara barruan modu batera edo bestera afektibidatez, sentimendu, kidetasun hori topaten eta nik topa dot kidiatan, preso politikoetan zein beste kidiatan bebai e?” (Gotzon)

Presoarentzako zaintza lanak

Bikoteak preso dagoen pertsonarentzako egin behar dituen lanak preso guztien ahotan egon ziren neurri altuago edo baxuago batean. Batzuentzat ezinbestekoa izan zen bikoteak egin zuen lan hori, bai haientzat, zein haien familientzat ere. Preso zeuden nesken bikoteek lan mota hauek betetzen zituzten, hala nola, paketeak prestatu, bisitak

antolatu, erosketak egin... Batzuen kasuan, familiarekin banatuak zituzten lan hauek, eta besteen kasuan dena bikoteek egiten zuten. Lan hauek duten pisu handia mutilek aipatu zuten batez ere.

“Gero egixa da ze helduleku bihurtzen den bikotia, edozertarako. (...) saiatzen nintzan pixkat, nik neukazan beharrianak asetzeko dibersifikaten. Ikasketen rollua ez dakit nori pasakotzat, edo ez dakit ni zer liburu lortzia... baina azkenin askotan enbudo beregan amaitzen dabe.”(Gotzon)

Gainera, lan honek zuen “kargaz” ohartuta, presio moduko bat sentitu zuen elkarrizketatuetako batek hauen aurrean. Bikotekideak egiten zuena “sakrifizio” handi bezala ikusten zuen Koldok, eta ez zuen nahi bikotearen bizitza horren beste baldintzatu.

“Nik ez dut nahi baldintzatu ezer, nik ez dut nahi zure bizitza baldintzatu... a mi luego no me heches las culpas de egon gara bi urte horrela, ni espetxea eta zu kalean, baina hilean bi aldiz etortzen, deiak, gutunak... osea niretzako zen kriston lana, nik ikusten non bere aportazioa kristona bezala.” (Koldo)

Harreman “irekiak”

Behin eta berriz agertu den gaia izan da harreman irekiena. Kasu honetan, gehienek bat egin dute, esporadikoki harreman sexualak beste pertsona batekin izatea “normala” dela. Batzuek, kartzela aurretik horrela planteatzen zuten haien harremana, eta beste batzuek kartzela garaian planteamendu hau berrartu eta batzuen kasuan “gehiago ireki” dute.

Preso egondako nesken kasuan aukera hori aurretiaz bazegoen Ihintzaren kasuan, baina berari dagokionez, kalean egon zenean “ez zeukan gogorik” sexu harremanak izateko beste pertsona batzuekin, ezta ligatzeko ere. Onintzek, gaiaren inguruan hitz egin izan dutela kontatu zidan, baina bera prest ikusten ez zela, zalantza handiak baititu harreman sexualak, harreman afektiboez banatu daitezkeen. Irantzuren kasuan, hasieran ikusi ahal izan dugun moduan, harremana planteatzeko beste modu bat daukate, eskusiboa ez dena, eta beste jende batekin bai sexualki zein afektiboki harremantzeko aukera ematen duena. Hala ere, bere bikoteak harreman eredu anitzetan denbora gehiago lantzen aritu dela dio, eta berak oraindik ikasteko eta lantzeko asko duela. Ihesean edo espetxean zegoela bere bikoteak beste harreman batzuk izan zituen, eta hauek “mugitzen” zutela esan zidan.

“Sortzen zaizkizu, bueno ez dira beldurrak, dira zeloak, azkenean zure leku hori galtzea, pribilejiatu egiten zaituen lekua galtzeak mugitzen zaitu.” (Irantzu)

“Eta nik lehenengo hilabeteetan ez baina bukaeran bai izan nuen inseguritate pixka bat (...) ni naiz hau (...) baina bai pasa nuen gaizki...ezin egon horretan bere bizitzan, hasi zen jende konkretu bat hartzen paper garrantzitsu bat bere bizitzan eta horrek areagotu zuen nire inpotentzia de no poder estar haya. Horrek ez du esan nahi bete behar nuenik nik bere hutsune guztia baina...” (Ihintza)

Harreman eredu edozein dela ere, Irantzuk eta Idurrek azaltzen duten espazio horren galerak beldurtu egiten ditu elkarrizketatu ditugun preso ohiak. Horren aurrean beraz, Vis a visak egitea, edo komunikaziorako tresnak erabili ahal izatea, harremanean sakontzeko eta hau mantendu ahal izateko tresnatzat dute.

“Niri horrek mugitu ninduen, karo Ipar EHn zegoela, pentsatzen nuen: izan da ni egon ez naizelako, osea es que normala da, ni ez naiz egon 4 hilabeteetan eta berak ezagutu du pertsona bat eta gainera errepikatu zidana mila aldiz zen berak nirekin egon nahi zuela, eta osea, ni hautatu ninduela, orduan horrek ez zuen kentzen beste guztia eta nirekin egongo zela, eta nirekin jarraituko zuela bide guztian zehar. Orduan, gainera nik uste nuen ni espetxera helduta lortuko nuenean visak edukitzea, eta guzti hori, ere bai, ez nion ikusten behintzat esaten zuenagatik, harreman hori luzatuko zenik, nahiz eta gero nik kezka eduki. Eta karo gero nire, nahi nuena zen ni visak eduki ahalik eta azkarren.” (Irantzu)

Harreman irekiak aurretiaz hitz eginda bazituzten ere, elkarrizketatutako bi mutilek, kartzelan zeudela, haien bikoteei hauen praktika egin behar zutela esaten zieten, haien iritziz “ez zelako normala” harreman bat egoera horietan garatzea. Lehen aipatu dugun moduan, haien aldetik, neskarentzako hoberena zer den hausnartzen dutela ikusi dezakegu hemen, eta haiek, nolabait, baimena edo bultzada eman nahi dietela praktika “egokiak” eduki ahal izateko. Bi mutil hauen neskek ordea, argi utzi zieten, haiek nahi eta behar zutenean egingo zutela.

Babesaren beharra

Orain arte ikusi ahal izan dugun moduan, babes garrantzitsua dira presoarentzat kanpoan dauden pertsonak, haiekiko maitasuna adierazten dutenak. Horregatik, denentzat paper garrantzitsua betetzen dute bikoteek, kanpotik, babes eta maitasun hori adierazten baitiete egiten duten guztiarekin. Presoarentzat, egoera horietan, beharrezkoa da maitatua sentitzea. Egoera “estremo” horietan haienezako laguntzarik hoberena da.

“Sentitzea maite zaituztela, zure familiakoak edo... eta ez zaudela bakarrik eta egiten duzunagatik, pentsatzen duzunagatik, edo egin duzunagatik, jendea zurekin dagoela edo harro egon daitekeela, ba oso inportante da.” (Irantzu)

Kanpoko esperientziak

Esan dudan moduan, bigarren zati honetan, harremanak espetxean kanpotik nola bizitzen diren aztertzen ahaleginduko gara.

Hasierako momentuak

Espetxeratzean, sentimendu ugari nahastu izan zaizkie elkarrizketatuei, haien bikoteak inkomunikatuta zituztenentzako, modu batean “lasaitasuna” suposatu ahal izan du, torturen mamuak alde egiten duelako. “Pena” ere sentimendu konpartitua da, baina ia denek, hasierako momentu horietan sentimendu hauek zokoratu eta “aurrera egiteko” indarra hartzen saiatzen direla adierazten dute.

“Aurrera egiteko” honek, kartzelako dinamikara egokitze daramatza bikotekideak, espetxeak nola funtzionatzen duen, zeintzuk diren egin beharreko lanak... Askok, hasierako momentu horietan (eta batzuetan luzatu egiten den egoera da) presoak “ondo” egon dadin saiatzen dira, berari animoak ematen, sentimendu positiboak transmititzen saiatzen... nahiz eta gero, espetxetik ateratzerakoan, lur jota gelditzen diren.

“Ni juten nintzen bisitak egitera presoari zentzu batean transmititu behar diozu lasaitasuna, ongi zaudela, animoso zaudela, indartsu. Ez dakit, beste aurpegi batekin eta hortik atera eta egon negarrez, bajoiaz... pixka bat indartsu egon, bai telefonoan edo bai berekin egoterakoan. Beno, hola gaude baño...” (Lorea)

Presoa animatu, eta babestu behar dela sinetsita daude bikotekide asko hasieran. Honek, haiek ere “espetxe txiki” batean sartu ditzakeela pentsatzen du Idurrek. Beran behintzat hala bizitu izan zuen. Bere bizi guztia bere bikotekide presoaren inguruan antolatzen hasi zen. Aurretiaz zuen dependentzia egoera hori, modu batean areagotu egin zitzaion.

“Espetxean euan garaian segitzen egon nintzan guztiz inplikatzeko, neure burua alde batera ixten, neure burua ez baloraten, neutzako denborarik ez hartzen, bera, bera ta bera. Azkenian ni be sartu nintzan espetxe txiki batean, alde batetik bai uste dut espetxeak bultzatzeotzula egoera horretara, baina beste alde batetik, neuk be erru puntu bat eduki neban eta bueno, heldu zan momentu bat krak egin nebala eta esan nebala, ke ba, ezin da horrela segidu.” (Idurre)

Presoarentzako zaintza lanak

Bikotekidea espetxeratzen duten momentuan, honen bikotekide eta familiako kideek, bizitza antolatzeko modu berri batetara ohitu beharko dute. Preso dagoen pertsonaren ongizatea antolatzen ahaleginduko dira, paketeak prestatuz, gutunak idatziz, bisitetara eta vis a visetara joanez,... Baina honetaz guztiaz gain, espetxean inor izateak, lan

gehiago suposatuko dio egunerokotasunean bikoteari. Askotan berak hartuko du “guztia” antolatzekeo ardura, eta lagunak presoa bisitatu ahal izateko NANak jasoko ditu, sei hilero hamar lagunak zerrenda antolatu beharko du, astebururoko bisitak hartzeko kartzelara deitu beharko du, ...

Batzuek, hala “nahi dutelako” dena antolatzearen ardura hartzen dute.

“Amak utzi zuen dena nire gain. Nik lotzen nuen dena, erabakiak nik hartzen nituen...” (Lorea)

“Eta bera egon denean espetxean ere antolatzen nituen nik bisitak, eta nengoen etengabe zer da behar duzuna? Y me decia lo que quiera yo? Zu zara hemen ez duena harremanik beste inorekin. Niri esaten badidazu etortzeko, esaten nion negoziatu beharko dugu, no voy a hacer lo que tu quieras, baina zuk esan behar zaitut orain hamabostero ez nagoelako ongi o ongi nagoelako (...) o lagunak behar ditut gehiago..zu joan esaten, nunca me dijo lo que queria, asike asmatzen nuen. Segun jendeak zer esaten zidan, zer behar zuen, nik zer behar nuen...” (Ihintza)

Lan hauek egiteak, preso dagoen pertsonarengatik hurbilago egotearen sententzia aipatu izan dute batzuek. Harekin “konektatuta” sentitzeko laguntzen ziela. Beste batzuek ordea, lan hauek bikotearen familiarekin antolatzen zituzten, ardurak “banatuak” egon zitezten.

“Ama eta M.ren artean, e... lagunena amak eramaten zidan, bueno nire ahizpa ere egoten zen bisita horiek egiten, paketeen zer sartu zer ez biei esaten nien, bueno batez ere M.ri gehien bet berarekin hitz egiten nuelako, nahiz eta gero amak prestatzen zizkidan, edo bien artean.” (Irantzu)

Preso egondako nesken bikotekideek lan hauek ere betetzen zituztela adierazi zidaten. Kasu hauetakoren batean ere, ez zuen lanaren zama guztia bere gain hartu. Jurdanek ordea, hasiera batean, guztiaz arduratu nahi zuela kontatu zidan, nahiz eta gerora, bikotearen amarekin eta aitarekin antolatu zuten lan guztia.

“Gehixen bat hasieran nik hartu nauen hor...nik ingot eta eztaikit zer... baina, gero bere amak gehio kontrolatzen zauen asuntue. Eta azkenien bixon artien. Eskatzen zauen zer gura euela, juten nitzen Bilbora, etxetik zeozer, ba juten nintzen hartu...” (Jurdan)

Egoera honetan, Idurrek ezin izan zuen gehiago. Lan karga handia zeukan bere gain, alde batetik berak hartutako ardurengatik, baina baita bikotekidearen familiak (batez ere amak) eta lagunak ematen zizkieten lanengatik.

“bere amak adibidez, zeuk bere andriak eta neuk bere amak ez botzagu laguntzen nork lagundukotzo, ba?” (Idurre)

“Lagunen partetik eta ez, inoz ez dot eduki inongo... Inork ez nau esan niri bizimodua nolako izan bir dan bera espetxian daolako, inoz bez... Bere amen aldetik bakarrik

izan da. Hombre bai ikusi izan dot bere lagunak aldetik, ba bere neska laguna nazenez, ardura batzuk, benga, Idurreri pasako dotzaguz. Hori bai dot ikusi.” (Idurre)

Agian, elkarrizketatu ditugun beste neskalagunek bezalako lan karga zeukan (agian handiagoa), baina berak ezin izan zuen gehiago. Lan banaketa justuago bat eskatzen eta bilatzen ahalegindu zen, eta bere bikotea kondena bat betetzeko kartzela batera mugitu izanak, horretan apur bat lagundu zuela adierazi zigun. Elkarrizketatu genuen garaian, bere beharrak gehiago kontuan hartzen zituen lan banaketa bat zeukan, bere neurriak markatuta.

“Berak bixitxak hartzen ditxu, ni lehenengo urtian hilean hiru bidar edo juten nintzan bertara, eta gaur egunian hilian behin juten naiz gutxi gora behera, ordun horrek karga handi bat kentzen dotzu bebai, bilatzen ibili beharra noregaz jua, bilatzen ibili behar asteburua bertan pasa, ekonomikoki dirua lortu... ba karga handi bat kentzen dotzu bebai, ta neure gauzak eitxeko denpora gehixo daukat. Paketien kontuan eta diruen kontuez bere gurasuak arduratzen dira, periodikua sartzea ta hori dana bebai, eta... nik lagunakin bisitak lotziaz arduratzen naz, bisitak eta hori berak hartzen ditxu, niretzat hori karga handi bat ixan zan, astero deitxu ta deitxu ta deitxu. Azkenian espetxeak pe bere eragina negatiboa eduki dau, ez da bakarrik izan gure harremana, baina arduratzen naz bisitak antolatzeaz, ze asteburutan nor jungo dan, eta kontu hori bakarrik da nire arduria, ta orain askoz gitxiago juten naz ta...” (Idurre)

Hala ere, lan banaketa horretan, bikotearen familiarengan utzi da “karga” gehiena, eta ez beste pertsona batzuen artean banatu. Ez dugu lan banaketa “kolektiboagorik” topatu elkarrizketa batean ere ez. Dena bikotearen eta familiaren eskuetan geratu izan da. Presoak ere, bere aldetik, lan banaketa horretan, ahal duen neurrian ardurak hartzea garrantzitsua da.

“Bai, bai, ... edo preso gehixenek euren erropak garbitzen hasiko balitzatekez...txorrada bat emoten dabana. Guk batzutan bai, batzutan e! nik ez e, baina badakit arropa zikinek ateratzen ziela kanpora edo...” (Argiñe)

Elkarrizketetan, “bakarrik” egon daitezkeen preso batzuek kasuaz hitz egin zidaten zenbait elkarrizketatuk, familiak “ezer” jakin nahi ez dutenen kasua. Kolektiboaren barruan, egon badaude horrelako pertsonak, baina herriko lagunak artean, haren beharrak asetzen dituzte modu kolektibo batean. Lagunek ardurak banatzen dituzte haien artean. Baina familiak edo bikoteak presoari “uko” egiten ez diotenean, ardura guztiak familiarengan geratzen dira, eta ez da kolektibizatzekeo saiakerarik egoten (elkarrizketatu ditudan kasuan behintzat).

“Negoziaqueta niri klabetako bat begitantzen jat e...eta gero hori, kolektibuana, eske nik beti pensau izen dot, ba lagunekin antolatzen din kartzelan dauezan pertsona horrek, horrek eztiz sentitzen bakarrik, eztaque euren beharrian bat bez falta izeten, lagunentzako ezta kriston karga, porke lana askoz banatua itxen da. Eta zentzu

horretan nitzako lan banaketiai bai emon bihar jako buelta bat. Lan karga haundixe da, holan da. Bai badakaz lan batzuk, baina lan banaketiai buelta batzuk emon biakoz. Ezin da dana bikote edo familixian gain jauzi.” (Argiñe)

Egunerokotasunean harremana elikatuz

Harremana beraz modu batean aldatu egiten da, bai aurretiaz ez zegoen lan “karga” bat hartzen duelako bietako batek, eta bestalde, elkarrekin egoteko aukerak mugatu egiten direlako.

Vis a visak aipatzen diren lehen bitartekoak dira. Hauek dira hilean behin “lasai” egoteko aukera ematen duten horiek. Baina preso egondako bikotekideen elkarrizketetan, aurrez aurreko hauen inguruko iritzi “negatiboak” ere jaso ditut. Presioak, gehiegi arautua egoteak... deseroso sentiarazi izan ditu zenbait elkarrizketatu hasierako aurrez aurrekoetan. Pixkanaka egoera hauetara moldatzen joan ziren, baina hasiera batean, edo batzuetan modu jarraituan, gogorrak ziren elkarketa hauek.

“vis a visena txorrada bat da baina osea gogorra zan hara jutia eta...gogo barik txortan eitxi edo...e...zuk barrun beste kezka batzuk dekozuzela...nik gogoratzen na lenengo vis a visin txortan in da negar ein neban. Eta ez da....emozionalki gauza pillo bat mobitzen zatzuz, kartzela bat da, ...osea nahi eta nahi ez kartzela bat da, zuk badakizu hor dauela bera, ta hau dala hileko momentu, bi orduteko kontrarreloj baten inbizu gogu dekozun dana...” (Argiñe)

“Lehengo vis intimoa izan nuela, errespetu handiarekin baina prostituta bat sentitzen nintzen. Paper hori, ez? Zen zenbakia esan, pum, giltzez itxi, gela txiki batean sartzen zinen noiz etorriko mutila, atea jo arte eta zen tratu aldetik pixkat...” (Lorea)

Kartzela barruan egotearen etengabeko oroitzapenak, eta gelaren beraren itxurak, batzuei hasierako momentuak larrituta pasatzea eragin izan die. Hala ere, bikotearekin elkartzen diren momentuan, gehienek berriz lasaitzeko eta gozatzeko aukera izaten zuten. Presoen kasuan kartzelan zeudela “ahazteko” balioa izaten zuen batzuetan, eta bikotekideek kasuan, batzuetan, han zeudela gogoratzen ziren, eta horrek zaildu egiten zien erlazio sexualak praktikatzeko besteak beste.

Hala ere, azpimarratu behar da, orokorrean sentsazio onak direla gogoratzen direnak.

“Bai bai bai bai. Nik ikusteoten momentuan deseo hori, bai ta deseotelako itxen dot, bestela ez neban egingo inundik inora. Bai sortzen da, momentuz behintzat, horretan ez dau arazorik (barreak).” (Idurre)

“Bai bai. Gainera beti zen lehenago bisita eta gero visa. Orduan zan tipo, para luego el postre. (Barreak).” (Jurdan)

Gutun bidez bikotekide presoarekin komunikatzen dira bikotekide neska guztiak. Gutun asko idazten zituztela gogoratzen dute. Honekin, bikoteari egunerokotasunaren berri eman nahi izaten diote, maitasun gutun “politak” bidali, hausnarketa baten berri eman...

“Ba nik idazteotzaz karta pillo bat, ta karta polit-polit-politxek idazteotzaz, bai e..ta alegintzen na hori nire eguneroku ta esan doten modun, bera ezta ta ordun ba nire egunerokun inportantik izen dizen gauzak eta bera helarazten” (Argiñe)

“Adibidez gutunak... gutun pila bidaltzen ginen, pila pila bat. Eta gaur egun irakurtzen duzu eta esaten duzu “joe! Hori jarri nuen!” edo “joe! Berak hori jarri zuen”, baina momentuan pues etorkizunataz hizketan, haurrak, osea ya holako gutuna. Idatzi pila bat!” (Lorea)

Erromantizismoak indar handia hartzen du kartzelan neska hauentzako. Denek aurretiaz horren beste erabiltzen ez zuten hitz egiteko eta amesteko modua garatzen dute kartzelan. Batzuek, gerora gutunak berriro irakurrita (Lorearen kasua adibidez), harritu egiten dira erabiltzen zituzten hitz eta esaldiengatik. Erromantizismoa kartzelan bai bikotekide nesKentzako, zein preso dauden nesKentzako indarra hartu zuen.

Beste elementu bat mugikorrarekiko dependentzia da. Normalean, bikotekideek, ia egunero deiren bat jasotzen zuten haien bikotekideen aldetik. Deiak soilik barrukoak egin ditzakeenez, momentuan hartzen ez bada, berak berriro deitu arte itxaron behar izaten da. Honek, eta eguneko ilusioetako bat izateak, batzuei mugikorrarekiko dependentzia handia eragin izan die.

“Nire egunerokotasunean suposatzen nau, ba hori, normalean astean sei dei eitxen ditxu, orduan bera egunero dakaten hori da, bere deia hartukotela, guztiz ilusiñoz hartzeot, eta oin ez daukat hain pendiente mobila, lehen edozer eitxea ixten naban dei horreri, mobilari begira egoteko, ia noz jasoko oten, baina bueno...” (Idurre)

Kartzelak berak harremana “garatzeko” eskaintzen dituen baliabideez gain, kanpoan geratzen den bikotekideak bere mekanismoak garatuko ditu bikotekidea gertu sentitzeko, harremana elikatzeke... Batzuek adibidez, bikotekidearen inguruan murgildu egiten dira, haien lagunekin harremanak egiten dituzte, bere familiarekin harremana estutzen dute...

“Elikatzen dot bebai (harremana) bere harreman sariaz egoten, hori da ba imajinatu, bere gurasukin edo bere kuadrilakuk ikusten baduaz ba igual kuadrilakukin lehen hainbeste berba igual eingo ez nebana ba oin bai...ba hori....bai holako gauzen bitxartez. Esanahi dot adierazten beti berarekiko ba maitxasun hori.” (Argiñe)

“Gainera, nire amarekin asko egoten zen, eta nire ahizparekin. Nire ama bere herrira asko joaten zen, eta a ver zelan zegoen gauza, zelan ez... Etxearen gauzak... Hori ere amak eta M.k kontatu zidaten ondoren, bere lagunak ere bai asko-asko lagundu zuten,

eta oso inportanteak izan ziren berarentzat, eta ez dakit, nik badakit nire ama egongo zela nire gestio guztiak ondo egiteko, eta egin zituen ondo.” (Irantzu)

Familia

Irantzuren eta bere bikotekidearen kasuan, familiarekiko harremana aurretiaz zegoen, baina beste batzuen kasuetan egoera honetan ezagutu zituzten familiak. Argiñek, aurretiaz ezagutzen zituen arren, harremana asko estutu zen bere bikotekidearen espetxealdi garaian, eta hasiera batean laguntza handikoa izan bazen ere, harremana utzi zuenean, familia ere haien bikote erlazioaren erdian sartua zegoela konturatu zen. Irantzuren kasuan bezala, amak egiten zituen Argiñeren bikotearen gestioak, eta honek, bikotearen luzapen bat bezala bihurtzera eraman zuen. Egoera “ona” zenean ez zen arazorik egon, baina haien arteko gatazkak hasi zirenean arazo bilakatu zen.

“Gurasuei kontateotzen dana, zelan sentitzen zan..eta oso txarto egon omen zan. Nik klaro eztakit. Baina, eta ordun ba gurasuk halako ba ezkortasun bat eduki ben...bueno ezkortasuna ez, haserre...bai...eta bere gurasukin harremana eten zan, eta ba hori...ni gogoratzen na negar pillo bat bere amak, nik beran amai, beran aitxek be berba eixiai laga ezten, nik berai anaixian bitartez eitxen neban bitartekarixe...” (Argiñe)

Beharrak beteak?

Aurretiaz aipatu dugun lan eskerga hori dela eta, batek baina gehiagok zalantzetan jarri izan du, batez ere presoek, horrek guztiak merezi ote duen harremanarekin jarraitzeko (lehen ikusi ahal izan dugu batzuek beldurrak garantzen dituztela eskaintzen dutena, jasotzen dutena baina gutxiago dela iruditzen baitzaie). Harreman afektibo eta sexual hauen beharra handia da presoentzako, aurretiaz aipatu dugu bezala, sostengu handi bilakatzen dira. Baina kasu honetan, harremanarekin jarraitzea erabaki zuten neskak entzutean, haiek kontziente dira ez dutela jasotzen behar eta nahiko luketen haina, baina beste moduetan hori bilatzen ikasten dutela.

“Badakit baldintzak zeintzut dizen, bakit harreman baten biherko nebana ez nabela emoten guztiz, baina.. ba bueno, irduitzen jat ez dala nire bizitzako aspektu bakarra. Ordun bakit beste aspektu batzutara, eta ikasiot eta banabil horretan ba asetzen.” (Idurre)

Harremanak beste parametro batzuetan antolatzen dira, haiekiko aurreikuspenak jaitsi. Batzuetan, etorkizunera begiratzea beharrezko egiten zaie batzuei egoera horri aurre egiteko.

“Momentuak hartzeoraz etorkizuna irudikatzen eta lagundu itxen nau e? Niri behintzat asko laguntzen nau, etorkizuna irudikatzeak. Gero igual momentua heltzen

danian, gero igual, ez dakitx okerro izango da edo ez, baina gaur egunean lagundu itxen nau etorkizuna irudikatziak eta momentuak hartzeoraz hortarako.” (Idurre)

“(Ametsez) beno inportantea bada, baina azkenean zan: egingo dugu denetik. Eta bakizu oso reala ez dela.”(Jurdan)

Bikotekidea preso izateak, aipatu ditugun lanak ondo banatuta izanez gero, norbere buruarekin inoiz baina denbora gehiago egoteko aukera eman izan die elkarrizketatutako lagunei. Batzuentzako haien buruekin “berriro topatzeko” aukera eman izan die, espazio propioak berrartzeko. Honek, harremanean mesede egiten duela uste dute askok, teorian denek nahiko luketen norberaren espazioak eta espazio komunak berriz ezartzeko balio baitu.

“Bai, bai. Egoten nintzen zentrauta nigan, osea, karo S. egon nintzenian biok egiten genuzan elkarrekin gauzak ez? Baina hor ia zan, gaur piszinara noie, bixar mendire, gero hurrengo egunian batzarren bat edo, baina, holan, zan nirera pentsetan bakarrik.” (Jurdan)

Emakumezko bikotekidearen estereotipoa

“Askatasun” honen aurkikuntza, edo modu ezberdin batean bizitzea hala ere ez da erraza. Zenbait pertsonen, presoaren estereotipoa duten moduan, bikotekidearen estereotipoa daukate. Triste, bikotearen zain dagoen emakumezkoa bezala identifikatzen dute askok. Honek, alde batetik, emakumezkoaren rol jakin bat bilatzera eta hau eskatzera darama jendea, baina bestalde, pertsona horren erdigunean preso jartzera daramatza. Haien izaera propioa galdu, eta norbaitek bikotekide bilakatzen dira. Gatazka ugari sortzen dizkie honek elkarrizketatutako neskei.

“Oso txarto ikusia dago preso politikoen ingurunean, se supone askatzailea den mugimendu batean egon behar zarela super lotuta, eta berarekin bezala, kanpoan, preso ohien bikote askori gertatzen zaiela hori, izan behar zara super zaintzaile, egon behar zara denetarako, ematen du ez dela kontutan hartzen zu zelan zauden, eta gero ia, ez daukazu askatasunik, barrukoak eduki dezake, eta egin dezake edozein gauza, baina kanpoko dago luparekin kontrolatzen dute, eta nire ama ez dute luparekin kontrolatzen eta nire bikotea bai.” (Irantzu)

“Uff, ba egixa esan ez jat gustaten, Idurre da K. presuan neska laguna, ez. Ez jat askorik gustaten, ba alde batetik, ba jendi topatzen dozu kalia eta jendi guztik egiten dotzun lehenengo galdera: Zelan K.? Edo, ba dana da berari, bere inguruan eta igual zuk bai eukiozuz espazio batzuk ba zeuri buruz berba eitxeko, ta gero gainera, nire kasuan, nik uste dut presoak bai diazela pixkat idealizatzen eta ez dakit zelan deitxu... Zentzu batean positiboa bebai ahal da ixan e? Baina bueno, ...” (Idurre)

“Horrek niri pillo bat, bai bai...nik hori...amorru bat emoteozten horrek! Igual aurkezten jenti ta eztakit zer ta igual imajinatu, E.ren ezagun batzuk eta presentaten nabe ba E.ren e hori, E.ren neskalgune. Ba ni na Argiñe, edo jentik galdetzen dotzunin, zure lagunek dinek ba zelan E.? Lehenengo galderi, ba ez! Zelan ni ta gero zelan E...baina niri horrek bai, beti esaten notzan, ondo E. ta neu bebai.” (Argiñe)

“preso...batez ere mutila bada...preso baten neska izanda,... nik ezagutu dut e hori...que hija de puta que esta de juerga, que hija de puta que no esta muy en San Blas alde egiten duenean esperando, e...duela gutxi lagun batek utzi zuen preso batekin y como se pasa que el pobre está en la cárcel...(...) jendarteak baina askotan guk ere bai, mutila dagoenean barruan eta neska kanpoan neskaren rola dela egon eta de hecho ikusi behar da bakarrik ze aguante dugun horrelako egoeretan.”
(Ihintza)

Esan bezala, honek guztiak, presioa eragiten die bikotekide neskei batez ere. Elkarrizketatutako preso ohi emakumeen bikoteek eta Jurdanek antzekorik bizitu behar izan ez zutela adierazi zidaten, orduan, pentsatu dezakegu, presio hau emakumeengan sortzen dela bakarrik.

Egoera hauetaz hitz egiteko, oso garrantzitsutzat jo izan dituzte haien berdinen arteko sareak. Hau da, beste preso batzuek bikotekide neskekin elkartu ahal izatea eta gai ezberdinen inguruan hitz egitea. Alde batetik, egoera berean egonik, ulermena handiagoa delako, eta bizipenak ere antzekoak direlako. Senideen artean sortzen diren sare hauek beraz garrantzitsuak dira aurrera egin ahal izateko. Argiñeren kasuan, harremana kartzelan uztea erabaki zuenean, garaian ulermen gehiago aurkitu zuen bikoteak preso zituzten nesken aldetik beste inondik baino. Militantzia eremuko zenbait pertsonen gainera, ulertu ez, eta harremana uztea aurpegiratu zioten.

“Niri bai aurpegiratu izen doztie...ba ia militanti izenda ia zelan laga neiken kartzelan dauen mutil bat edo ta edo ia kartzeliatxik zelan laga neiken bikote harremana” (Argiñe)

Beraz, ulermen eta babes sare hauek beharrezkoak dira kartzelan harremanak aurrera atera ahal izateko. Gainera, senide eta bikotekideek egiten duten egunerokotasun hori, haien bizipen horiek, ezagunagoak izan beharko luketela konpartitzen dute elkarrizketatu denek. Presoaren egoerez nahiko hitz egiten dela uste dute baina haren senitarteko eta bikoteek bizi behar duten egunerokoa gutxi ezagutzen dela uste dute. Sortzen diren gatazkak konpontzeko, eta estereotipoekin apurtzeko balioko lukeela uste dute.

“Ez da ezagutzen. Eta beharko zen. Bai ze, aurreko udan ere lagun batekin hizketan ba bera hasi zen bere bikotea ere espetxean zegoen eta hor ohartu ginen berak berea kontatzen eta nik nerea puntu berdinerira iristen ginela. Eta noiz arte? Pues erakutsi edo adierazi behar dugu jakinarazi besteei zer den, ez? Zer sentitzen den eta nola den, ez?” (Lorea)

Harreman “irekia”

Harreman ereduaren inguruan ere hitz egin izan nuen bikotea preso izan zuten neskekin. Eta haietako biri ere, Loreari eta Argiñeri, mutilek planteatu zieten hori egiteko aukera. Argiñe beste pertsona batzuekin egon zen harremana utziko zuela erabaki eta gero. Lorea aldiz, bikotea preso zuten bitartean harreman batzuk izan zituen, eta berarentzako zaila izateaz gain, bikotea preso zuelako egin zuela adierazten du. Gaur egunean ez luke horrelakorik egingo egunean duen bikotearekin.

“Egia da nire ustez bera kalean... osea, hori gertatu zitzaidan bera espetxean zegoela, bestela ez dut uste hori egingo nuenik. Eta ez dakit agian momentuan behar duzula, ez dakit, maitasuna edo...zentzu batean ere, pena ematen dizu duzulako beste pertsona barruan eta ez du berak erabakitzen egoera horretan egotea. Baina argi nuen nahiz eta mutil batekin tonteatu edo festa batean igual muxu pare bat eman edo.... Banekien hortxe gelditzen zela.” (Lorea)

Bikote harremanak etetea

Bikotea preso zeukatela Argiñek eta Onintzek bikote harremanekin amaitzea erabaki zuten. Bi esperientzia kontrajarri dira. Argiñeren kasuan, vis batean esateko erabakia hartu zuen, baina telefonozko elkarrizketa batean gaia atera eta bertan bikoteari zalantzak azaldu zizkion. Garai horretara arte ez zuten inolako gatazken inguruan hitz egin.

“Zuk adibidez gaur folloren bat badeko zu zure bikotigaz ba igual egoten za goixeko ordubixak arte berbetan eta ondo konpontzen da, baina hor problema txiki bat luzatzen da igual hilabeteko horretara....porke bost minutuko deixe, kolgau, beste bat deitzen dotzu, eztozu...nahi dozun dana ezin dozu esan, gero vis a viseta zoziez baijan karo, hilen behin ikusten dozunez eza hasiko bez e...ez? Nahi dozu ahalik eta onduen egotia eta gainera bi ordu daukozuz eta ordun...osea...prozesu hori ez dotzu emoten bizitzeko....osea gauzak konpontzeko prozesu hori ez da...ordun nik bai eitxen nabazen ebitau konfliktuk.” (Argiñe)

Berak aitortzen du, agian aurretiaz hitz egiten hasi beharko litzatekeen gai bat izan zela, baina kartzelaren egoera berezi horiek zaildu egin zioten bere ustetan aukera hori. Azkenean, kartzelako mugek eta egoerek gainditu zuten Argiñe, eta horregatik erabaki zuen harremana etetea.

“nik ez dot ukatzen kartzelietxik eten nebala harremana, nik kartzelietxik eten neban, osea...gero eitxen dot hausnarketa bat hor jokutzen daben papera bakotxak,baina diñot, nik hor laga neban, niri enabelako asetzen bikote harreman horrek. Eta enaben asetzen kartzeli euelako tartin eta hori holan esaten dot” (Argiñe)

Onintzeren kasuan ere kartzelako mugek eragin zuten harremana uztea. Kanpoan zegoela beste pertsona batekin harremana estutzeak, muga horietaz kontzienteago

egitera eraman zuten. Gainera, bere garaiko bikotea estatu Frantsesean zegoen espetxeratua, eta bertan ez zeukaten vis a visik, ez telefono deirik.

“hara nindoanean zan ahhh, osea, maite nun pillo bat, baina gero egunerokotasunean komunikazio eza, ez dezu ezer jasotzen, bueno, bai, praktikoki ez dezu ezer jasotzen, gutun bat jaso dezu, eta egun hortan buaa, baina gero, bestela... eta hola pixkanaka-pixkanaka zan bestearekin ia topatzetik ia askoz gehio, eta denbora gehio konpartitzen dezula ta kriston zalantzak, ta kriston, bai, bai... eta pixka bat nik uste det, bai, ba horrela joan nintzen beste mutil honekin konpartitzen, espetxean zegoenarekin, ba begira hau pasatzen zait, eta es que hau pasatzen zait, osea, eta beti esan det, da pertsona bat neretzat oso oso inportantea izan dena, ta egun ere badana, baino momentu hortan neri muga hoiak, superatu in ziaten, bai.” (Onintze)

Onintzeren kasuan, azkenean, Frantzian preso zegoen mutilarekin bikote harremana etetea erabaki zuen, eta gaur egunean bere bikotea denarekin bikote harremana bat hastea. Baina berak, inoiz ez zion Frantziako horrekin harremanak izateari utzi. Bisitak egiten jarraitu zuten, mutilak berak, bere egoeraren kontziente izanik ez baitzuen Onintze “lotu nahi”. Argiñeren kasuan ordea, harremana telefonoz eten behar izan zuten, eta bikote ohiak ez zuen inoiz onartu beste bisitarik berarekin. Gaur egun oraindik gutunak idazten dizkio, baina ez du erantzunik jasotzen.

Argiñek ere presio handia jasan behar izan zuen bere inguru militante eta afektiboaren partetik. Harremana eten izana ez zuten ulertzen, eta haren hitzetan, denek eman zioten iritzia egoera horren inguruan, inoiz eskatu ez arren.

“niri pasa atena, sentsaziñoie zan, papelak eitera zoiezanian inork ez dotzu galdetzen, kenduta batenbat atrebitzen dala: ze baina...e...galdetu...ein ingozuz papela beregaz edo pentsauzu edo oin zer...galdetzetzune ez? Bestelan por etxo emoten da beregaz ein ingozula nire ustez, nire pertzepziñoie. Ta hor jente gitxik galdetzen dotzu zer. Hori bai, lagaten dozun momentun...baina kristo guztik emotetzu beran iritsixe, pero de ke, osea ulertzen zate?, eta ein handi baten preso bataz zabizenin zure bikote harremana publiko bihurtzen da, ze eurek personaje publikuk di. Aber ulertu...osea ulertute...bai osea eurek di ezagunak eta zu jente askontzako ezaguna za bebai, za E.ren neska. Eztakit zelan esan, eta zentzu horretan lagaten dozunin, derrepentin danak emotetzu bere iritzixe, onera edo txarrera baina emon itxetzue, eta esatezu aber...inork...edota ein nebanin eztoztazun preguntau ba.” (Argiñe)

5.3. Bikote harremanak kartzela ondoren

Idurreren bikotea izan ezik, elkarrizketak egin nituen garaian, beste guztiak espetxetik kanpo zeuden. Honek, behin espetxe aldia amaituta bikote harremana berrartzeko izandako baldintzak pixka bat aztertzeo aukera eman zigun.

Hasieran, kaleratzea euforia handiarekin bizi izan zuten, nahiz eta espetxetik atera berri ziren batzuei zaila egin zitzairen haien kideak barruan uztea. Sentsazio gazi-gozoak aipatu zituzten askok, baina orokorrean, momentu horiek euforia moduan bizitu izan dituzte denek. Kartzelako esperientziaz galdetuta, harremanen inguruko bizipenek izan duten garrantziaz ohartu daiteke bat. Bai bikotearekin duten harremanak izan duen garrantzia, lagunekin sortu ahal izan diren loturak, harreman afektibo berriak... Horrek guztiak pisu handia dauka elkarrizketatuen bizi istorioetan.

Kartzela barruan, harremanak intentsitate handiz bizi dituzte presoek, bai bikotearenak, familiarenak edo laguntasunezkoak.

“Netzat dia sentimendu extremoak, osea, ba bai gaizki zauden bezela, gero zaude... jendearekin bizi dituzun esperientziak eta ikusi dezun jendea hortik pasatzen eta jendearen traiektoriak denak. Ostia, esaten dezula, ze jende dagon eta ze altxor dauden hemendikan.. bai eta nola eraikitzen dituzun harremanak eta nola... Nola hitz egiten duzu sentimenduetaz, ez dakit... Bai ba kalean lagun batekin eraikitzea kostatze zaizu igual hainbeste denbora,(...) eta hemen egiten duzu batzuekin harreman bat ia-ia desde el minuto zero, ez dakit. Ebai da egoera bat de, babestu behar gea, zaindu behar gea, elkar maitatu behar gea eta... ordun ebai guzti horri ematen diozula kriston garrantzia.” (Onintze)

“Ba positibotik asko ikasi dudala. Osea izan da, esperientzia bat oso ona, ze oso egoera estremo batean bizi izan ahal ditudan harremanak, gauzak, o sea mundu berri bat ezagutzea, sozialekin lotua dagoen guzti hori, nire ingurunean ez da... Eta nire herrian marjinalidadean dagoen jendearekin ez naiz erlazionatzen, nire ideologiatik kanpo dagoen jende askorekin bai,kalean topatzen naizenean, baina jende hau ez da kaleetan aurkitzen, eta hori adibidez orain bai galdu dut, espetxean ezagutu dudana guzti hori.” (Irantzu)

Kartzelan beraz, nolabaiteko “harremantzeko erraztasuna” izan dute presoek. Bisitetan ere antzeko zerbait sortzen dela diote preso ohien bikoteek. Beste senideekin sortzen diren harremanak, elkar ulermenezkoak eta babesekoak izanik, oso arin ondo sentitzea lortzen dute elkarrekin.

“Nire aldetik behintzat, harreman pilo bat ein dodaz, jende asko ezagutu dot, babes, aurretik ezagutzen neban jendiengandik babes handixa ikusiot, bai harreman aldetik, asko hobetu, positibo modura balorateot, orokorean. Harreman asko sortzen dira, zure egoeran dagon jende asko ezagutzen dozu, bere inguruko jende asko ez zenduna ezagutzen ezagutu itxen dozu eta ganera, zeu bakarrik zaot harreman horretan, K. ez dago ondoan bez, orduan beste modu batera ezagutzen dozu pertsona hori be... Bai. Ingurukoengandik be, aurretik ezagutzen neban jendiengandik be, ba hori, babes hori hartzeozu.” (Idurre)

Orokorrean beraz, kartzelaren inguruko argazki batean, gehien azpimarratzen dutena harremanen garrantzia, intentsidadea eta sorrera da. Kartzelak orduan, aurretiaz zeuden harremanetan murrizketak eragiten dituen arren, harreman berrien sorreran eta

pertsonentzako hauek duten garrantzian eragin handia daukate. Aurretiaz zuten harreman horretan ere eragin positiboa izan duela esan dute batzuek. Egoera gogorre aurre egin ahal dietela ikustea garrantzitsua eta ona izan da haientzako.

Nik bai uste dut suposatu dula, ezagutu gera ebai egoera zail baten aurrian ez? Eta pixka bat, nik uste det, bakoitzak azkenean egoera, betetzen nau honi eusteko, edo egoera honi aurre egiteko edo ez? Eta momentuz erantzuna izan da baiezkoa, eta nik uste dut bai ba igual harremana bera indartu, edo ez dakit, beste modu batetara ere bizitzen ikasi degula, eta biontzat inportanteak izaten edo. (Onintze)

Behin kaleratzean, elkarrizketatu gehienek bat egiten dute hasierako euforia horretatik pixkanaka “bizi errealer” jaisten doazen heinean zenbait oztoporekin aurkitu izan direla.

“Gure harremanak gutxi gora behera 4 etapa izan ditu: hasiera, elkar ezagutza, bigarrena sarekadaren momentuan, pff harreman hori ez duzula ikusten eta ez dakizula noiz arte ez nola, hirugarrena pues atxiloketa eta espetxeratzearena eta laugarrena, nik uste dut laugarrena izan zela, ez gogorrena eh! Atxiloketa eta gogorra izan ziren baijan bazenekien zeozer gertatuko zela baina gero iristen denean beti kolpea da, ez? Baina laugarrena espetxetik atera eta ez nuen uste horren zaila izango zenik. Ez nuen imajinatzen, ez dakit. Uste nuen izango zela pum aske eta lehengo harreman hori, ez? Eta ez.” (Lorea)

Beraz, egoera honetan, kartzelan bai barrukoei zein kanpokoei eragindako aldaketengatik, pixkanaka bata besteari moldatzen joan behar izan dira bikoteak. Batzuentzako esperientzia aberasgarria izan da hau.

“Kostau izan da apur bat. Bai, azkenien asimilau moduen egin behar dozu ere bai, ez? Bai, kostau da apur bat, baina ondo. Osea, igual hobeto bebai.” (Jurdan)

Beste batzuentzako ordea prozesua gogorra eta negatiboa izan da. Bai jasotzen diren mezuak egoera horretan dena ondo egon behar lukeela esaten dutelako, eta/edo kartzelatik ateratako pertsona espetxeratu aurretik zen hori izan beharko lukeela pentsatzen delako.

“Eta espetxearekiko ez duzu espektatibarik, orduan a nada que estas un poco bien estas muy bien, eta teoriam zure buruan, zure inguruan egon beharko zenukeenez oso ongi, ez egotea da askoz frustranteagoa zure buruarekin. Nago etxekeekin, nago bikotearekin... orduan nago ongi, entonces ¿hago algo mal? Gogorragoa da.” (Ihintza)

“Eta atera denarentzako pasa da gogorrena eta mundu guztia, chico! Por que no haces parranda ya, como has cambiado. Chico! ... Joder dejarle en paz! Ya llega el momento que le dejes un poco en paz. Bera hasi zan ya rallatzen porque quiero ser gracioso y no se, no me sale y puff.. Eta etengabe, chico que ya no bebes, te han cambiado. Te han cambiado entzun du...” (Ihintza)

Egoera hauek zailak izan daitezkeela jakitea beharrezkotzat jotzen dute guztiek. Lorearen eta Ihintzaren kasuan, haien bikotekideak kartzelatik atera zirenean, aldatuta egoteaz gain, haien barrura gordeta zeudela iruditzen zitzairen, eta egoera horri buelta ematen saiatu arren lortu ez zutenez (eta beste faktore gehiagoren pilaketagatik ere), bikote harremanekin amaitzea erabaki zuten.

Beste guztiek harremanekin jarraitu zuten. Espetxeko egonalditik irakurketa positiboa egiteko kapazak dira batzuk. Bertatik ikasi egin dutela diote.

“Harremanen inguruan asko ikasi dut, bizitzaren inguruan ere bai.. barruan zaudenean beti pentsatzen duzu, “jo kanpoan zelako txorradengatik izan nitun kriston bronkak...” tontakeriak, eta horri ere bai inportantzia kentzen... Nik uste dut, aldatzen direnak dira harremantzeko erak, eta harremanei buruz asko ikasten duzula.” (Irantzu)

Emakumezko preso ohiak intseguritate handiekin ateratzen direla aipatu zuten elkarrizketatu guztiek. Kartzela barruan haien buruengan pentsatzeko aukera izan zuten, eta alde ona izan zuen arren, kaleratzean, batek baina gehiagok zalantza konstanteak izan zituen bere izaeraren inguruan, egin nahi zuenaren inguruan...

Como gauza asko planteatu, eta nahaste horrek ere, pues atera naiz oraindik nahastearekin eta nabil oraindik antolatzen. Eta beti esan dut soy así (ahots afirmatiboz) y ahora ¿soy así?, o ¿soy por que tenía que ser? (barreak). Barrenak nahastu dizkit onerako eta txarrerako. Bai. He desaprendido cosas que había aprendido, he aprendido otras cosas que antes no, pero otras... (Ihintza)

Errutina bat hartu ahal izateak egoera honi aurre egiten lagundu die askori. Lanean hasteak, militantzia berrartzeak... azken finean zer egin edukitzea ona izan da kezka guzti hauei aurre egin ahal izateko.

Eta neri egia da, lanean hasteak, iritsi zen momentu bat esaten nula, aber ni ez dakit zertan bainan lanean hasi nahi det. Zerbait egiten hasi nahi det. Justu lagun batek egiten zuen denda batean lana eta esan zidan: Onintze, udarako jendea behar dute. Eta esan nuen, behintzat udarako oporrak galtzen ditut bainan behar det. Gero gainera itotzen zaitu ebai ekonomikoki ere, zaude diru laguntza bat jasotzen, 400 eurokin ez zoaz ezta... eskinaren buelta eta ez dakit, eta bai hor pixkanaka zu ere hasten zea zure bidea egiten eta... Egonkortzen edo... Rutina batek laguntzen gaitu pixkat... Bestela zaude hor, hola (zerura begira) eta ez dakizu zer nahi dezun. Neretzat okerrenea zen hori: zer nahi dezu? Ikasi egin nahi det, lana egin nahi det? Nundikan? Nundik nahi det bideratu lana? Nundik nahi ditut bideratu ikasketak? Nundik hasten naiz? Bueno... (Onintze)

Bere kezka handiena zen (bere bikotekideaz ari da), nik nire beste harreman batzuk alboratzea, eta gero bai uste dut espazioak ondo neurtu genituela, osea oporretan joatea ere oso inportantea izan zen, bueno behintzat niretzako, zeren nola nik amesten nuen horrekin... Eta berarentzako ere bai gauza askoren inguruan hitz egiteko, beste askoren inguruan ez... Eta gero berarentzat normalidadea hasiko zenean Irailean

lanarekin eta guzti hori, ni ere lanean hasi nintzen Iraila erdialdean, eta hori ere inportantea izan zen. Zeren bestela denbora libre asko daukazu eta egia da jendearekin egon ahal zarela, baina igual eskatzen ahal nion berari egote hori, eta jarraitu behar genuen aurrera joaten. (Irantzu)

Irantzuk dion moduan, intseguritate hauek, batzuetan, behar guztiak bikotearengan zentratzera eraman ditu batzuk. Honek noski arazoak ekarri ditu bikote harremanean, baita norberarengan ere, bizi guztia bikotearen inguruan eraikitzen jotzen baitute. Momenturen batean antzeko zerbait gertatu ahal izan bazaie ere, orokorrean elkarrizketatutako lagun guztiak haien autonomia eta pribatutasuna sortzeko edo mantentzeko ahaleginak egon direla esan dezakegu. Hala ere, ez dakit honengatik den, kasualitateagatik den, edo euforiarengatik, baina behin kartzelatik aterata, Irantzu eta Koldo izan ezik, beste guztiak bikotearekin bizitzera joan dira (Alaitzen kasuan ez zen hasiera-hasieran izan, eta pisua beste lagun batekin ere konpartitzen dute). Batzuek negatiboki baloratu zuten aukeraketa hau, eta momentuan egin behar zena zela pentsatzen duten arren, gerora horrelako erabaki bat polikiago hartuko zutela adierazi zuten. Besteek ez zuten inolako komentariarik egin aukeraketa horren inguruan.

Kontziente dira kartzelara itzuli daitezkeela. Batzuek epaiketa data daukate ia, eta sei urteko zigor eskaera. Beste denek, epaiketa hauetan zer gertatzen ari den begiratzen ari dira, hurrengoak haiek izan daitezkeela sinetsita. Honek, egonezin handia sortzen die, ezin baitute errutina bat nahi haina “planifikatu”.

“Gehi hor sartzen da epaiketaren zurrumurrua, eta betikoa, igual da ez dakit noiz, igual da ez dakit noiz, doa atzeratzen... Eta gainea ez dakizu ezer fijo, baina bakizu egongo dala, eta horrek ere iristen dan momentuan eragingo du... Eragingo du egiten ari zaren hori eragingo dulako eta epaiketa tartean ba lanean bazaude utzi beharko dezulako.” (Onintze)

Egunerokotasunean “zama” honekin bizi behar izatea ez da erraza. Batzuek momentua iritsi arte ez pentsatzea erabaki dute, edo behintzat ahal bezain beste ahaztea epaiketaren kontua. Batzuek hala ere, oso presente daukate egoera posible hau.

“Ta gero egia dana da ez dala bukatu ez? Bua ta horrek da sortzen dostana etorkizunera bildur gehiago. Nik bai uste dot nik espetxean itxen dotela berba modu honetan nere bizitzan eta momentu oso konkretu baten nengolako. Banekien prebentibo bezela sartzen nintzala, banekielako aukerak nituala eta ilusio hori badaukazu irtengo zarela eta askatasun ilusio horrekin eta ilusio hori badaukazu irtengo zarela denbora labur batean. Orduan kriston bizitasuna ematen dotzu eta... eta hori. Nik oraintxe uste detena bebai puf, ya beste eboluzio bat in detela incluso han hainbeste aldaketa bizi ta gero oraintxe nire bizitzan ba nagola horrelako hausnarketa prozesu baten. Nago pixkat nire bizitza recolokatzen, re... replanteatzen gauza ezberdin pilo batetan orduan bai. Badakit espetxera sartzeko momentua iristen danean zelan egongo naizen, osea nik aurreikusten dot espetxera sartuko naizela

berrero, osea baukagu osea... kondenatuetako bat ni izango naizela. Esto... aukera askokin. Orduan, horrek bai ematen dosta bertigo gehiago. Esaten dosta, 6 urtetako sartu behar baldin banaiz, urte ta 4 hilabete egon banaiz, 4 urte eta 8 hilabete ta pikua, ia 5 urtetarako sartu behar naiz. Orduan horrek ba iten dosta, nik uste det ba espetxealdia beste termino batzutan planteau beharko nebala, beste puf, behar batzuk eukiko nebala bai pertsonalki bai ez dakit zer.” (Alaitz)

Hala ere, epaiketa hauek gelditzeko eta atxiloketekin amaitzeko “lanean” jarraitzen dute guztiek. Donostiako eta Ondarroako Herri Harresiak ilusioz begiratzen dituzte, baita bertan asko inplikatu ere.

“Buruan badaukat zerbait egin nahi dudala, ba epaietak gelditzeko, jendea ez espetxeratzeko, baina horrek eramaten nau, aldi berean nire militantzia politikoarekin jarraitzera. Ni beteta sentitzen naiz militatzen jarraitzen dudalako, zeren espetxera eramanean nauen arrazoiarengatik lan ez egitea, ez nintzateke nire buruarekin pozik egongo, orduan militantziak laguntzen dit eta ere bai pentsatzea, ba gertatu daitekeenaren aurrean daukadan gogo hori gelditzeko, gainera gaur egun ematen ari diren mugimenduak, ba bai Donostin edo Ondarrun... guzti horretan parte hartu nahi dut eta uste dut parte hartu behar dudala. Ze bestela, ze itzultzen zara? Itzuli al zara edo ez, bai an ez zara zure buruarekin ondo setnituko, eta orduan alde hori bai da inportante niretzat.” (Irantzu)

Etorkizun hurbilez hitz egin zidan elkarrizketatutako batek, horri begira egiten dituela bere aurrera begirako plan guztiak. Ezin dute pare bat urte baina gehiagorako planifikaziorik egin, eta hor adibidez amatasunaren gaia azaldu izan da zenbaiten ahotan. Oraingoz horrelako gai “potoloak” “al cajón” (Onintze) sartu dituzte askok. Baina egunerokoa bizitzen jarraitzen dute, hori argi utzi didate guztiek. Orainean ahal duten guztia disfrutatzen eta bizitzen ahalegintzen dira: guraso izan da elkarrizketatuetako bat, eta beste bat haurdun dago, lanean daude elkarrizketatutako gehienak, eta haien bikoteekin eta harreman sareekin jarraitzen dute guztiek. Kartzelaren mamua egon arren bizitzen jarraitzen dute, egunero-egunero.

6. ONDORIOAK

Helburuei dagokienean, batez ere, neska gazte espetxeratuen eta bikotekidea kartzelan izan duten nesken esperientzietan zentratu naiz lan honetan. Haien testigantzek, eta aurretiaz bildutako informazio guztiak, zenbait ondorio ateratzen lagunduko didate. Hasiera batean bizipen hauek konpara zitezkeela pentsatzen nuen, baina orain, lan guztia egin eta gero, bi esperientzia ezberdinen aurrean aurkitzen garela ikusi dezaket, eta beraz, testuinguru berdinean kokatu arren, bizipen ezberdinez ari garela. Gizonezkoen parte hartzea ere laburki aztertu ahal izan dut, eta haien ekarpena kuantitatiboki handiagoa izan balitz beste ikuspegi batzuekin aurkituko ginela jakin arren, kualitatiboki ekarpen mamitsuak egin dituzte elkarrizketaturiko hiru mutilek, eta zenbait puntutan, konparaziorako baliatu ahalko ditut. Aurrera begira lanarekin jarraituz gero, puntu honetan ere gehiago sakontzea ondo egongo litzatekeela uste dut.

Aipatu behar dut ere, harreman eredu “konkretu” baten inguruan aritu naizela lanean, kartzela esperientzia baina lehen hasita zeuden erlazioen inguruan hain zuzen. Honek, eta aukeratutako adin tartek, esperientzia konkretu batzuetan zentratzera eraman nau. Konparazioan gehiago sakontzeko, interesgarria izan daiteke kartzelan harremanak hasi dituzten pertsonen bizipenak jasotzea, edo urte luzez preso daudenenak... Honek, ikuspegi anitzagoak eskaini ahal dizkigula uste dut.

Bikote harremanen inguruko esperientzia anitz jaso ditut. Orokorrean, mendebaldeko maitasun ereduak jarraitzen dituztela ikusi ahal izan dudana arren, honen inguruko hausnarketa etengabea ere presente dagoela azpimarragarria iruditzen zait. Batez ere monogamiaren gaia eta espazio propioen zaintza, hausnarketaren lehen lerroan daudela iruditu zait. Orokorrean, pentsamenduaren eremuan geratzen diren hausnarketak aurkitu ditut, praktikarekin talka egiten dutenak, baina protagonistak beraiek horien jabe direla antzeman dut.

Baina esan bezala, mendebaldeko maitasun ereduek indarra izaten jarraitzen dute, eta hau, kartzela garaian, modu batean handitu egiten dela esango nuke. Kartzela aurreko harremanean ez zeuden zaintza lanak, emakumezko bikotekideen bizitzaren erdigunean kokatzen dira, eta hauek konpartitzeko ahaleginak dauden arren, askotan, pisu gehiena haien gain geratzen dela ikusi ahal izan dut. Elkarrizketatutako neska presoek, haien bikoteek lan hauetan parte hartzen zutela adierazi didate, baina orokorrean, lanak neskaren familiaren eta bikotearen artean banatuak zeuden. Espetxetik kanpo dauden

nesken kasuan, orokorrean haiek hartu zuten pisu guztia, eta honek zenbait arazo sortu ditu ere. Oraindik ere neskaren gain jauzten dira lan hauek eta banatzekotan amaren eta neska bikotekidearen artean banatuko dira. Aipagarria da hala ere bikotea espetxean duten mutilek lan hauek betetzen dituztela (modu “orekatuago” batean hala ere). Neska batzuen kasuan, haien beharrak erabat alboratuak geratu izan dira egoera honetan, eta haren bikotearenak jarri dituzte lehen planoan. Hala ere honetaz ohartu eta espazio propioak berreskuratzeko aukera izan dute batzuek. Baina ondoriozta dezakegu, espetxeak “pentsamendu erromantikoan” oinarritutako harremanak birproduzitzen eta indartzen dituela, eta hasierako momentuetan, eredu honetan sartzen direla bikote gehienak. Batzuk, egoerari aurre egiten diote momenturen batean, baina beste batzuek, harremana kartzelan zaintza lanen arabera eraikitzen dute.

Bestalde, preso dauden pertsonentzat, bikote harremanak ilusioen eta indarren erdigunean kokatzen dira. Honek, aurretiaz bikoteari ez zuen indar bat ematera daramatza (kasuen gehiengoan, zenbaitzuk hasieratik kokatzen baitzuten erdigunean harremana). Ametsen erdigunean bikote planak sartuko lirateke, eta batzuek kideekin izan ditzaketen laguntasun harremanak erdigunean kokatu arren, orokorrean bikotea bilakatzen da ametsen erdigune. Etorkizunean beraz bikote harremana irudikatzen dute, eta honek kaleratzean talkak sortzen dizkiela ikusi ahal izan dugu. “Gehiegizko” amets horiek ez betetzeak frustrazioak eragiten dizkie.

Harremanaren inguruan galdetuta, denek argi dute egoera “normal” batean ez zirela harremanean horrekin bakarrik konformatuko, baina espetxeak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz, harremanarekin aurrera egin daitekeela erakutsi didate. Hala ere, barrukoarentzat askoz “betegarriagoa” dela sumatu ahal izan dut, eta hau, batzuetan, kezken iturri bihurtzen dela. Kanpokoak duen “aukeraketa askatasun” horrek kezkatu egiten ditu barrukoak, haiek eskaintzen dutena “nahikoa” izango ote den zalantzan jarriz. Eta badago, harremana egoera horretan eramateko kapaza izan ez denik. Baina badago ere “oztopo” guzti horiekin aurrera egiten jakin duenik.

Presoaren eta haren bikotekidearen estereotipo konkrituak daude sortuak, eta hauek bete arazten saiatzen dira, bai elkarrizketatuak haien kabuz, edo inguruko jendearen nolabaiteko “presioaz”. Zenbaitek ez dute presoaren bikotekidearen rol tradizionalen sartu nahi izan, triste eta “itxaroten” dagoen neska zaintzailearena hain zuzen, eta horregatik, zenbait konfrontazio izan dituzte inguruneko pertsonekin. Adibide garbia da

harremana espetxean zegoen pertsonarekin etetea erabakitzen duen neskari eragiten zaion presioa, edo zaintza lanak neskaren gain uztea. Honek ere preso ohiei eragin izan die, batez ere, kanpoan daudenean jada “dena pasatu dela” pentsatzen baitu jendeak, eta gaizki egotea ez zaie “onartzen”. Honek, presoaren irudi indartsu eta borrokalariarekin du zerikusia, eta hau betetzen ez denean preso ohia bera kezkatuta biziko ditu tristezia eta egonezin sentimendu hauek. Iruditegi konkretu bat dago sortua espetxearen inguruan, eta hau betetzera behartuak ikusten dira asko eta asko. Iruditegi konkretu hau hala ere, errealia ez dela ikusi ahal izan dugu, ez baitago estereotipoa osorik betetzen duen inor. Estereotipoek gainera kalte egin ahal izan diete torturengatik oso gaizki dagoen mutilari, *Itziarren semea* izatea lortu ez duelako edo zaintza lanetan sartu nahi izan ez duen neskari, bikotearen amak, lagunak edo inguruneak hori aurpegiratu izan diolako.

Harremana bikotekideetako bat kartzelaratzen den unean “publiko” bilakatzen da. Hau da, aurretiaz ezagutzen ez baziren, bikotekidea eta familiak ezagutu egingo dira, eta “herrian” ere ezagun egingo da. Honek, presoaren babeserako sortzen diren sareetan txertatzera eramango ditu, kolektiboetan parte hartuz, edo besterik gabe, presoaren bikotekidearen figura jasoz. Puntu batean “ona” da bikotekideentzako babes sare hauetan txertatuta egotea, laguntza eta laguntasuna eskaintzen baitute. Baina batzuetan “gehiegizko” konfiantzak, edo presoaren izaera erdigunean kokatzeak, bikotekidearen izaera “ezabatu” egiten duela sentitu dute zenbaitzuk. “Ni” izateari utzi eta “presoaren bikotekide” izatera pasatu direla sumatu dute denek, eta ez dute gustuko.

Egia da militantzia feminista edo kontzientzia feminista duen neskekin aurkitu naizela, baina harremanen egunerokotasunean praktika ezberdinak burutzea baino, gertakizunen eta egoeren analisisian eragin diela uste dut. Kartzelaren beraren egunerokotasuna aztertzeke ikuspuntu feminista daukate, eta harremanen inguruan ere ari dira, eta bidea egiten daude. Oraingoz, testuinguruak eragiten dituen oztipoekin nola jokatu aztertzen dabilzala uste dut, estereotipoak nola hautsi, emakumeen egoera espetxean nola ikusarazi...

Lanaren izenburuan egiten nuen galderak beraz ez du erantzun bakarra. Askatasun guneak eta uneak sortzen al dira harremanei esker kartzelan? Alde batetik bai. Preso dauden pertsonentzako, harremanak burua “kalera” ateratzen laguntzen ditu, kartzelan daudela ahaztea. Beraz, esan dezakegu alde honetatik bai eskaintzen diela askatasun une

bat. Kanean dauden bikotekideentzako ere askatasun gune bat izan daiteke bikotekidea preso izatea, haien buruekin egoteko aukera handiagoa baitaude. Zaintza lan horietan erabat sartuak ez badaude, espazio propioen “berreskuratzea” eta “aurkikuntza” eman izan da batzuen kasuan.

Hala ere, askatasun gune hauek bilatzen eta erabiltzen jakin behar da. Bikotekidea edo norbere burua espetxean egotea ez da esperientzia erraz bat, eta denek argi dute, egoera honetan ondo egoten ikastea dela egin beharreko lehen gauza. Horregatik, alde “positiboak” aurkitu ahal bazaizkio ere, alde “negatiboak” ere izan ditzake esperientzia honek. Txanponaren bi aldeak dira. Presoarentzat, bikotekidea “beharrezkoegia” izatera heldu daiteke, haren ilusioen erdigunean kokatuz, eta honek dependentzia handia eragin dezake. Harremana puskatzeko beldur handiegiek egonezin handia sortu diete batzuei. Bestalde, kanpoan dauden neskeentzat, zaintza lanek hartzen duten zama handiegia izan daiteke, eta zurrumbiloan sartzerakoan, haien beharrianak alde batera uztera heldu dira zenbaitzuek, duten “guztia” presoari eskainiz. Honek ere dependentzia egoerak eragin izan ditu zenbait nesketan.

Txanponaren bi aldeak daude jokoan, eta batzuetan alde “txarrera” erori badaiteke ere, txanpona berriro hartu eta bota daitekeela erakutsi didate elkarrizketatutako neskek. Feminismoak txanponaren alde positiboa lortzen lagundu dezakeela uste dut, eta haiek ere horrela adierazi didate. Feminismoak behintzat, txanpona behin eta berriro hartzera gonbidatzen dituela uste dut.

Argi dago egindako lana pauso txiki bat izan dela. Preso egondako neska gazteekin, eta haien bikotekideak preso egondako neska gazteekin egin dut lan. Bi aldeetan zentratzean irudi orokor bat lortu dudala uste dut, baina oso azalekoa. Aurrera begira, alde bakoitzean zentratzea interesgarria litzateke, eta egoera berdinak bizitu izan dituzten adin desberdinetako edo kondena ezberdinetako neskekin lan egitea. Argi dago emakume euskal preso politikoaren inguruan gutxi esan dela oraindik, eta are gutxiago bikotekideak kartzelan izan dituzten emakumeen inguruan.

Honetaz gain, egindako elkarrizketetan konturatu ahal izan naiz askorentzat lehen aldia zela gaiaz hitz egiten zutela, eta zenbait kontutan sakontzeko zailtasunak izan ditugu honengatik. Horregatik, denbora gehiagorekin, elkarrizketa bakarrean utzi baino, pare

bat elkarriketetan lantzeko gaia dela uste dut, lehenaren eta hurrengoaren artean tartetxo bat utziz gaiak gehiago hausnar dezaten.

Gainera, bikote harremanetan zentratu naizenez, material asko utzi behar izan dut kanpoan. Behin eta berriz errepikatu dudako moduan, harreman hauetaz gain, oso garrantzitsuak izan dira guztientzat lagunekin egindako harremanak (bai kartzela barruan jazotakoak, zein kartzela kanpoan sortutako berriak). Ulermen eta babes sare hauen inguruan asko hitz egin dut elkarriketatu guztiekin, denentzat oso garrantzitsuak izan baitira. Beraz, tesina honetan ez, baina beste inon, interesgarria litzateke testigantza hauek guztiak jasotzea, harreman hauek duten garrantziaren zergaitiak aztertu ahal izateko.

Amaitzeko, berriro azpimarratu nahi dut emakumezko presoek zein, bikotekideak preso dituzten emakumeen bizipenak ikustaraztea oso garrantzitsua dela. Intimitatearen urraketa egiten dugula iruditzen zaigu pertsona hauen bizipenez eta emozioez hitz egiten badugu, baina gero, protagonistek esan diguten moduan, oso erraza egiten zaigu haien esperientzia konkretuen inguruan iritzia ematea (harremana uzten dutenean, egunerokotasuna berrartzen dutenean...). Irudi estereotipatuak eta aurre ideiak alde batera uzteko eta pertsonen errealitateez ohartzeko garaia da. Lan honetan lehen pausu txiki eta xume bat egiten ahalegindu naiz. Ez dadila hemen gera.

7. ERANSKINAK

Jarraian, elkarrizketak antolatzeko erabilitako eskema doa. Hau oinarritzat hartuz, guztienezako elkarrizketa ezberdinak prestatu nituen zituzten bizi-istorioak kontuan hartuz.

ELKARRIZKETA ESKEMA

1. KARTZELA AURRETIK

a. Harremanak

- i. Harremanen inguruko hausnarketa
- ii. Nolako harremanak izan dituen berak
- iii. Bikote ereduren bat buruan

b. Harremana kartzelaratuak pertsonarekin (edo kartzelaratzear zegoen pertsonarekin)

- i. Haren “ibilbidea”
- ii. Nola definitu berak
- iii. Hausnarketarik eginga al zuen harreman ereduaren inguruan.
Elkarrekin eginga al zuten.
- Harremanaren inguruan elkarrizketa sortzen zenean, zergatik/noiz sortzen zen?
- Praktikan jartzen saiatu al zen beste ereduren bat
- iv. Harreman horren aurretik izandako besteekin konparaketa

c. Militantzia (mistoa eta feminista)

- i. Bere militantziaren ibilbidea
- ii. Bere bizitzan duen garrantzia eta eragina

2. KARTZELA GARAIA

a. Kartzelaratzear

- i. nola bizi izan zuen
- ii. Aurretiaz kontenplatu zen zerbait zen (prestaketarik?)
- iii. Atxilotze-inkomunikazio egunak, zertan eman zituen.
- Bikotearen familia ezagutzen zenuen lehenagotik? Egun hauetan haiekin egon al zinen?
- iv. Kartzelaratzear

b. Harremanaren jarraipena?

- i. Bikoteak harekin jarraitu ote zuen, zalantza egin ote zuen jarraituko zuen, zer suposatu zuen berarentzat bikoteak harekin jarraitzeak
- ii. Elkarrekin hitz egin al zuten jarraipenaz edo eteteko posibilitateaz
- iii. Egoera horretan harremanaz edo haren egoeraz hitz egin al zen

c. Harremana kartzelan

- i. Harremana aldatu ote zen, zertan

- ii. Nolako jarrera hartzen du harremanarekiko
- iii. Harremanaren etorkizunaren inguruan hitz egin zen?
- iv. Zein irudikapen egiten du berak erlazioaz, zer nahi, zer behar ...
- v. Sexualitatea, bikotearekin, bakarrik ...
- vi. Prozesua, aldaketarik egon al da

d. Hausnarketak erlazioaz

- i. Hasieran hausnarketa horiek bazeuden, aplikatzen ote ditu
- ii. Hausnarketarik egiten al du (dute) harremanaz?
- iii. Bikote ereduren bat? (harremana emateko moduagatik...)
- iv. Konpartitzen al zituen hausnarketak bikotearekin
- v. Etorkizunean zer irudikatzen zuen (BIDEO: Barrura begiratzeko leihoak. Barrukoak ametsak erromantikoak, kanpokoak bizi erreala)
- vi. Nola irudikatzen zuen bikotea
- vii. Gaur egunean zerbait ezberdin egingo zuen?

e. Militantzia

- i. Militantziarekin jarraitzen al zuen, nola?
- ii. Nolako eremuetan mugitzen zen, bertan haren bizitza pertsonalean ematen ari ziren egoerez hitz egiten al zuen?
- iii. Eraginik al zuen honek bere bizitza pertsonalean?
- iv. Kanpoko jendeak influentziarik al zuen erlazioan, zerbait entzun al zuen, esan zioten, orokorrean zein nolako jarrerak sumatu dira.

3. KARTZELA ONDOREN

a. Egoera

- i. Zein bide egin zuten
- ii. Irudikatzen zuen modukoa izan da
- iii. Alde positiboak
- iv. Alde negatiboak

b. Pertsonala

- i. Zertan aldatu duen bera bizipen honek
- ii. Maitasunarekiko zuen ikuspuntua aldatu ote den
- iii. Hasierako irakurketa horietatik gaur egunera nolako bidea egon den

8. BIBLIOGRAFIA

AGUILERA, Marga (2009): "Población penalizada" in Manzanos, Cesar, "Gizarte bazterkeriaren eta pobreziaaren feminizazioaren aurkako borroka : herri-erakundeen eta elkarte sarearen papera : biltzarra" Ikusbide, orri. 125-137.

ALCEDO, Miren (1996): *Militar en ETA. Historias de Vida y Muerte*, Haranburu editor, Donostia.

----- (1997a): "Las mujeres de ETA: construcción del género y militancia política", in *Ankulegi Gizarte Antropologia aldizkaria*, 1. zenb., 31-35 or.

----- (1997b): "Militar en ETA: recreación de la etnicidad colectiva/identidad individual" in *Ankulegi Gizarte Antropologia Aldizkaria*, 1. zenb., 43-52 or.

ALMEDA, Elisabet (2002): *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres*, Bellaterra, Bartzelona.

----- (2003): *Mujeres encarceladas*, Ariel, Barcelona.

----- (2006): "Mujeres y cárceles, pasado y presente de las cárceles femeninas en España" *Congrés Penitenciari Internacional: La funció social de la política penitenciària*. Generalitat de Catalunya, Barcelona 159-180 or.

ARBELAITZ Miren, BENGOETXEA Edurne, MÉIJOME Alma, RUIZ Maria eta VARA Laura (2011): *Mujeres ex-presas, vulnerabilidad y autonomía*, publikatu gabeko ikerketa, Emakunde, Gasteiz.

ARETXAGA, Begoña (1988): *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*, Donostia, Baroja.

----- (1996): "¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica sobre Irlanda", in *Arenal. Revista de historia de las mujeres*, vol.3, 2. zenb., 199-216 or.

----- (1997): "Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia de Irlanda del Norte" in *Bitarte aldizkaria*, 13. zenbk., 45-67 or., Donostia.

AROSTEGI, Elisabete; FERNANDEZ, Araceli; GARCÍA DEL MORAL; Nieves; URBANO, Aurora (2008): *Prisión y género: efectos del encarcelamiento en mujeres y hombres presos y en su entorno familiar*, Zubiko elkarte, Bilbao.

ASSEMBLÉE NATIONALE (2009): *Rapport d'information N° 1900*, Assemblée Nationale, Paris, in <www.assemblee-nationale.fr> [Azken kontsulta: 2012ko Urtarrilaren 7an]

AUZOLANA (2010): *Burdinen arteko herria. Euskal Preso Politikoaren Kolektiboaren historia*, Euskal Herria.

BECK, Ulrich eta BECK-GERNSHEIM, Elisabeth (2001): *El normal caos del amor. Las nuevas formas de la relación amorosa*, Paidós, Bartzelona.

BEHATOKIA (2004): *Emakumea eta lege antiterrorista*. Hemen eskuragarri: <https://prod.euskalherria.indymedia.org/eh/servlet/OpenMir?do=getpdf&id=15608&forIE=.pdf> [Azken kontsulta: 2013-09-12]

BHAVNANI, Kum-kum eta Y. DAVIS, Angela (2007): “Mujeres presas, estrategias de transformación” in BIGLIA, Barbara eta SAN MARTÍN, Conchi (Koord.) *Estado Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violaciones de género*, Virus Editorial, Bartzelona, 197-215.

BILGUNE FEMINISTA (2012): “Bereizkeria eta gehiegikerietan oinarritutako bizitzak: Emakume presoak” *Emaraun aldizkaria*, otsaileko alea, 3-7 orr.

BODELON GONZALEZ, Encarna (koord.) *Derecho, Género e Igualdad. Cambios en las estructuras jurídicas androcéntricas Vol. II*. Grupo Antígona UAB, Bartzelona, 9-20 or.

CRUELLES, Marta eta IGAREDA, Noelia (2005): *Mujeres, Integración y Prisión: Un análisis de los procesos de integración sociolaboral de las mujeres en Europa*, SURT, Aurea, Barcelona.

DE BEAUVOIR, Simone (1949) *Le deuxième sexe I et II*, Folio essais, Paris.

DE MIGUEL, Estibaliz (2008): *Actrices sociales en el escenario carcelario en V Congreso Internacional de la Asociación de Estudios de Mujeres (AUDEM)*. ArCibel ed., Sevilla.

----- (2009): “Las relaciones de pareja de las mujeres encarceladas”, in HEIM, Daniela –

----- (2010): “Mujeres excluidas, “malas” mujeres” *VII Congreso Vasco de Sociología y Ciencia Política*, Asociación Vasca de Sociología Política, Bilbao.

----- (2012): *Relaciones amorosas de pareja en las trayectorias vitales de las mujeres encarceladas*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

DEFENSOR DEL PUEBLO ANDALÚZ (2006): *Mujeres provadas de libertad en centros penitenciarios de Andalucía*. Hemen eskuragarri: www.defensor-and.es [Azken kontsulta 2013-09-11]

DEL VALLE, Teresa (1985): *Mujer vasca, imagen y realidad*. Antrophos, Bartzelona.

----- (2001): *Emakumeak Euskal Herrian, erresistentziak eta hausturak*, Gaiak, Donostia.

DIEZ MINTEGUI, Carmen eta BULLEN, Margaret (2010) “Matriarchy versus Equality: From Mari to Feminist Demands” in Esteban, M.L. & Amurrio, M. (arg.), *Feminist Challenges in the Social Sciences*, Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno eta UPV/EHU, Current Research Series, nº 2, 113-126 or.

ERASUN, Arantxa (2001): “Itzalaren itzalean borrokan”, *La mujer en Euskal Herria (hacia un feminismo propio)*, Auzolanean, Basandere, Donostia 247-271.

ESTEBAN, Mari Luz (2011) *Crítica del pensamiento amoroso*. Barcelona, Bellaterra.

ETXERAT (2010): *Dispertsio politika aztertzen dituen dossierra*. Hemen eskuragarri: www.etxerat.info
[Azken kontsulta 2013-06-09]

FOUCAULT, Michel (1979) *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Madrid.

GENERALITAT DE CATALUNYA. DEPARTAMENT DE JUSTÍCIA (2010): *Reglas Penitenciarias Europeas*, Generalitat de Catalunya, Barcelona, in <<http://www20.gencat.cat/>> [Azken kontsulta: 2013ko Urtarrilaren 7an]

GOFFMAN, Erving (1998): *Estigma, la identidad deteriorada*, Amorrortu editoriala, Argentina.

GONZALEZ-GOROSARRI, Maria (2008): “La represión franquista contra las mujeres republicanas en el marco del fascismo europeo” in GOZALEZ-GOROSARRI, Maria – BARINAGA, Eduardo *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*. Ttartalo, Donostia, 1. Kap, 9-101 or.

HERRIRA MUGIMENDUA (2012): “Emakumea eta Kartzela, emakumeon bizipenetatik hausnarketa kolektibora” *Emakumea eta Kartzela hitzaldia*, Bilbo, 2012ko Abenduaren 18an. Publikatu gabeko transkripzioa.

IMAZ, Elixabete (2007): “Mujeres reclusas, mujeres invisibles” in BIGLIA, Barbara eta SAN MARTÍN, Conchi (Koord.) *Estado Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violaciones de género*, Virus Editorial, Bartzelona, 189-195.

JAIKI HADI (2009): *2009an senideei egindako diagnostikoaren ondorioak*. Jaiki Hadi elkarte, Euskal Herria. (Publikatu gabeko txostena)

JIMENEZ, Eva; LEÓN, Ander; ORBEGOZO, Izaskun; PEGO, Laura; PÉREZ, Ana Isabel eta VODOZMEDIANO, Laura (2012): *Situación penitenciaria de las mujeres en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra*, Emakunde, Gasteiz.

JULIANO, Dolores (2011): *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino*, Gakoa Liburuak, Donostia.

LAGARDE Y DE LOS RIOS, Marcela (2011): *Los cautiverios de las mujeres*, Horas y HORAS, Madrid.

LARRAURI, Elena (2010): “Control informal: Las penas de las mujeres” in EMAKUME INTERNAZIONALISTAK, *XIV Semana de Emakume Internazionalistak: Encarceladas, Atxiloturik* (52-59 or.). Zabaldi, Iruñea. Hemen eskuragarri: www.zabaldi.org [Azken kontsulta 2013-06-09]

MANZANOS BILBAO, César (1988): “Prisiones en Euskadi y transferencias penitenciarias”, *Zerbitzuan. Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, 5. zenb., 93-96 or.

----- (1998): “Salir de prisión: la otra condena”, *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkari*, 35. zenb. 64- 69 or.

MARTINEZ, Josu; LARREATEGI, Txaber; GABILONDO, Mireia; GOIKOETXEA, Enara eta OLASAGASTI, Eneko (2012): *Barrura begiratzeko leihoak* [Dokumentala], Zinez, Bilbo.

MENDIA AZKUE, Irantzu (2008): *Estrategias de organizaciones de mujeres para una paz con justicia de género*, Hegoa institutua, EHU.

MINISTERIO DEL INTERIOR (2008): *Programa de acciones para la igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito penitenciario*, Ministerio del Interior, Madrid, in <<http://www.institucionpenitenciaria.es/>>
[Azken kontsulta: 2013ko Urtarrilaren 7an]

OBSERVATORI DEL SISTEMA PENAL I ELS DRETS HUMANS (2005) *La cárcel en el entorno familiar*, Ajuntament de Barcelona, Barcelona.

SALHAKETA NAFARROA (2011): *Mujeres en prisión. Voces desde dentro del Centro Penitenciario de Pamplona*, Salhaketa elkarte, Iruña.

SANTAMARIA, Ainara (2012) *Musikagintza eta maitasun erromantikoa: Hesian musika taldea adibide*, publikatu gabeko tesina, UPV-EHU, Donostia.

STÜRTZE, Alizia (2001): “Movimientos de Liberación Nacional y Liberación de la mujer: Aproximación al caso vasco”, *La mujer en Euskal Herria (hacia un feminismo propio)*, Auzolanean, Basandere, Donostia, 227-245.

STÜRTZE, Alizia; COLERA, Maria; KORTA, Mertxe (2002): *Emakumeak XX. Mendeko historian: pertsonaiak, gaiak, gertaerak*, Gaiak, Donostia.

VARA JIMÉNEZ, Laura (2011): *Amatasuna eta espetxeak. Hainbat euskal emakumeren esperienziak*, UPV-EHU, Donostia. (Publikatu gabeko tesina)

YAGÜE OLMOS, Concepción eta CABELLO VÁZQUEZ, María Isabel (2005): “Mujeres jóvenes en prisión”, *Revista de estudios de juventud*, 69. zenb., 30-48 or.

ZULAIKA, Joseba (1990): *Violencia vasca, metáfora y sacramento*. Nerea, Madrid.